

## **I.GAIA**

### **1.- ZUZENBIDEA ETA ORDENAMENDU JURIDIKOA.**

Hasi baino lehen, zer ote da zuzenbidea eta zein da bere funtzioa? Zuzenbidea arauen sistema bat da, hau da, araez osatutakoa, arauen multzo bat. Gatazka eta tentsio sozialei konponbide ematea du helburu, gizakien arteko elkarbizitza posible suerta dadin. Horrez gain, azpimarra dezakegu giza komunitateko kideen jarduera-eremua arautzen eta zehazten duten arauen eta printzipioen beharra ere adierazten duela.

Baina ez dugu nahasi behar ordenamendu juridikoarekin, biak gauza ezberdinak direlako.

Ordenamendu juridikoa arau idatziak dira, une eta tokiz aldatzen direnak, aldakorrek direnak. Kontuan hartzen dena araua da, ez arau horrek izan dezakeen eragina, zuzenbideak egiten duen moduan.

Zuzenbide mota ezberdinak aurki ditzakegu. Ikusiko ditugu gainetik:

**ZUZENBIDE PRIVATUA:** Jarduera ekonomiko pribatua eta haren erregulazio juridikoa burutzen duena. Honen barruan Zuzenbide Zibila (partikularren arteko erlazioak arautzeko arauen multzoa) eta Merkatal Zuzenbidea (merkataritza- eta enpresa- jarduerak arautzeko arauen multzo propioa) aurki daitezke.

**ZUZENBIDE PUBLIKOA:** Emate publikoen jarduera ekonomikoak eta haien erregulazio juridikoa. Honen barruan Administrazio Zuzenbidea (Administrazio Publikoaren funtzionamendua eta herritarrekin dituen erlazioak arautzen dituzten arauen multzoa) eta Finantza-Zuzenbidea (gastu publikoaren arauak eta beharrezkoak diren baliabideak lortzeko exijentziak).

**LAN-ZUZENBIDEA:** Zuzenbide publikoaren eta zuzenbide pribatuaren artean: izaera mistoa du. Gizarte gatazka konpontzea du helburu: enpresarien eta langilearen artean existitzen diren ezberdintasunentzat.

### **I.2.- ENPRESAREN JARDUERARI APLIKATZEN ZAION ZUZENBIDEA**

Dakigunez, enpresarentzat ez dago arautegi bakar bat, ez dago arau orokorrik, enpresa bakoitzerako ikuspegi ezberdinak daudelako, bere izaera, jarduera-esparrua, jabetza eta abarren arabera. Kontuan izan behar dugu enpresa kanpotik batasun gisa ikusten dugula (erakundea) eta baretik elementu ezberdinez osatuta dagoela, elementu guztien batasunik gabe ezin funtzionatuz. Beraz, elementu ezberdinez osatuta dagoenez, enpresaren barruan arau ezberdinak aplikatu beharko dira.

Adibidez, enpresak lan berri bat sortu nahi du administrazioarekin lotura zuzena duena. Enpresa horrek produktu bat saltzen du, eta jakitun garenez, produktua seguru egon behar da saldu arte, hortaz, segurtasun neurri horiek legezkoak izateko Administrazio Zuzenbidea behar dugu; ez hori soilik, enpresa orok zergak ordaindu behar dute, eta horretarako, Finantza-Zuzenbidea ezartzen da. Gainera, produktua saltzeko, produktua definiturik egon behar da, marka bat behar du. Marka Legea aplikatu beharko zaio eta hori Merkatal Zuzenbideari dagokio, beste gauza askoren artean. Marka baten antzekoa bada, eta oso zaila denez markak, batzuetan, ezberdintzea, Publizitate Konparatiboa sortzen da (Se define la publicidad comparativa como “aquella en la que el empresario anunciante compara su oferta con la de uno o varios competidores, identificados o inequívocamente identificables, con el fin de destacar las ventajas de sus propios productos o servicios frente a los ajenos”, y en ella se plantea el mismo problema que anteriormente.).

Ez dugu ahaztu behar enpresa bat krisi egoeran dagoenean Konkurtso Zuzenbideprozedura

aplikatuko zaiola, non enpresa eta enpresariari hainbat neurri ezarriko zaizkien. Enpresaren ondasunak eta eskubideak Eskritura Publikoan ezarri behar dira. Enpresaren barruan delituren bat egonez gero, zuzenean Zigor Zuzenbidera joko da.

### **I.3.- ZUZENBIDEAREN ITURRIAK**

KZ. 1.1.artikuluak dio: Espainiako antolamendu juridikoaren iturriak dira legea, ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrak. Zuzenbidearen jatorria Erdi Aroan dago, Merkatal Zuzenbidea sortu zenean, dakigunez ahozkoa zen, ohiturazkoa, ez zen idatzia eta belaunaldiz belaunaldi igaro da. Baina, egun, egoera nahiko aldrebesa da; erakunde asko dago eta bakoitzak arau espezifikokoak behar izanik, zuzenbide mota asko sortzen da eta arau idatzi ugari.

Kode Zibilean oso ondo aurkitzen dugu arauen arteko hierarkia edo zerrenda hori, lehen koadroan aipaturikoa. Ikus dezagun.

LEGEAK: Arau juridikoa, idatzia eta botere publikoan jatorria duena (parlamentuan).

OHITURAK edo USADIOAK: Idatzi gabeko errepikatua den praktika. Une eta tokiaren arabera aldatzen dena.

ZUZENBIDEAREN PRINTZIPIO OROKORRAK: Arauak ulertzeko tresnak dira. Definizio zehatza eman diezaiekegu: "Principios orientadores que carecen de naturaleza normativa y que, en virtud de lo previsto en el art. 1 CC, tienen una doble función: informan al ordenamiento jurídico, de manera que son considerados tanto en la elaboración como en la aplicación de las normas, y, por otro lado, también son utilizados para hallar las soluciones concretas a casos determinados en defecto de la ley o la costumbre"

JURISPRUDENTZIA: Arautegi gorenaren sententzia gisa ulertu behar dugu. Aurreko urteetako sententzietatik, Auzitegi Gorenak adierazitakoetatik, hartzen diren ideiak dira, mementoko sententzia bat ezartzeko. Gutxienez bi sententzia beharrezkoak dira. Bere funtzio nagusia ordenamendu juridikoa bete eta integratzea da.

Jatorriak zeintzuk diren jakiteko erakundeak bereizi behar ditugu: Europar Batasuna (EB), Estatua, Autonomia Erkidegoa, Lurralde Historikoak (Euskadiren kasu berezia) eta Udalak.

Ikusiko dugu, erakunde horien arauen eta beste zenbait arauen arteko hierarkia:

#### **a) EUROPAR BATASUNA**

EB politika eta ekonomia aldetik ikusita batasun ezberdina da. Politikoki 28 estatu daude eta ekonomikoki 13. Hori guztiak Shengen Hitzarmenetik dator. Europar Batasuneko Erakundeak Europar Batasunaren barruan kontseilua (Órgano comunitario formado por los representantes de los Gobiernos de los Estados miembros), parlamentua (Órgano comunitario, con sede en Estrasburgo, que tiene su origen en la Asamblea común de la CECA, CEE y la CEEA. Está compuesto por los representantes de los Estados miembros elegidos por sufragio universal directo por los ciudadanos (hoy día 786 diputados)) eta auzitegiak (Órgano comunitario compuesto por quince Jueces y ocho Abogados Generales, nombrados por los Gobiernos de los Estados miembros y con sede en Luxemburgo. Se encarga, con carácter general, de garantizar el respeto al Derecho en la interpretación y aplicación de los Tratados) daude

(K.P.A). Europa mailan Banku zentralak agintzen du eta gainerako bankuek horren erabakiak eta irizpideak bete behar dituzte. Frankfurt kokatuta dago eta bere presidentea Mario Draghi da. Europar Batasunaren arautegia Gaur egun Lisboako Hitzarmena dago indarrean; funtzionamendua arautzeko hitzarmena da.

Horren barruan bi arau mota sortzen dira:

ERREGELAMENDUA: Estatuari aginduak ematen dizkie: helburua, objektua eta prozedura (zer egin, nola egin eta nola eta zer lortu).

DIREKTIBA: Estatuari zer egin behar duten esaten die: kasu honetan, ez die esaten nola burutu behar duten (prozedura), soilik helburua finkatzen die. Hemen prozedurak estatu bakoitzak ezarriko ditu.

EBren eta estatuen arteko harremanak

EBeko legediak lehentasuna eta nagusitasuna izango du estatuen gainetik, eta, beraz, beste edozeinen aurretik aplikatuko da. Horrela, esaterako, kontrakotasuna egotekotan estatu bateko konstituzioaren eta EBko arauen artean, konstituzioa aldatu beharko da. (Espainiako erregea epaitzearen adibidea, lehen ezin zela epaitua izan, baina Europar Batasunak hori ez zuen onartzen, beraz, EBtik kanpo gelditu nahi ez baziren, konstituzioa aldatu behar izango zuten).

b) ESTATUA

Estatuen lege gorena Konstituzioa da. Baina, horrez gain, beste arautegia dago ere. Parlamentuan edo legebiltzarrean sortzen diren legeak Lege Organikoa eta Ohizko Legeak dira. Gobernutik sortzen diren legeak Errege Legegintza Dekretua, Dekretu Legea eta Dekretua dira. Ministerio bakoitzetik egindako arauak Aginduak dira. Estatu mailan araurik garrantzitsua, aipatu bezala, konstituzioa dugu. Hierarkia-maila bat ere ezartzen da estatu mailan. Hurrengokoa da:

1. MAILA:

→ Lege Organikoa: Giza eskubideak garatzen dira; onartua izateko gehiengoa parlamentuan eta senatuan behar da. "Leyes reguladoras de determinadas materias que requieren un consenso y procedimiento aprobatorio especial por el Congreso de los Diputados. Las materias reservadas a ley orgánica son: 1) desarrollo de derechos fundamentales y libertades públicas constitucionales; 2) Estatutos de Autonomía; 3) Régimen Electoral General, y 4) aquellas otras materias previstas en la Constitución, tales como el Tribunal Constitucional, el Tribunal de Cuentas y demás instituciones."

→ Ohizko Legea: Ohizko Legeak, esan dezakegu, Lege Organikoek tratatzen ez dituzten gaiak tratatzen dituela. Gehiengo sinplea soilik eskatzen da. "son aquéllas que no recaen sobre las materias reservadas a ley orgánica: derechos fundamentales y libertades públicas, Estatutos de Autonomía, régimen electoral general y demás consignadas en el ordenamiento jurídico."

2.MAILA:

→ Errege Legegintza Dekretua: Legeak biltzeko erabili ohi dena.

→ Errege Dekretuak: Erregimen monarkikoetan garrantzi orokor edo indibidualeko, erregeak edo lehen ministroak sinaturiko, erabaki betearazleari deritzo.

→ Dekretu Legeak: Salbuespenezko egoeretarakoak dira. Zerbait gertatu izan da eta bat-batean lege bat elaboratu behar da, denbora eskatzen ez duena.

Bizkor egin behar da. Jakin behar da txarra dela asko erabiltzea. Dekretu Legea erabiltzen denean, Ohizko Lege bezala bihurtu behar da Parlamentura bidaliz, behin eginda eta erabilia.

→ Dekretuak: Ministro guztiak bilduta egindakoa.

→ Aginduak: Ministro bakar batek hartutako erabakia (araua).

### c) AUTONOMIA-ERKIDEGOAK

(Espainiako) Estatua autonomia-erkidegoetan banatuta dago, eta bertan sortzen diren arauak Madrilera bidali behar dira. Autonomia-erkidegoek duten arau gorena Estatutua da.

Honela dio Konstituzioaren 2.artikuluak: “Konstituzioa Nazio espainolaren banaezinezko batasunean oinarritzen da, hura espainol guztien aberria arrunt eta banaezinezkoa, eta hurrengo hau berrezagut eta garantizatzen du, hots, Espainia osotzen duten nazionalitate eta herrialdeen autonomiarako eskubidea eta denon arteko lagunkidetasuna.”

### IRUDI 1. Autonomia-erkidegoetako eskema.

Autonomia-erkidegoen eta estatuaren arteko eskumenak jakin behar ditugu, gai bakoitza nori dagokion jakiteko. Eskumen bat daukagunean, hiru maila bereiz ditzakegu:

1. Legegintza: gutxienezko arautegia egiteko eskubidea. Oinarrizko legeak egiteko eskubidea.
2. Garapen maila: Aplikatu ahal izateko osatu edo garatu; garatzeko eskubidea.
3. Betepena: Nor arduratuko den, nork beteko duen.

### d) LURRALDE HISTORIKOAK

Euskal Herriaren kasuan, berezitasun bat agertzen da. Araua egiteko boterea daukagu, legebiltzarra (asamblea legislativa, especialmente en el País Vasco). Hiru lurralde historiko daude, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Nolabait Nafarroak ere izaera hau izan dezake. Kontzertu ekonomikoa da bereizgarrietariko bat, aurreko ataleko eskeman aipatu bezala. Kupoak da beste bereizgarri bat, A.Ek estatuari ordaindu behar dion kopurua.

Lurralde Historikoen euren lege berezia dute, Lurralde Historikoen Legea. Legedi horren helburua estatuaren eskumen banaketa da, autonomia-erkidego eta lurralde historikoen artean. Batzar Nagusiek Foru Arauak arautzen dituzte, eta horri esker, zergak jasotzeko eta finkatzeko eskubidea dugu. Horren ildotik, Kontzertu Ekonomikoa agertzen da. Horrek hiru oinarri ditu:

1. Dagozkion zergetan arautegia ego legedia ezartzeko gaitasuna.
2. Zergak kobratzeko aukera; Foru Aldundiek kobratzen dituzte.
3. Finantzaketa propioa izan behar du, ezin da kanpokoia izan, hor dago muga. Europar Batasunak kontzertu ekonomikoa onartu egin du arrazoi horrexegatik. Abantaila finantzaketa-iturriak ezar ditzakeela eta desabantaila muga dagoela da.

Alde honetatik, zergak eta kontzertu ekonomikoa sortzeko, Foru Aldundian bi organo sortzen dira:

Batzar Nagusia: Foru Arauak jartzen ditu eta bere izaera lege batena bezalatsu da. Horiei esker, zergak finkatzeko eskubidea dugu eta baita zergak jasotzeko eskubidea ere.

Diputazioa/Foru Aldundia: Dekretuak sortzen dituzte.

#### 1. UDALAK

Euren arauak sortzeko aukera dute, gutxienezko zergak jasotzen dituzte eta gainerakoa Foru Aldundiak ematen dio.

### I.4.- ARAU JURIDIKOAK

Arau juridikoa jatorria botere publikoan du. Erregelen multzoa da. Erregelak = arau juridikoak (zuzenbidetik kanpo dauden beste erregeletatik bereizteko). Izaera orokorreko agindua jasotzen du, komunitate bateko kide guztiak lotzen ditu. Araua legeaz, ohituraz eta abarrez osatuta dago. Azken batean, gizartea antolatzeke eraginkortasuna duen agindua da.

Xedapen araugilearekin ez dugu nahastu behar. Hori arau juridikoa jasotzen duen xedapena da (arau juridikoaren <garraiatzailea> da), zuzenbide "idatzia". Arau juridikoa existitzeko ez da beharrezkoa xedapen araugilea / arau-testua (adibidez, ohitura).

OPINIO IURIS kontzeptua: La "opinio iuris sive necessitatis" es la convicción de la obligatoriedad jurídica, elemento espiritual de la costumbre o convicción por parte de los sujetos del Derecho internacional de que una práctica obliga jurídicamente.

I.4.1: Arau motak: orokorrak, bereziak eta salbuespenezkoak

**ARAU OROKORRAK:** Arau mota hauek ez dute mugarik. Zuzenbidearen adar komuna da, pertsonen arteko harremanak arautzen ditu. Bere ezaugarri nagusia orokortasuna da. Lege arruntak dira. Espainian, zuzenbide orokorraren funtzioa Zuzenbide Zibilak du (KZ 4.3.art.)

**ARAU BEREZIAK:** Arau mota hauek mugaturik daude. Matera edo harreman juridiko zehatzak arautzen ditu. Erregimen juridiko propioa duten sektore zehatz batzuei zuzenduak daude; hau da, arau berezi hauek aplikatu zatez, erregimen juridiko propio bat izan behar dute. Pertsona edo sektore/kolektibo zehatzei zuzenduak daude; adibidez, merkataria eta enpresariei zuzenduta: Merkatal Zuzenbidea.

**SALBUESPENEZKO ARAUAK:** Hauek Dekretu Legeak bezala, premiazko egoeretakoa izaten dira. Larrialdi egoeretan aplikatzen dira. Aipatzekoa da ere estatu federaletan ere aurkitzen direla, araudi propioa baitute; hala nola Espainiako estatuan Foru Zuzenbidea, ohiturazko zuzenbidea eta autonomia-erkidegoetako zuzenbide propioa (haien eskuduntzen arabera).

I.4.2: Arau inperatiboak eta xedagarriak

**ARAU INPERATIBOAK:** Izenak dioen moduan, aginduak ez du eraldaketarik onartzen; indargabetu ezinezko zuzenbidea.

**ARAU XEDAGARRIAK:** Aldagarria, eraldaketak onartzen ditu, interesdunen ahalmen autoaragilean oinarrituta; zuzenbide ordeztaila.

I.5.- ARAU JURIDIKOAK ANTOLATZEKE ERREGELAK

1. **BEREZITASUN-ERREGELA:** Arau berezia arau orokorraren gainetik aplikatuko da.

Adibidez, Kode Zibila arau orokorra da eta Kontsumo eta Erabiltzaileen Legea arau berezia; hortaz, kontraesanean egotekotan, bigarrenak lehentasuna izango luke.

2. **DENBORAZKO ERREGELA:** Arau bat lehenengo egin eta beste bat beranduago. Modu honetan, bigarren arauak lehentasuna edukiko du. Adibidez, lehenengo arauak 15 eguneko epea ematen duen, eta bigarrenak 7 eguneko; beraz, bigarrena bete beharko zen, denbora duela gutxiagoko araua delako.

3. **HOBETUNTZA-ERREGELA:** Zerbait gertatu da eta gauza egin den momentutik epaitua izan arte arauak alda daitezke. Adibidez, delitua 2010ean egin zen eta garai hartan 2 urteko espetxe-zigorra jasan beharko zen; aldiz, epaiketaren garaian, 2012an, alegia, 6 hilabeteko

espetxea baino ez zen bete behar. Hortaz, bigarrena aplikatuko litzateke, kasu honetan hobe delako delitua egin duenarentzat.

4. HIERARKIA-ERREGELA: Bete errespetatu behar da gainetik dagoena. Ez da aplikatuko autonomia-erkidego eta estatuaren artean. Adibidez, Konstituzioaren eta EBren legediaren artean konstituzioa aldatzearena.

5. ESKUMEN ERREGELA: Kasu honetan bai aplikatu daitekeela autonomia-erkidego eta estatuaren artean.

6. IURA NOVIT CURIA PRINTZIPIOA: "Epaileek zuzenbidea dazagute"; horri jarraiki, arau aplikatzeko zuzenbidea edo araua bera ezagutu beharra dakarrela adierazten du.

7. ANALOGIA: Nola konpondu arauketa zehatzik ez duen gatazka bat? Ohiturari erreparatu beharko diogu; ohitura ezean, zuzenbidearen printzipio orokorrak aplikatuko dira. Demagun pertsona batek lapurtu diola beste bati poltsoa begiratzen ez zegoenean eguerdiko hamabietan. Ez dago horretarako arau zehatzik.

8. JURISPRUDENTZIA: Beste atalean adierazi bezala, arau juridikoak aplikatzen direnean, aurreko urteetako sententziak har ditzakegu adierazle gisa.

## I.6.- EUOPAR INTEGRAZIOA. EUOPAR BATASUNA

Europa zentzu ezberdinetan azter daiteke; alde batetik, aurrez ikusi dugun moduan, politika mailan osatzen duten herrialdeak eta, bestetik, ekonomia mailan. Espainiako estatua 1986an barneratu zen Europar Batasunean. Erromako Ituna (1957) izan zen bere aurrekoa izan zen, 1951ko Pariseko Itunarekin bat. Erromako Itun hori Europar Batasuna sortzeko prozesuan aurrerapauso garrantzitsua izan zen; bertatik sortu zen Europako Ekonomia Erkidegoa, 1958ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zena. Gaur egun, 28 estatu-kidek osatzen dute eta Lisboako Hitzarmena dago indarrean, zeinek nolakoa izango den eta zeintzuk izango diren barne-organoak adierazten duen. Eskumenak eta lege garrantzitsuenak ere itun horretan sartzen dira.

### I.6.1- Europar Batasuneko oinarrizko erakundeak

Europar Batasunak oinarrizko lau erakunde ditu: Europako Parlamentua, Europar Batasuneko Kontseilua, Europako Batzordea, Justizia Auzitegia.

EUROPAKO PARLAMENTUA: Herritarrak ordezkatzeko dituzten eta zuzenean hautatzen da. 732 parlamentari dago honen barruan. Ez du eskumen legegilerik; aipatzekoa da eskumen horiek handituz joan direla eta kontrola, aholkularitza, aurrekontuen onarpena, eta abar izanik. Bere funtzio nagusiak eztabaidatzea eta EBko araudia onartzea da, Kontseiluarekin batera; horrez gain, aurrekontuak onartu eta eztabaidatzen ditu, esan bezala; azken hori ere Kontseiluarekin batera egiten du.

EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUA: Dagozkion estatu-kideetako ordezkariak (estatuaren gobernuetako kideak, ministerio-lerruna dutenak). Europar Batasunaren organo erabakitzaile nagusi eta garrantzitsuena. Esan bezala, Parlamentuarekin erabakitazuk hartzen ditu.

EUROPAKO BATZORDEA: Organo kolegiatua da: presidentea eta komisarioak. Funtzioak estatu kideekiko independenteak eta EBn interesak babesten ditu; interes komunitario babesten du. Erabakitzeko ahalmenak ditu eta Kontseiluak onartu dituen arauak exekutatzeko.

JUSTIZIA AUZITEGIA: Bere helburua EBko zuzenbidearen errespetua bermatzea da. Bere funtzio nagusiak EBko ekintzen legezotasuna kontrolatzea, EBko zuzenbidea betetzen dela zaintzea eta EBko zuzenbidea interpretatzea epaile nazionalak horrela eskatzean. Estatu eta EB osatzen duten herrialdeen arteko harremanak nolakoak diren eta zelako lotura duten jakiteko, EBren legeria nola aplikatzen den kasu bakoitzean jakin behar dugu.

1. Europar legediaren nagusitasuna: Beti egongo da estatu-kide guztien gainetik.
2. Europar Batasunaren legediaren lehentasuna: Arau ezberdinak izanez gero, beti lehentasuna EBko araudiari emango zaio.
3. Aplikazio <zuzena>: Erakunde guztiek daukate buletin ofizial bat, bertan argitaratzen den arau aplikatzen dadin. Europar Batasunaren buletinean arauen bat egotekotan, hots, argitaratuta, zuzenean aplikatuko da estatu osagarri guztietan, EBko buletin ofizialen egotearekin nahikoa izanik.

I.6.2- Europako ordenamendu juridikoaren ezaugarriak

## V. IKASGAIA.- ENPRESARIEN OBLIGAZIOAK ETA KONTRATUAK

### V.1.- SARRERA (OBLIGAZIOAK)

Obligazioak, obligazio-zuzenbidean daude arautuak. Obligazio-zuzenbide Kode Zibilean dagoen ataletako bat da, eta Kode Zibileko IV. Liburuan, 1088.-1975. artikuluek arautzen dute; obligazio-harremanaren eraketa, aldaketa eta iraungipena arautzen dute. Obligazio zuzenbideak obligazio-harremanak arautzen ditu. Hala ere, Kode Zibilak ez du obligazioaren definizio zehatzik eman; <prestazio> moduan uler daiteke.

#### V.1.1- Obligazioa

Obligazioek pertsonen arteko harreman juridikoak ezartzen dituzte: hartzekodunak – eskubidearen titularrak – eskatzeko ahalmena du; zorduna, zor edo betebeharraren titularra da. Prestazioaren edukia portaera edo egite bat da; zerbait eman, zerbait egin edo zerbait ez egin (KZ 1088.art.). Erantzukizunari buruz ari garenean, arau orokor gisa, zordunak erantzukizuna bere ondare osoaz bete beharko du, bai uneko ondasunez, bai etorkizunean izan dezakeenez.

#### V.1.2- Subjektuak

Subjektuen barruan hartzekoduna eta zorduna bereizten ditugu, fisikoak edo juridikoak izan daitezkeenak. Obligazio bat sor dadin, nahitaez bi subjektu egon behar da.

a)Subjektu aktiboa: kreditu eskubidearen titularra Hartzekoduna.

b)Subjektu pasiboa: eginbehar juridikoaren titularra Zorduna.

Hona hemen adibide bat:

Obligazio harremanak bi alde edo subjektu dituzenez, demagun erosle eta saltzaile bat dugula. Eroslea eta saltzailea hartzekodunak eta zordunak dira, alde bietara. Hartzekoduna saltzailea da, dirua jasotzen du bere produktu edo zerbitzua lagaz; baina, halaber, hartzekoduna eroslea da ere, diruaren truk produktu edo zerbitzua jasoko duelako. Zordunak biak dira ere: saltzailea erosleari produktua lagatzeko edo zerbitzua eskaintzeko betebeharra duelako, eta erosleak saltzaileari lagako dionaren truk dirua eman beharko.

Oso garrantzitsua da aipatzea obligazio harreman bat egoteko gaitasuna ezinbestekoa dela. Pertsona juridikoei gaitasunak eraketa-lege eta –arauek ematen diote (KZ 38.art.). Pertsona fisikoei nortasuna jaiotzak ematen die (KZ 29+30.art.). Ezgaitu eta <Nasciturus> (jaioko dena) kontzeptuak adierazi behar dira.

Horrekin guztiarekin batera, subjektu aniztasuna aurki dezakegu obligazio-harreman baten aurrean; horrek adierazten digu pertsona bat bainago gehiago dagoela alde batean edo bietan.

**MANKOMUNITATEA:** Bakoitzak berdina jasotzea adierazten du. Zuzenbidearen esparruan arau orokorra da. Zuzenbidearen presuntzioa da obligatu bakoitzak egitearen zati berdina betetzea – pasiboa – edo jasotzea – aktiboa – .

**SOLIDARITATEA:** Hau espresuki adierazi beharko da, bai arauaren bitartez bai alderdiek adierazita.

→ Kanpo-harremanak: Hartzekodun bakoitzak prestazioaren betetze osoa eska diezaioke zordunari/ei. Zordun bakoitza obligazioaren betetze osoa egitera beharturik dago eta betetzeak obligazioa ezabatzen du.

→ Barne-harremanak: Obligazioaren betetzea jaso duen hartzekodunak gainerako hartzekodunen aurrean erantzungo du bakoitzari dagokion kopuruan. Ordainketa egiten duten zordunek gainerakoei bakoitzari dagokion kopuruaren ordainketa eskatu ahal die(te).

Hona hemen aurreko bakoitzeko adibide bi.

**MANKOMUNITATEA:** Adibidez, zordun bat eta bost hartzekodun daukagula joko dugu. 100€ zor dira. Beraz hartzekodun bakoitzak 20€ lortu lituzke

**SOLIDARITATEA:** Aurreko adibide hartuko dugu oinarri, baina kasu honetan, zordunak erabakiko du zein hartze- kodunari ordainduko dion. Demagun, 4.hartzekodunari ordaindu nahi diola (a). Gero 4.hartzekodun horrek gainerako hartzekodunekin harremanak egingo ditu bakoitzari dagokion zati jasotzeko (b). aldrebes gerta daiteke; hartzekodun bat eta bost zordun. Kasu horre- tan, hartzekodunak aukeratuko luke zein zordun orda- induko liokeen eta gero zordunak barne-harremanak egingo lituzke.

### V.1.3- Objektua

Aurretik adierazi bezala, objektua prestazioa da; zerbait egitea, zerbait ematea edo zerbait ez egitea (KZ 1088.art.). Objektuaren betekizunak posible, zilegi eta zehaztua edo zehazgarria izatea dira.

**POSIBLE:** Ezinezko gauzak edo zerbitzuak ezin izango dira kontratuaren objektu izan (KZ 1272. eta 1460.art.)

Beraz, hitz egin dezagun orain ezintasunei buruz, jakiteko obligazio bat noiz izango den betekorra (posiblea) ala ez. Ezintasun fisiko edo juridikoa. Ezintasun fisikoa natura-zergatiei dagokie (adibidez, uholdeak egon izana). Ezintasun juridikoa Zuzenbidearen arauari darie (adibidez, merkataritzatik kanpoko gaiak). Ezintasun hauen eragina kontratuaren deuseztasuna da.

Ezintasun osoa [objektiboa] edo ez-osoa [subjektiboa]. Ezintasun osoa prestazioa berez ezinezkoa denean izaten da. Aitzitik, ezintasun ez-osoan, ezintasuna zordunak du, baina ez beste pertsona batzuek. Ezintasun osoaren eragina obligazioaren deuseztasuna da; bestalde, ezintasun ez-osoaren eragina diruzko baliokidearen edo kalte-galeren ordaina da.

Guztizko edo zatizko ezintasuna. Erabatekoa denean edo zati bat bete daitekeenean.

Jatorrizko edo eratorritako ezintasuna. Jatorrizko ezintasuna obligazioa ezartzerakoan agertzen da; hortaz, obligaziorik ez da sortuko. Bestalde, eratorritako ezintasunean obligazioa eta gero agertzen da ezintasuna; batetik, zordunaren erruz agertu baldin bada, kalte-ordainak ordaindu beharko ditu, aitzitik, ezustekoa izatekotan, obligazioa iraungiko da.



ZILEGI: Obligazioak aztertu beharko ditugu, <zilegi> kontzeptua betetzen duten ala ez jakiteko. Lege, moral (ohitura ona: kontzeptu erlatiboa, une eta tokiaren arabera) edo ordena publikoaren (estatu baten lege edo arauak) kontrakoa ez izatea adierazten du kontzeptu honek. Prestazioa zilegi ez bada, deuseztagarria izango da.

ZEHAZTUA/ZEHAZGARRIA: Obligazioa hasieratik zehaztuta ez badago, geroago zehaztu daiteke hasieran ezarritako irizpideen bitartez; hasieratik badakigu zer/nola, baina ez dago guztiz zehaztuta geroago zehaztu daiteke. Prestazioa (nahiz eta badakigun zer/nola) ez bada (gehiago) zehazten, obligazioa deuseztatuko da.

#### V.1.4- Obligazio motak objektuaren arabera

##### V.1.4.1: Obligazio positiboak (zerbait eman edo egin) eta obligazio negatiboak (zerbait ez egin)

Zerbait emateko obligazioak gauza bat ematera bideraturiko obligazioei deritze. Obligazio positiboan barruan kokatzen dira. Zaintzeko obligazio gehigarria dago (KZ 1094.art.) : denda batean zerbait saldu nahi denean produktua erosleak jaso arte, ondo zainduta egon behar du. Gehigarriak emateko obligazioa dago ere, nahiz eta aipatuak ez izan (KZ 1097, 346 eta 347.art.)

Gaia zehaztua denean, gaia hartzekodunari ematean, obligazioa amaitzen da eta, aitzitik, atzerapenak edo produktua edo zerbitzua ezin diezaiokegunean eman (apurtu delako edo), kalte-galeren ordainketa eska daiteke. Gaia zehaztugabea denean, beste edozer gauza eman daiteke, antzeko baldintzak

betetzen dituen. Zerbait egiteko obligazioak objektua ematea ez bezalako jarduera burutzea da eta zordunak prestazioa obligazioaren edukia betetz burutu beharko du. Bi azpi-obligazio mota bereiz ditzakegu: jarduera obligazioak eta emaitza-obligazioak. Lehenengoan egindakoak axola du nahiz eta emaitza ez den lortu, hau da, ardura izan duen, saiatu den edo ez. Bigarrenean emaitzak soilik axola du, soilik emaitza kontuan hartzen da, ez egindakoa ahalegina. Zerbait ez egiteko obligazioa (negatiboak) zordunaren portaera ez egitean, egiten uztean edo onartzean datza. Hauek hasieratik finkatuta egon daitezke, edo geroago, zerbait gertatu izanaren ondorioz.

##### V.1.4.2: Tarte bakarreko eta tarte segidako obligazioak

Tarte bakarreko obligazioak prestazioa edo obligazioa une bakar batean osorik burutu behar direnean, hau da, une batean sortu eta agortzen direnak. Tarte segidako obligazioak denboran zehar burutzen dira, obligazio hauen betetzea denboran zehar egiten da zordunaren zenbait egintzaren bitartez. Obligazio mota hauen barruan bi mota bereiz dezakegu:

i. Jarraituak: Zordunaren portaera jarraitua izan behar du obligazioaren epealdian. Adibidez, elektrizitatea edo telefono zerbitzuak denboran zehar bete behar diren, eta jarraituak diren, obligazioak dira.

ii. Aldizkakoak: Zordunak obligazioa bete behar du epealdi batean, baina epealdi horretan denbora-tarte batzuetan ez da obligaziorik egongo, hots, obligazioa aldizka betetzen da, zenbait epealditan. Honen adibide nagusia hornidura- kontratuak dira.

##### V.1.4.3: Obligazio berariazkoak eta generikoak

Obligazio berariazkoak (intencionado, a propósito, especial) obligazioa prestazioaren objektua banaka zehazturik dagoenean ematen da, hau da, gaia erabat berezia denean. Obligazio

mota hauek ez dira suntsikorrak: zordunak obligazio osoa dauka eman behar duen gauza ematera, ez beste edozer gauza; gauza berbera eman beharra du. Obligazio hauek iraungi egiten dira zordunaren erruz, berankorra bihurtu baino lehen, izan ez bada.

Obligazio generikoetan prestazioaren objektua dagokion mota edo klasearen arabera ezartzen da, bereziak ez diren beste gai guztiak, alegia. Obligazio mota hauek erabat suntsikorrak dira, baina gaiaren suntsipen edo deuseztapenak ez du obligazioa iraungitzen. Zer gertatzen da hemen, suntsikorra bada eta obligazioa horren eraginez ez bada iraungitzen? Demagun zerbait zor dela baina ez dagoela guztiz zehaztua; hortaz, obligazio suntsikorra da; gaia desagertzen bada edo suntsitzen bada, beste gauza bat eman diezaiokegu. Ostera, hemen arazoa sortzen da; pausu hauek jarraitu beharko lirateke:

Zehaztea edo bereiztea zordunak egin beharko du, itunik kontra izan ezean; hau da, zorduna izango zen hartzekodunari emango dionaren zehaztearen erantzule. Kalitate ertainekoa izan beharko luke, hau da, hartzekodunak ezin izango luke kalitate handiagokorik eskatu eta zordunak ezingo kalitate gutxiagokorik eman.

#### V.1.4.4: Obligazio bakarrak eta anizkunak

Obligazio bakarrak gai edo objektu bakar bati, bai zehaztua bai klasearen arabera, dagozkienean sortzen dira; hitz gutxitan, objektu bakarra, gai bakarra eta klasearen arabera denean.

Obligazio anizkunak konplexuagoak dira. Obligazio hauek zenbait objekturi dagozkienean izaten dira, ez objektu bakarra. Aldi berean, loturazko edo hautazko obligazioak izan daitezke.

Loturazko obligazioak. Zorduna hartzekodun bakarrari eta harreman bakarretik (hartzekodun bat eta harreman bat) zenbait prestazio metatzen joaten da eta amaieran, prestazio guztiak burutzen direnean, prestazio multzo hori burutzen denean, obligazioa iraungi egiten da eta zorduna aske geratzen da. Azken batean, harreman bakarra izatea prestazio ugarirekin.

Hautazko obligazioak. Alde honetan ere zenbait prestazio dugu harreman eta hartzekodun bakarrarekin, baina prestazio horietatik guztietatik soilik bat bete behar dugu. Normalean zordunak du zein prestazio beteko duen adierazteko aukera, baina posible da hirugarren bati uztea ere, erabaki hori objektiboki har dezan. Aukeraketa beste alderdiari adierazi behar zaio eta beste alderdiak ez du bere onarpena eman behar, hau da, ez du zertan ez onartzerik (que lo tiene que asumir). Gerta liteke ezintasunak agertzea obligazioaren betetzearen aldetik; azter ditzagun bat-batean gertatutako ezintasun eratorria.

~ Zordunari hautatzea dagokionean Zordunaren erruz gertatu ez bada, prestazio guztiak, bat izan ezin, galdu edo ezinezkoak bihurtuko balira, zordunak aukera- eskubidea galduko luke eta geratzen dena bete beharko luke. Zordunaren erruz gertatu bada, prestazio guztiak desagertu, galdu edo ezinezkoak balira, hartzekodunak kalte-galeren ordainketa eskatzeko eskubidea edukiko luke.

~ Hartzekodunari hautatzea dagokionean Prestazioaren bat ezustez galduko balitz, zordunari bakarra geratuko balitzaio, obligazio edo prestazio hori emanik bete beharko luke.

Gai bat soilik galduko balu zordunak (zordunaren erruz galtzea), hartzekodunak gelditzen diren gaien artean edozein eska lezake edo zordunak galdu duen gaiaren prezioa.

Gai GUZTIAK zordunaren erruz galduko balira, hartzekodunak prezioa hautatuko luke, galdu duenaren prezioa.

#### V.1.4.5: Aukerazko obligazioak

Obligazio hauetan aukeratzeko edo ordezkatzeko ahalmena dago. Zer esan nahi dugu horrekin? Zordunak prestazio zehatza du, baina alde zurretik ezarritako beste bat burutzeko ahalmena du. Zordunak aukera bat du hasieran; hartzekodunak esan diezaioke,:

“prestazio hori zuk burutu behar duzuna da, baina beste bat egin nahi baldin baduzu, egin ezazu”; beraz, hemen abantaila zordunak du, aukeratzekoa. Hartzekodunak ezin dio ukatu.

Zeintzuk dira hautazko obligazioekiko ezberdintasunak?

Hautazko obligazioak: prestazioa zehaztugabe dago hasieran; gero bat aukera daiteke.

Aukerazko obligazioak: Prestazioa hasieratik ezarrita dago, baina zordunak ordezkatzeko ahalmena du, beste bat betetzeko ahalmena. Hautazkoa obligazioak: Obligazioan ezintasuna agertzen bada, ezin izango da beteko; hortaz, iraungi egingo da. Aukerazko obligazioak: Prestazioaren ezintasunak ez du obligazioa iraungitzen, ordezeko prestazioak daude-eta.

#### V.1.4.6: Obligazio zatigarriak eta zatiezinak

Obligazio zatigarriak, izenak dioen moduan, objektua zatikatu eta betetzea egite ez-osoan metaketaren bitartez burutu daiteke. Hala ere, obligazioa zatigarria izateak ez du adierazi nahi zatika bete daitekeenik, legeak zatiezintasun-presuntzioa ezarri baitu (KZ 1169.1.art.) KZ 1169.1.artikulua honela dio: Kontratuak esanbidezko baimenik ematen ez duen bitartean, ezin izango da hartzekoduna behartu betebeharraren mendeko prestazioak zati batez jasotzera. / A menos que el contrato expresamente lo autorice, no podrá compelerse al acreedor a recibir parcialmente las prestaciones en que consista la obligación.

Hona hemen adibide bat Dakigunez, mahai bat ezin dugu zatika eman, aitzitik, liburu- bilduma bat bai; baina horrek ez du esan nahi horrela egin dezakegunik; zordunak eska dezake horrela egitea, baina agian hartzekodunak liburuak batera ematea nahi du, edo behintzat liburu-bilduma hori batera joateko beharra izatea. Obligazio zatiezinen aldetik, prestazioa zati homogeneotan zatikatu ezin denean.

<Benetako gorputzak> emateko obligazioa dago: obligazioaren gaia batasun zehatz moduan.

<Benetako gorputzak> osotasunean daude edo lan egiten dute, baina benetako gorputz horiek atal bereziak ditu; adibidez, ordenagailu bat zatitu daiteke, baina obligazioa zatiezina da, ordenagailua batasun moduan funtzionatzen duelako (pantaila, arratoia, CPUa...)

#### V.1.4.7: Obligazio likidoak eta ez-likidoak

Obligazio likidoak kopurua zenbakiz zehazturik duten obligazioak dira, edo kopuru zehatza ezartzeko eragiketa matematikoa baino behar ez denean. Obligazio ez-likidoetan kopurua ez da ezagutzen, nahiz eta irizpideak edo oinarriak finkaturik dauden. “Ez dakigu zenbat zor diguten, beraz, ezaugarrien arabera kopurua finkatu beharko da”.

#### V.1.4.8: Diruzko obligazioak

Prestazioa dirua ematean datza, balio duten monetetan ezarriak daudenak.

MOTAK

Suma- edo kopuru-zorra: Zuzenean dirutan ezarrita daudenak dira: Zordunak --- hartzekodunari.

Moneta zehatzeko zorra: Mota honetan, kopuruaz ezarria egoteaz gain, moneta mota ere ezarria dago (adibidez, Kanadako dolarra).

Diru-zorrak edo balio-zorrak

→ Diru-zorrak dirua neurri-tresna gisa erabiltzen denean, dirua ondasunen edo zerbitzuen truke erabiltzen denean; adibidez, prezioa.

→ Balio-zorrak, kasu honetan, dirua ez da/dira, ondasun edo zerbitzuen BALIOA baizik.

## EZAUGARRIAK

1. Ezin dira iraungi, dirua ez delako inoiz iraungitzen.

2. Ordezkarriak dira: dirua, txeke bat, kreditu-txartela...

3. Obligazioa epemugak bete ezean, beste obligazio gehigarri bat sortuko litzateke: interesa.

## PRINTZIPIO NOMINALISTA

Printzipio honen arabera, diruak denborarekin balioa galtzen du. Dirua, ordainketa- tresna gisa, bere legezko balioaren arabera onartzen da, bere eskuratzeko-balioa ordaintzeko edo betetzeko unean obligazioa sortu zenean baino handiagoa edo txikiagoa den arren (que se paga el valor que tiene actualmente, sea menor o mayor). Zuzenketa-neurriak: Legegintza neurriak / Epai-neurriak: "Rebus sic stantibus" (gauzek dirauten bitartean) klausula / Kontratu-neurriak: egonkortze-klausulak.

### V.1.4.9: Korrituen obligazioak

Obligazio hauek nahiko bereizgarriak dira. Hartzekodunak, zor zaion kapitalaren etekin gisa, duen diru-kopuruaren eskubidea. Norbaiti dirua utzi eta bueltan uste da korritua behar duela.

EZAUGARRIAK Etekin zibilaren edo Kode Zibilaren izaera dute eta egunez sorturik uste izaten dira. Obligazio gehigarria da eta menpekotasuna du; kapitalaren obligazio gehigarria da. Mailegua desagertzen bada, korritua ere.

## ANTZEKO FIGUREKIKO DESBERDINTASUNAK

Errenta → ez da kapital-obligazio bat, zerbait erabiltzeagatik ordaintzen dena. Korbona edo Dibidenduak → ez da korritua, irabazi bat baizik; akzionisten akzioen etekinak, sozietatearen irabazietatik jasotzen direnak.

Amortizazioa → ez dago gehigarriarik hemen, obligazio hauekin gertatzen den moduan; hau kapitalaren ordainketa ez-osoari deritzo.

## MOTAK

Legezko korritua. Dirua erabiltzeagatik sortzen den kopurua da. Hau ordainketa- obligazioen arauan ezarrita dago (KZ 1501. eta 1728.art.).

~ Luzamenduzkoak: Hartzekodunen alde ezartzen dira, zordunaren atzerapen erruarengatik.

~ Ordaintzezkoak: Korritu hauek ezartzen dira beste inoren kapitaletik aberastasuna lortzeko; segurtasun-neurri modu bat izan liteke.

~ Kopurua: Kode Zibilean eta Estatuko Urteko Aurrekontu Orokorren Legean ezartzen da kopurua; legezkoa izan behar du.

Itunezko korritua. Kopurua kontratuko aldeek edo kontratukideek ezartzen/zehazten dute; muga bat du: 1908ko uztailaren 23ko Lukuruaren Errepresio Legea. (Lukurua = Usura, gazteleraz: Práctica que consiste en cobrar un interés excesivamente alto por un préstamo)

Korritu finkoa. Tasa zehatza da, edo korritu aldakorra; kontratuaren iraupenean aldagarria den tasa.

#### ORDAINKETA

Sortzapen-unean egin behar da, normalean (adibidez, hilero, hiruhilero, urtero...).

#### ANATOZISMOA

Anatozismoa korrituen korritua izaten da. Ordaindu gabeko korrituak kapitalari metatzen zaizkio eta korritu berriak sortzen dira horrela. Adibidez, dirua zor digutenean, demagun 1000€ gehi % bat, aldakorra dena Euriborraren arabera. Ordaindu gabe gelditzen diren korrituei, berriro gehitzen zaie ehuneko (%) hori (%3,24, gaur egun). Horrela behin eta berriro egin daiteke; interesak, azken finean, gehitzen edo metatzen doaz.

#### DEFINIZIOA

Euriborra edo Euro Interbank Offered Rate, eguneroko erreferentzia tasa da, Europar Ekonomia eta Diru Batasuneko 57 bankuk elkarri salerositako maileguetan ezarritako batez besteko interes-tasan oinarritutakoa.

#### V.1.5- Obligazio motak loturaren arabera

##### V.1.5.1: Obligazio nagusiak eta gehigarriak

Obligazio nagusiak izaera propioa eta askea dutenak dira; harremana guk nahi dugun gaietatik egiten dugu ( KZ 1461.art.: Saltzailearen betebeharra da salmentaren objektu den gauza eman eta horren saneamendua egitea.)

Obligazio gehigarriak beste obligazio nagusi baten mendean daudenak dira, hura osatuz edo bermatuz (KZ 1824.1.art: Ezin da fidantzarik izan, baliozko betebeharririk gabe. Hala ere, fidantza betebeharraren gainekoa izan daiteke, baldin eta betebeharraren deuseztasuna erreklamatu ahal bada betebeharrekoaren salbuespen pertsonal hutsa erabiliz, hala nola, adingabetasunarena.). Bi obligazio gehigarri mota dago: legezkoak, arauak ezarritakoak, edo borondatezkoak, alderdiek ezarritakoak, eta osagarriak edo bermekoak (KZ 1094.art.: Gauza bat emateko betebeharra duenak gauza hori artatzeko betebeharra ere badu, familiako guraso on batek egingo lukeen moduan.).

##### V.1.5.2: Aldebakarreko eta alde anitzeko obligazioak

Aldebakarreko obligazioetan, obligazioaren prestazioa alderdi bakar bati dagokio. Aldebakarreko obligazioek ez dute adierazten kide bakarra soilik dagoen, izan ere, inork ezin du bere buruarekin kontratu edo obligazio bat eduki. Izatez, bi kide baditugu, bakar batek soilik duenean obligazio bat. Honen adibide nagusia donazioak dira.

Alde anitzeko obligazioak alderdiek elkarrekiko obligazioak eta prestazioak dituztenean; zorduna eta hartzekodunaren elkarrekotasuna dago. Bi pertsonen arteko obligazioak, gutxienez, dira. Adibiderik ohikoena merkatal harremanak dira.

##### V.1.5.3: Obligazio hutsak, baldintzapekoak eta eperakoak

Obligazio hutsak ez dute berezitasunik edo ezaugarri finkorik. Lehen bai lehen bete behar dira, hau da, beren betetzea berehala eska daiteke (KZ 1113.art.: Betebeharrak behingoan eskatzeko modukoa da, baldin eta hori betetzea ez bada bihar-etziko nahiz zalantzazko gertaera baten mendekoa, edo, gertaera iraganekoa izanik, interesdunek horren berririk ez badute. Halaber, baldintza suntsiarazlepeko betebeharrak eskatzeko modukoa izango da, suntsiarazpenaren ondorei kalterik egin gabe.). Hala ere, artikulua horrek baldintza baino ez

du salbuesten; epea, aldiz, ez du bereganatzen. Beraz, kontuan hartu beharko da KZ 1128.artikuluak dioena, zeinen arabera, auzitegiek epea finkatzeko ahalmena baitute.

Baldintzapeko obligazioak gertakizun ezezagun baten menpe daude. Zerbait gertatu behar da obligazio hauek sor daitezen.

Eten-baldintza: obligazioa baldintza betetzen denean sortuko da.

Suntsiarazpen-baldintza: obligazioa baldintza betetzen denean suntsituko da; hau da, aurreko baldintzan zerbait gertatu behar da obligazioa sortzeko, ostera, honetan, obligazioa iraungitzeko.

Kausazko baldintza: obligazio hauek zoriaren (azar) menpe daude.

Eperako obligazioak, izenak dioen moduan, epe bat duten obligazioak dira. Epe jakin bat finkatzen da, eta hortik aurrera obligazioaren eraginak hasi edo bukatu egingo dira.

## V.2.- KONTRATUA

Kode Zibilak kontratuei buruzko arautegi orokorra ezartzen du, baina ez du kontratuaren definizio edo kontzepturik adierazten. Hala ere, kontratuari buruzko adierazpen zehatzak ditu, hurrengokoak:

Borondatezko adostasuna (1254. eta 1258.art.), eskaintza eta onarpena bat etortzea (1262.art.) eta obligazioen sortzapena (1089. eta 1258.art.) Beraz, gure hitzekin definituko dugu, definizio zehatzik ematen ez baitigute: Borondatea eta adostasuna oinarri izanik, gutxienez bi pertsonen arteko borondatezko erabakia, eskaintza eta eskaria bat etorritik, obligazio-harreman bat ezarriko duena, aldatu eta iraungi daitekeena. Horrek ekartzen gaitu pertsona batek bere buruarekin ezin duela kontraturik egitea esatera.

Ikusiko dugu orain zer-nolako kontratu motak dauden, sailkapen bat egingo dugu.

### ADOSTASUNEZKO KONTRATUAK, FORMAZKO KONTRATUAK ETA KONTRATU ERREALAK.

→ Adostasunezko kontratuak burutzeko nahikoa da borondatea edo alderdien adostasuna. Ados egon behar dira alderdiak, ez da gehiagorik eskatzen. Askatasun forma dute, hau da, alderdiek ezar dezakete euren jarraibideak edo erregelak.

→ Kontratu errealetan, adostasunaz gain, beharrezkoa da alde batek besteari aurretik beste zerbait ematea, hala nola mailegu, fidantza, gordailua... Ekuazio hau jarrai dezake: Adostasuna + Gauza bat (gehigarria) = Kontratua.

→ Formazko kontratuetan forma berezi bat eskatzen da – eskritura publikoa, inskripzioa Erregistroan – kontratuak balioa izan dezan. Kontratu hauek salbuespenezkoak dira. Ekuazio hau jarrai dezake: Adostasuna + Forma

berezia (eskritura publikoan egitea, notario baten aurrean...) = Kontratua. Merkatal kontratuak honelakoak izan ohi dira.

### ALDE BAKARREKO ETA ALDE ANITZEKO KONTRATUAK.

→ Alde bakarreko kontratuetan obligazioa alderdi bakar batentzat sortzen da soilik, aurrez aipatu dugun moduan alde bakarreko obligazioekin. Adibide nagusia mailegu bat izan daiteke.

→ Aldebiko edo alde anitzeko kontratuetan zor eta kredituaren elkarrekotasuna dago, obligazio-harreman edo kontratu berean alderdi bakoitzak hartzekodun- eta zordun-egoera aldi berean izanez: salerosketa.

Aurreko atal baten jarrai genuen saltzailearen eta eroslearen arteko obligazioak izaten dira kontratu hauen adibide nagusiak.

### KOSTU BIDEZKO ETA DOHAINEZKO KONTRATUAK

→ Kostu bidezko kontratuetan alde bakoitzak bere prestazioaren truk etekin bat edo horren baliokidea lortu nahi ohi du.

Kontratu trukakorrak: kontratu hauetan, alde bakoitzak hasieratik lortuko duen abantaila edo kontraprestazioa ezagutzen du.

Ausazko kontratuak: kontratu hauetan abantaila edo kontraprestazioa ez da segurua, ez eta zehatza ere, kontratua zalantzazko gertaera baten menpe dagoelako, hots, zortearen menpe. (aseguru-kontratuak) (KZ 1790.art.: Ausazko kontratuaren bidez, alderdietako batek bestea behartzen du edo biek elkar behartzen dute zerbait eman nahiz egitera, besteak eman edo egin behar duenaren bestekoa, zalantzazko jazokuntza edo epe zehaztugabearen jazo behar dena gertatzen denerako.)

→ Dohainezko kontratuetan alderdi batek besteari etekin edo abantaila bat ematen dio ordainean ezer jaso gabe. Opari bat ematea adibidez. Inter vivos dohaintza (KZ 618.art.: Dohaintza eskuzabaltasun-egintza da, eta, horren bitartez, norbaitek beste inoren mesederako gauza dohainik xedatzen du, eta azken horrek onartu.).

**KONTRATU TIPIKOAK ETA ATIPIKOAK:** Bereizketa egiten da kontratuaren arautegiaren arabera.

→ Kontratu tipikoak araututa daude, arauak daude, bai Kode Zibilean bai Merkatal Kodean. Akats bat egotekotan, horiek konponduko lukete.

→ Kontratu atipikoak ez du arautegirik. Gehienetan, berriki sortu diren kontratuetan gertatzen da. Adibidez, leasing kontratua, factoring kontratua...

#### V.2.1.- Kontratuaren nahitaezko elementuak

Harreman bat edo kontratu bat izateko, Kode Zibilak zer eduki behar diren zehazten du, hau da, betekizunak zeintzuk diren.

##### V.2.1.1: Adostasuna edo borondatea

KZ 1262.1.artikuluari begirada bat emango diogu: Adostasuna azaltzen da eskaintza eta onarpena bat etortzeagatik, kontratua eratu behar duten gauzaren eta kariaren inguruan. Adostasuna edo borondatea kontratuaren oinarri dira. Kontratukide ezberdinen borondatea batzen da kontratu bat eratuz. Eskaintza eta eskaria (onarpena, kasu honetan) bat badatoz, guk ez dugu adostasuna adierazten, prest gaudela suposatzen da gure eskaria (onarpena) eskaintzaren baldintza betetzen baditu.

#### ADOSTASUNAREN BETEBEHARRAK

Kontratua benetan eratzeko, adostasunak askea, jakinaren gainekoa eta nahitakoa izan behar du.

Hauek dira adostasunaren betebeharrak:

Subjektu aniztasuna (>2).

Aldeen gaitasuna: adingabea, ezindua eta konkurtso egoeran ez egotea/izatea. Kontratatzeko borondatea: borondateak jakinaren gainekoa, nahitakoa eta askea izan behar du. Benetako borondatea da, serioa da, ez da broma bat.

Kontratatzeko borondatearen adierazpena:

~ Agerikoa: Kontratua idatziz izan behar da.

~ Estarikoa: Zuzenean ikusten da egoera pasiboaren bitartez; ez dago aipamenik, (gero...)

~ Egitezkoa: <facta concludentia>: gure egintzen bitartez kontratua beteta gertatzen da → egunkari bat saltzea ez du saltzaileak esaten “nik saltzen dut eta zuk erosten duzu”, erosi eta saldu egiten da, hori da egintza multzoa.

~ Isiltasunak ez du eraginik. Adierazitakoaren eta nahi izanaren arteko bat-etortzea. Jakin behar dugu kasu batzuetan adierazitakoa eta benetan nahi dena ez dela guztiz berdina. Ikus ditzagun kasu batzuk edo/eta konponbideak:

~ DESADOSTASUNAK nola frogatu? Desadostasuna frogatu beharko du hura baieztatzen duenak (nik adierazten badut horrek ez duela ondo funtzionatzen nik frogatu beharko dut horrela dela).

~ Eragotzi-okerra: Adierazitako borondatearen eta benetako borondatearen arteko oharkabeko desadostasuna. Eskaintza bat egiten digute eta guk erabaki oker bat hartu dugu mementoan. Demagun interneten bidez produktu bat erosi dugu, baina ohartu gabe bi unitate eskatu dugu; erratu egin gara.

~ Buru-erreserba: Desadostasun hau nahitakoa eta jakinaren gainekoa da. Kontratugileak adierazpena nahi du, kontratua nahi du, baina ez haren edukia, benetan ez du nahi bertan dagoena; ez du adierazitakoa nahi eta beste kontratugilea engainura darama. Adibidez: proposamen bat egiten digute eta guk onartzen dugu besteak ez duela beteko pentsatuz (“horrenbestekoa denez berak egin behar duena ba ez du beteko seguruenak”); ondorioz, gure uste horrek ez du balio (Jo, nik pentsatzen nuen bestea ez duela beteko...”).

~ <locandi causa> adierazpena: txantxetan egindako adierazpena da. Adierazpen hau deuseztagarria da, baina jasotzailea (kontratua onartzen duena txantxa jakin gabe) seriotasunik ez duela konturatzen ez bada, adierazpen-egileak (kontratua eskaini diona, txantxetan) kalte-galeren ordaina egin beharko dio. Demagun egoera hau: +“Nik etxea saltzen dizut 100.000€an”. Saltzeko obligazioa dauka saltzaileak? Guk ez dakigu txantxetan eginik dagoen. Horrela bada, ez da obligaziorik sortuko, beraz. Aitzitik, frogatzen bada txantxetan zela, eta txantxa gogor bat zela, bete beharko da.

Kontratu batean egoteko, gaitasun batzuk behar dira.

#### PERTSONEN FISIKOEN GAITASUNAK:

→ Ohizko egoera. Jaiotzetik 24 ordu pasa ondoren, gaitua izango da pertsona.

→ Zuzenbidearen egoeran. Adinez nagusia izan behar du eta ez-gaitua ez izatea. Ezgaituntza mota asko dago: behin-behinekkoa, behin-betikoa... egoera epaileak adierazi beharko du. Ezgaituntzaren ondoren berrabitu kontzeptua ager daiteke, hau da, gaitua berriz ere izatea; hori, halaber, epaileak adierazi beharko du ere.

PERTSONA JURIDIKOEN GAITASUNAK: Erakundez erakunde finkatuko da; erakunde bakoitzaren legediak ezartzen du, zeintzuk diren beharrezko gaitasunak kontratu bat burutzeko.

KONKURTSO-EGOERA: Enpresariaren krisia konpontzeko zuzenbideak ezartzen duen prozedura da. Konkurtso egoerak ere epaile batez adieraziak izan behar dira. Bere obligazioak bete ezin dituenan, bi arazoengatik izan daiteke:

→ Diru likidorik ez dagoelako: aktiboa pasiboa baino handiagoa da, baina ez dago likidezirik (erabilgarri eskasa).

→ Ez duelako ondasunik: aktiboa pasiboa baino txikiagoa denean. (Pasiboa>aktiboa)



ADOSTASUNAREN AKATSAK Adostasunaren akatsak hurrengokoak dira: okerra edo errakuntza, indarkeria, larderia (temor, miedom amenza) eta dolua.

## 1. OKERRA EDO ERRAKUNTZA

Gai edo gauzari buruzko ideia faltsua da (“guk ez genekien hori”). Zuzenbidearentzat, okerra edo errakuntza eta ez-jakitea berdintsuztat hartzen dira. Oso garrantzitsua da jakitea noiz sortu den okerra: gure borondatea adieraztean, edo geroago? Jatorriz, borondatea adieraztean, sortu bada/bazen okerra, kontratua edo obligazioa baliogabe geratzen da/geratuko zen.

Berezko okerra edo akats okerrak:

Betekizunak:

~ Funtsezko okerra: Adostasuna eratzeko erabakigarria denean, oker hori gure erabakia da, gure okerra.

~ Desenkusagarria (excusable): Gerta liteke guk oker bat izatea; oker hori zuzendu ahal izan da?

Baliogabetze okerrak: okerrak noiz uzten duen kontratua baliogabe.

~ Kopuru-errakuntzak: Kontratu batean kopuru okerrak kontratua baliogabe utziko du, gauzaren hedapen edo gutxitzearen arabera izan denean. (KZ 1266.art.: Para que el error invalide el consentimiento, deberá recaer sobre la sustancia de la cosa que fuere objeto del contrato, o sobre aquellas condiciones de la misma que principalmente hubiesen dado motivo a celebrarlo.). Okerrik ez egoteko, letraz eta zenbakiz jarrita egon behar da. Kontrakotasunean egotekotan, letraz idatzita dagoena izango luke lehentasuna.

~ Pertsonari buruzko errakuntzak: Pertsonaren nortasunaren bai eta haren ezaugarrien gainekoa ere. KZ 1266.2.artikuluak honela dio: “Pertsonari buruzko okerrak kontratua baliogabetuko du, kontratua egiteko arrazoi nagusia izan denean pertsona hori kontuan hartzea.”

Baliogabetze okerrak ez direnak:

~ Negozioaren gaineko okerra: ez dago kontraturik. (uste bat izan da eta ez beste bat). KZ 1261.art.\*

~ Kontratuaren objektuaren izatearen gaineko okerra: ez dago kontraturik. KZ 1261.art.\*

~ Karien gaineko okerra: kontratua egiteko kari edo zio (kausa) subjektiboak ez dira kontuan hartzen.

Egitezko edo zuzenbidezko okerra:

~ Egitezkoak: eman ditugun guztiak dira, hau da, gaiari buruzko errakuntzak.

~ Zuzenbidezkoa: legerian egiten diren errakuntzak dira. zuzenbidearen mailan dago eta kasuz-kasu aztertu behar ditugu. \*KZ 1261.art.: Ez dago kontraturik, hurrengo betekizunak gauzatzen direnean baino: 1. Kontratugileen adostasuna. 2. Objektu zehatza, kontratuaren gai dena. 3. Kontratuak ezarritako betebeharraren karia.

## 2. INDARKERIA

Adostasuna lortzeko indar jasanezina (ez da kontzeptu finkoa, indarra eta mina subjektiboa baita) erabiltzen denean (KZ 1267.art.). Ez dago inolako borondaterik eta, beraz, ez dago kontraturik edo kontratua deuseztagarria da. KZ 1267.1.art.: Hay violencia cuando para arrancar el consentimiento se emplea una fuerza irresistible. / Indarkeria bada izan, indar jazarrezina erabiltzen denean adostasuna lortzeko.

Fisikoa: indarkeria egoteko, harreman fisikoa behar da; ez badago harreman fisikorik, ez dago indarkeriarik.

Jasanezinekoa: kontzeptua mugagabea da, zehaztugabea. Testuingurua eta kontratukideak aztertu beharko genituzke: adina, sexua, osasuna...

### 3. LARDERIA

Kontratugileetariko bati beldurra eragitea, kontratugile horrek berak edo haren ondasunek (adibidez, "kontratua betetzen ez baduzu, zure etxea desagertuko da") nahiz beraren ezkontideak (beren gainean baita bere ondasunen gainean), kalte larria jasango dutela ulertaraziz.

KZ 1267.2.art.: Larderia bada izan, kontratugileetako bati beldur zentzuzko eta oinarriduna eragiten zaionean, kontratugile horrek berak edo haren ondasunek nahiz beraren ezkontideak, ondorengoek edo aurrekoek eurek nahiz haien ondasunek hur-hurreko kalte larria jasango dutelako.

Hauek dira larderiaren egoerak:

Larderiak borondatea derrigortzen du, behartzen gaituzte zerbait egitera, askatasunez erabakiko zukeen ez bezala; azken batean, ez badago borondaterik = ez dago kontraturik.

Larderiaren baldintza objektiboak:

~ Kalteak hur-hurrekoa (inmediato) izan behar du: segurua, oraingoa, ez posiblea eta ez gerta daitekeena. Adibidez, "bihar istripu bat izango duzu, ez agian etorkizunean, bihar".

~ Larria izan behar du, ez txikia edo azalekoa.

~ Eta, azkenik, pertsonala, kontratukideetariko bati edo/eta haren familiari edo/eta ondasunei zuzendua.

Larderia frogatu behar da.

"Begirunezko beldurra edo ikara": Mendekotasuna edo errespetua izan behar zaien pertsoneri buruz ("berak zer pentsatuko du nik hau egiten ez badut? Beraz, egingo dut.") . Honek ez du kontratua deuseztatzen. (KZ 1267.4.art.)\* Larderiaren egilea edonor izan daiteke, hirugarrenak barne. \*KZ 1267.4.art.: Pertsona zehatz batzuei mendetasuna eta errespetua zor eta horiek nahigabetzeko beldurrak ez du kontratua deuseztatuko.

### 4. DOLUA

Kontratukide batek, hitz maltzurren edo azpikerien (traición, fraude) bitartez, beste kontratukidea bultzatzen duenean kontratua egitera. Doluak engainuaren eragitea darama bere barnean, hau da, engainu bat bezalakoa da, azken batean. (KZ 1269.art.)

KZ 1269.art.: Doloa bada izan, kontratugile batek, hitz edo azpijokoen bidez, bestea bultzatzen duenean kontratua egitera, eta hitz edo azpijokorik izan ez balitz, kontratugileak ez bazukeen kontratu hori egingo.

Bi motatako dolu aurki ditzakegu:

Dolu positiboa: ez dagoena sinarazi. "Eraiki dezakezue hemen"; gero eraikitsera goazenean, ez dago zelairik esan ziguten lekuan. Azken batean, kontratukideari zerbait dagoela sinestarazten diogu eta horrekin sinatzen du, baina benetan ez dago.

Dolu negatiboa: dagoena – errealitatea – isildu edo ezkutatu. “Eraiki dezakezue kontratuarekin”; gero ezin dugu eraiki, lurzorua txarto dagoelako. Eraiki genezakeen, baina ez ziguten esan lurzorua txarto zegoela, ezkutatu dute (engainua).

Doluak egoteko betekizunak:

Azpikeriak erabiltzea.

Beste kontratugilearen borondatea eragitea kontratua burutzeko.

Doluak larria izan behar du, larderia lez.

Dolua frogatu beharrekoa da, ez da inoiz uste izaten.

\* <Dolus bonus> kontzeptua agertzen zaigu: “Gehiegikeriak” (produktu hau onena da). 34/1988 Legea, azaroaren 11koa, Publizitate Orokorrarena. Oso garrantzitsua da aipatzea doluaren egilea kontratugileetako bat izan behar dela, ez da onartzen hirugarrenik, larderiaren kasuan ez bezala.

Azken aipamen bat: Intzidente bidezko dolua: “Guk engainu bat izan dugula badakigu, baina prest egon ginen hori betetzeko; hala ere, dolua izaten jarraitzen dugu; guk bagenekien kontratu horrek dolua zekarrela. Kalte-galeren ordaina eska daiteke. (KZ 1270.2.art.)

KZ 1270.2.art.: Gertatze bidezko doloa erabiltzen duena behartuta dago kalte-galeren ordaina ematera bakarrik.

#### V.2.1.2: Objektua

Kontratuaren objektu izan daitezke gizakien merkataritzatik kanpo ez dauden gauza guztiak (legeak onartzen ez dituztenak), bat eta etorkizunekoak ere. Era berean, legeen edo ohitura onen kontrakoak ez diren zerbitzu guztiak ere izan daitezke. Azken finean, merkaturako gauza edo zerbitzu guztiak dira: gaiak zeintzuk diren, kontratuaren gaia, zeri buruzkoa den eta zer duen.

KZ 1271.art. Kontratuaren objektu izan daitezke gizakien merkataritzatik kanpo ez dauden gauza guztiak, baita etorkizunekoak ere. Dena den, etorkizuneko jarauntsiaren gainean, bizien artean ondasunak zatitzeko helburua duten kontratuak eta bestelako banaketa-

eragiketak bakarrik egin daitezke 1056. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Era berean, kontratuaren objektu izan daitezke legeen edo ohitura onen aurkakoak ez diren zerbitzu guztiak.

Hauek dira betebeharrak:

Egingarria: fisikoki posibleak diren gaiak izan behar dira, benetakoa edo egingarria izan behar du objektuak. Hori islatzen da KZ 1272.artikuluan: “Ezin dira kontratuaren objektu izan gauza edo zerbitzu ezinezkoak”.

Zilegi: gauza ez da berez zilegi edo ez-zilegi; zilegitasuna izaera merkaturagarriarekin lotu behar da. Aldiz, zerbitzua bai izan daiteke berez zilegi edo ez-zilegi; horregatik eskatzen da gizakien merkataritzatik kanpo ez (merkataritzakoak izan behar dira, halaberrez) dauden gauza guztiak eta, horrez gainera, legeen edo ohitura onen kontra doazen zerbitzu guztiak (drogak, adibidez) izatea.

Zehatza/zehazgarria: Nahiz eta hasieratik gauza zehatza ez den, irizpideak (gerorako) finkatu egiten dira. KZ 1273.artikuluan ikus daiteke hori: “Kontratu orearen objektua gauza zehatza izan behar da horren espezieari dagokionez. Kopuruaren zehaztugabetasuna ez da oztopo izango kontratua izan dadin, kopuru hori zehaztu ahal bada kontratugileen artean beste hitzarmen bat egin gabe.”

#### V.2.1.3: Karia edo kausa

Karia edo kausa kontratuaren zergatia da, helburua, zertarako egiten den. KZ. 1274.art.: Kostu bidezko kontratuetan, Alberdi kontratugile bakoitzarentzat kontratuaren karia izango da beste kontratugileak gauza edo zerbitzu bat eman edo hitzmatea; ordaintzeko kontratuetan, ordaindu beharreko zerbitzua edo onura; eta, ongintza hutsekoetan, ongilearen eskuzabaltasuna.

Hauek dira kariak izan behar dituen betebeharrak:

Izatea. Karirik gabeko kontratuek ez dute eraginik sortzen (KZ 1275.1.art.). Baina, dena den, kontratuaren karia adierazi ez arren, uste da karia badela izan, eta zilegi ere dela zordunak horren kontrakoa frogatzen ez duen bitartean (KZ 1277.art.).

Zilegi. Karia ez da zilegi legearen edo moralaren aurkakoa denean. Kasu horretan ere, uste da karia zilegi dela zordunak horren kontrakoa frogatzen ez duen bitartean.

Egiatzkoa. Kontratuaren kari faltsuak haren deuseztasuna dakar. Asmo berezi, helburu berezi edo egiazkoa izan behar da (ezin da itxurazkoa izan). Noiz izango da karia faltsua? Kontratuak dioenaren eta benetan dagoenaren artean desadostasuna edo ezberdintasuna dagoenean.

Sailkapen txiki bat aurki dezakegu: kausazko kontratuak eta kontratu abstraktuak. Horien arteko bereizketa kontratuaren adierazpenaren arabera egiten da; karia espresuki agertzen baldin bada kontratua “kausazkoa” izango da; aldiz, espresuki agertzen ez bada, “abstraktua”. Lehenengoa, kausazkoa, salerosketa-kontratua dugu: “nik jabegoa galtzen dut diruaren truk eta erosleak aldrebes”. Bestalde, bigarrenean, abstraktuan, demagun txeke bat dugula: ez da ikusten zertarako den, ez etxe bat erosteko, ez kurtso bat ordaintzeko...

#### V.2.2.- Kontratuaren eraketa eta indar loteslea

KZ 1258.art.: Kontratuak burutzen dira adostasun hutsaren bitartez, eta, harrezkero, bete beharrekoak dira, bai beren beregi itundutakoa betetzeari begira, baita, kontratuaren izaeraren arabera, onuste, usadio eta legearekin bat datozen ondorio guztiei begira ere. Kontratuak, beraz, borondatearen adierazpenean – eskaintza eta onarpena – elkarrekikotasuna beharrezkotzat du.

##### V.2.2.1: Eskaintza

Kontratuaren ekimenaren adierazpena da: nork hartzen du ekimena kontratua sortzeko? Pertsona batek, borondatearen adierazpenaren bitartez (norbait adierazi prest dagoela zerbait egiteko), beste pertsona bati kontratu bat burutzea proposatzen dio. Azken finean, pertsona batek (ekintzailea) beste bati kontratu bat (obligazio bat euren artean) eskaintzen edo proposatzen dio.

Hauek dira eskaintzaren betebeharrak:

Agerikoa. Ez da nahitaez idatziz izan behar. Agerikoa izan behar da, argia, nabaria eta zehaztua. Eskaintza ahozkoa izan daiteke, edota egintzen bidezkoa (adibidez, publikorako agerian dauden gauzak salgai daude, erakusleihu batean, apaintzeko soilik egon ezean).

Osoa. Eskaintzak kontratuaren nahitaezko elementu guztiak behar ditu (erreparatzeko: adostasuna, objektua eta karia). Baina, kontu handi: eskaintza ez da kontratatzeko gonbidapenarekin nahasi behar – eskaintzaren gonbidapena: katalogoak – horretan, objektuari buruzko zehaztasunik ez dago.

Zalantzarik gabekoa. Eskaintzak kontratua burutzeko asmoz egindakoa izan behar du;behin-betikoa.

Kontratugileari bideraturikoa. Kontratugilea pertsona zehatza, edozein pertsona edo publiko, oro har, izan daiteke. Adibidez: pertsonalki, harreman zuzena denean (pertsona zehatza) / merkataritza-tokia: "guk denda batean produktuak ditugu eta salgai daude, baina ez dakigu oraindik nor izango den kontratukidea (edozein pertsona edo publiko).

Eskaintzak ez du forma berezirik, kontratuak hala eskatzen ez badu. Beraz, askatasun-printzipioa izaten da eta salbuespen-kasuak legeriak berak ezartzen ditu.

Baina...Noiz arte balio du proposamenak (eskaintzak)? Jasotzaileak espresuki eskaintza arbuia edo aldatzen duenean: ezetz esaten denean, agur!

Eskaintzaileak iritziz aldatzen duenean, kontratua baliogabetzen da. Ezeztapen edo iritziaren aldaketa hori jasotzaileari zuzenduriko borondate-adierazpena da (aldatu egiten du eta adierazi beharko du ezeztapena). Salbuespen kasuak daude,

jasotzaileen bermerako, legeriak ezeztazintasuna ezartzen du (adibidez, aseguru-proposamen batean).

Onarpena egiteko epea edo unea agortzen denean. Eperik ezarrita ez balego, eskaintzari epe bat utzi beharko litzaioke, kontratuaren arabera eta ohitura usadioak eta onustekak errespetatuz. Eskaintzailea hil edo ezgai bihurtzen bada. Halere, ezeztazintza diren kontratuak oinordeak izan ohi dituzte.

#### V.2.2.2: Onarpena

Onarpena proposamenari erantzuna ematea da. Onarpena da kontratua eskaintzaileak adierazitako moduan burutu egin nahi dela jasotzen duen adierazpena; beraz, eskaintzari egindako baieztoko erantzuna, adierazten dugu prest gaudela kontratua burutzeko.

Hauek dira onarpenaren betebeharrak:

Lehenik eta behin, garrantzitsuena, eskaintzarekin bat etorri behar du, gure onarpenak hori egitea izan behar du. Aldaketak egongo balira, ez legoke adostasunik eta, beraz, ezta kontraturik ere.

Eskaintzaileari bideraturikoa: onarpena agerikoa edo estarikoa izan daiteke. Kontratua burutzeko asmoz egindakoa izan behar du, seriotasunez egitekoa. Epe barnean egindakoa, epea egotekotan. Egon ezean, kontratuaren izaera, testuingurua eta abar begiratu beharko genuke.

Onarpenak ez du forma berezi edo zehatzik, legeak edo alderdi baten borondateak horrela eskatzen ez badu; beraz, arau orokor gisa, askatasun-printzipioa izaten da. Kasu batzuetan, forma berezi bat eman ohi da, zalantzarik ez egoteko kontratua idatziz eginez.

Posible da onarpena ezeztatzea, eskaintzaileari ezeztatzea lehenengo heltzen bazaio. Onarpena egin eta eskaintzaileak jaso ondoren, kontratua burutua geratzen da; beraz, kasu horretan ez legoke ezeztatzerik, kontratuaren suntsiarazpena baizik.

#### V.2.2.3: Indar loteslea

Indar loteslea kontratuaren betetzea da, azken pausua. KZ 1091.art.: Kontratuetatik sortzen diren betebeharrak lege-indarra dute alderdi kontratugileen artean, eta betebeharrak kontratu horien arabera bete behar dira.

Hauek dira indar loteslearen ezaugarriak:

Edukia: Kontratuaren edukia itundua izan dena eta haren ondorioak dira. Adibidez, kontratu bat sinatzen dugunean saltzailea bagara, produktua ematen dugu (tresna bat, adibidez), eta horrekin gehigarriak ere: liburuxka, argibideen liburua...azken finean harekin bat datozen gauzak.

Erlatibotasuna: Kontratuaren eraginak edo ondorioak kontratugileen eta ondorengoaren artean baino ez dira sortzen. Harremana nortzuen artean sortzen den: ez dago hirugarren pertsonarik egoterik.

Aldebakartasunik eza: KZ 1257.1.art.: "Kontratuen baliozkotasuna eta betetzea ezin dira kontratugile baten nahietara utzi"; horrek esan nahi du ezin zaiola kontratukide bati egindako kontratua aldatu bere borondaterik gabe.

Aldaezintasuna: Kontratuaren edukia ezin da kontratugile baten borondatearen arabera soilik aldatu - <Pacta sunt servanda> - . Haatik, printzipio honek salbuespenak izan ditzake, horietariko bat <Rebus sic stantibus> (Cláusula que permite la revisión de los contratos cuando, debido a la concurrencia de circunstancias nuevas respecto a las existentes en el momento de celebración del contrato y que son imprevisibles, las prestaciones de alguna de las partes han devenido excesivamente gravosas, rompiendo el equilibrio económico del contrato.) klausula izanik.

### V.2.3.- Kontratua ez betetzea

Zordunak prestazioa behar den bezala betetzen ez duenean, obligazio edo kontratuaren ez-betetzea sortzen da. Ez-betetzea berezkoa (liburu bat eman behar da eta erre da, beraz, etorkizunean ere, ezin izango da eman) edo erabatekoa izan daiteke, bai eta berezkoa ez dena edo erlatiboa (liburu bat eman behar da eta kasu honetan gaur ahaztu zaigu, baina beste egun baten eman dezakegu).

#### V.2.3.1: Zordunaren berandutzea

Egin behar den prestazioaren betetze atzeratu eta errudunari esaten zaio (zordunarena), betetze berantiarra eragozten ez duena, hots, oraindik bete daitekeena. "Guk epe bat dugu eta zorra ez dugu betetzen epe horren barruan; adibidez, atzeratu gara arduragabekeriagatik, baina posible da oraindik epez kanpo zorra betetzea". Horrek aurrekoak salbuespen-kasua du data ezaugarri berezia denean: Kasu honetan ez gaude berandutzean, ez-betetzean baizik; adibidez, pailazo bat festa baterako kontratatua dago (2015-09-25) eta ez da joaten horra; egun horretarako nahi zuten ez beranduagorako, beraz, hor data muina da: Kalte-galeren ordainketa eska zitekeen.

Zeintzuk dira egon behar diren betebeharrak zordunaren berandutzea izan dadin? Obligazio positiboa izan behar da, emateko edo egiteko obligazioetan soilik izan daiteke, baieztoketan, baina ez ezeztoketan.

Obligazio eskagarria: Obligazioa eskagarria da zorra ordaingarria, zehatza edo likidoa denean; ez dago berandutzerik baldintzapeko edo eperako obligazioetan, baldintza edo epea betetzen ez diren bitartean.

Hartzekodunak ordainketa auzitegiz edo auzitegitik kanpo eskatu beharko du, bai demanda bat ezarriz, bai notarioaren bitartez. Horrek guztiak zordunarengan eragin batzuk ditu. Hurrengokoak: Zordunak kalte-galeren ordaina egin beharko dio hartzekodunari; kalte-galeren ordainketatik at prestazioa ere eska daiteke. Gauza zehatza emateko obligazioetan, ezusteko

kausaren ondorioz gauza galtzeko arriskua zordunari eskualdatzen zaio. <Perpetuatio obligationis>: “Es la perpetuación o permanencia de la obligación cuando ésta ha vencido y el deudor incumple.”

Noiz bukatzen ote da berandutze-egoera? Normalean, prestazioaren betetze berantiarra eta kalte-galeren ordainketa egiten denean. Halere, kasu batzuetan berandutzearen konpentsazioa ematen da, non hartzekoduna ere berandutzen den; hor ezin izango du kalte-galeren ordaina eskatu hartzekodunak, berak ere ez baitu obligazioa bete (epean). Luzamendu egoerak daude non zordun berezi batzuei legez epea luzatzen zaien.

### V.2.3.2: Hartzekodunaren berandutzea

Kode Zibilak ez du espresuki berandutze mota hau arautzen, baina ematen denez, guk aztertuko dugu.

Hartzekodunak lankidetzat sustatu behar du zordunak prestazioa bete dezan; hau da, hartzekodunak ahaleginak egin behar ditu zordunak dagokion prestazioa bete dezan.

Hauek dira eman behar diren baldintzak:

Obligazioa ordaingarria izatea. Prestazioa eskagarria denean baino ezin zaio zordunari betetzea eskatu. KZ 1176.1.art.: Ordainketaren eskaintza hartzekodunari egin eta horrek, inolako arrazoirik gabe, onartzen ez badu, zorduna erantzukizunetik aske geratuko da zor duen gauza zainpean utziz.

Hauek dira horrek guztiak dituen eraginak:

Zordunaren berandutzearen konpentsazioa edo hura ekiditea. Azken batean, zordunaren onurarako.

Ezusteko kausaren ondorioz gauza galtzeko arriskua hartzekodunari eskualdatzen zaio.

Zorduna obligaziotik aske geratzen da zor den gauza kontsignatuz edo zainpean utziz (KZ 1176.1.art.)

### V.2.3.3: Zordunari egozgarri ez zaion ez-betetzea

Oso garrantzitsua da berezko edo erabateko ez-betetzean, zordunari egozgarri zaion ala ez bereiztea, eraginak erabat ezberdinak baitira. Ez-betetze <egozgarri>an, ez-betetzeak hartzekodunari sortutako kalte-galeren ordainketa egin beharko lioke zordunak; <egozgarria ez den> ez-betetzean, berriz, zorduna erantzukizunetik aske gertatzen da eta obligaziozko harremana iraungi egiten da.

Kasu honetan, zordunari egozgarri ez zaion ez-betetzeak zordunaren borondatez kanpoko zergatietan du oinarria. –“Zergatik ez du zordunak betetzen bere obligazioa? Berak ez du zerikusirik obligazioa ez betetzearekin, bere esparrutik kanpo zerbait gertatu delako. Egoera horiek <ezusteko kausa> eta <ezinbesteko kausa> (fuerza mayor) dira. <Ezusteko kausa>: aurretik sumatu ezin den edo, sumatu arren, saihestu ezin den gertaera, obligazioaren betetzea eragozten duena, zordunaren errurik gabe.

Hauek dira <ezusteko kausa>ren betebeharrak:

Zordunari egotzi ezin zaion gertaera izatea: ezin da esan gertatu dena zordunaren errua izan dela.

Gertaera edo egitea aurretik sumaezina edo sumatua izanik, saihestezina izatea. Gertaerak zordunari prestazioa egitea eragozteak. Esan bezala, <ezusteko> eta <ezinbesteko> kausak ditugu. Baina zeintzuk diren haien arteko bereizketa? Ikus dezagun:

Saihesgarritasun-irizpidea

~ <Ezusteko kausa> sumaezina da, baina sumatuz gero, saihesgarria.

~ <Ezinbesteko kausa> sumaezina da eta, gainera, saihestezina. Gertaera eragozgarrien jatorria~ <Ezusteke kausan>, gertaera eragozgarria obligazio-harremanaren barnekoa (alde baten errua izan daiteke).

~ <Ezinbesteko kausan>, gertaera eragozgarria obligazio-harremanetik kanpoko da (lurrikara, uholdeak...).

Ezusteke kausaren eragina, orokorki, zordunak ez duela erantzukizunik eta obligazioa iraungi egiten dela da.

#### V.2.3.4: Zordunari egozgarri izan ahal zaion ez-betetzea

Ez-betetzea zordunari egozgarri izan ahal zaio. Horrek, bere borondatearen arabera, obligazioaren betepena erabat eragozten duenean, hau da, bere borondateagatik obligazioa bete ezin daitekeenean.

##### V.2.3.4.1: Errua

KZ 1104.art.: Zordunaren erru edo zabarkeria da betebeharraren izaeraren arabera arreta beharrezkoa izan, eta pertsona, denbora eta lekuaren inguruko inguruabarrei egokitzen zaien arreta hori ez izatea. "Zordunak ez du zerbait egin arduragabekeria izan duelako".

Hauek dira betebeharrak: Elementu subjektiboa edo nahitakoa. Ardurarik eza edo arduragabekeria. ("guk liburua ez dugu bueltatzen, ahaztu dugulako")

Elementu objektiboa. Obligazioaren betetzea erabat ezinezkoa izatea. ("guk liburua ez dugu bueltatzen galdu dugulako") Froga zordunari dagokio.

##### V.2.3.4.2: Dolua

Maltzurkeriazko edo asmo txarreko arau-haustea obligazioaren betetzean.

Betebeharrak:

Elementu subjektiboa. Obligazioa ez betetzeko jakinaren gaineko eta nahitako asmoa. "Ez dut bueltatu nahi ez dudalako izan".

Elementu objektiboa. Obligazioaren betetzea erabat ezinezkoa denean. "Ez dugu bueltatu nahi eta gainera ezinezkoa da, ez dugulako".

Eraginak: KZ. 1102.art.: Doloak eratorritako erantzukizuna galdatzeko modukoa da betebeharrak guztietan. Deuseza da erantzukizun hori gauzatzeko akzioari uko egitea.

Froga dolua dagoela diotenari dagokio.

#### V.2.4.- Kontratuaren eragin eza

##### V.2.4.1: Hasierako eraginkortasunik eza: deuseztasuna

Kontratua hasieratik ez duenean eraginik sortzen; negozioa, bere burutze-unetik, eraginik gabeko da; beraz, eraginkortasunik eza jatorrizkoa denez, negozioa ezin da baieztatu. Baina zergatik ez dago kontraturik? Batez ere, obligazio edo debekuzko araua ez delako bete, moral edo ordena publikoaren printzipioak hautsen duelako, edo baita kontratuaren funtsezko elementuak (adostasuna/objektua/karia) edo forma ez betetzeagatik. Adibidez: Sozietate anonimo bat sortzeko, 60.000 euroko ordainketa egin behar da eta guk 40.000 euro jarri ditugu hasieratik; beraz, hasierako eraginkortasunik eza egongo litzateke, legea ez baitugu errespetatu.



Nola egiten da deuseztasun-akzioa? Hau da, nola deuseztatzen da kontratu bat hasieratik ez badu eraginkortasunik sortzen? Epailleak deuseztasuna ezagutu badu, ofizioz adierazi/aplikatu beharko du.

Legitimazio aktiboa: Nork ipin dezake demanda? Kasuan interes duen edonork.

Legitimazio pasiboa: Noren kontra? Demanda deuseztasun-adierazpenaren eraginak jaso ditzaketen guztien kontra ezarri beharko da, hau da, kontratua deuseztatzearen eraginak jaso ditzakeen edonori. Edozein unetan egin daiteke; ez dago epealdirik.

Eraginak zeintzuk dira? Nola eragiten du kontratugileen artean deuseztasunak edo eraginkortasunik ezak?

Kontratuaren objektua izan diren gauza guztiak kontratua burutu zen unean zeuden egoerara bueltatu beharko dira KZ 1303.art.: “Behin betebeharraren deuseztasuna adierazi eta gero, kontratugileek elkarri itzuli behar dizkiote kontratuaren objektu diren gauzak, euren fruituekin batera, eta prezioa, horren korrituekin batera, hurrengo artikuluek xedatzen dutenari kalterik egin gabe”.

~ KZ 1307.art.: “Deuseztasun-adierazpena dela-eta gauza itzultzeko betebeharra duenak ezin badu hori egin gauza galdu delako, jasotako fruituak eta galera-unean gauzak zuen balioa itzuli behar ditu, data horrez geroztik sorturiko korrituekin batera.”

#### V.2.4.2: Eratorriko eraginkortasunik eza

Bi kasu nabarmen dago honen barruan: deuseztagarritasuna eta hutsaltzea. V.2.4.2.1: Deuseztagarritasuna (deuseztasun erlatiboa)

Kontratuak funtsezko elementu guztiak eta eraginak ditu bere burutzearen unetik, baina akatsen bat du, legearen arabera baliogabetuko lukeena. Garrantzitsua da aipatzea kontratuak eraginak sortzen dituela hasierako unetik; hala ere, interes babestuaren titularrak aurkaratze-akzioa erabiliko balu legezko epearen barnean, kontratua deusezta daiteke, hots, interesdunak zerbait erabiliko balu (aurkaratze-akzioa) kontratuak eraginkortasunik ez duela demostratzeko, legeak ezartzen duen epealdiaren barnean, kontratua deuseztagarria liteke.

Hauek dira deuseztagarritasunaren kausak/akatsak:

Kontratugile baten aritzeko gaitasun osorik eza, adostasunik eza izan gabe, hau da, adostasunaz barne. Adibidez, adingabea edo ezgaitua izatea.

Beste ezkontidearen adostasunik eza, adostasun hori beharrezkoa denean. Adibidez, ezkontide batek gauza bat saldu zuen bestearen baimenik gabe; ekonomia-erregimena partekatzen dute-eta.

Adostasunean akatsak egotea: okerra, indarkeria, larderia, dolua...

Deuseztagarritasun-akzioak: Epailleak adierazi beharko du, jakitun izan behar da, aurrean esan bezala.

Legitimazio aktiboa: Kontratuaren arabera, nagusiki edo sorospenez obligarazirik daudenak.

Legitimazio pasiboa: Kontratuan partaide izan diren edo beren eskubide eta obligazioak jasotzen dituzten pertsona guztien kontrakoa izan daiteke (demanda).

Iraungitze-epea: 4 urte, eta epe honek ez du etenik izango (aurrekoaren kontrakoa).

Eraginak: aurrekoen berdina.

Baliozkotze edo berrespena: Kontratu deuseztagarria baliozkotu daiteke, bai interesatuen ageriko edo estarizko berrespenaren bidez, bai iraungitzearen bidez, deuseztagarritasun-akzioa jarduteko epea igarotzen utziz.

#### V.2.4.2.2: Hutsaltzea (rescisión)

Kasu honetan, kontratua perfektua da, akats gabekoa, baina kontratugileetariko bat edo hirugarren bat egiten ari zaio kalte edo hondamenen bat eta, beraz, legeak eraginak egiteari utzi (deuseztatzea) egiteko akzioa onartzen du.

Hauek dira hutsaltzearen kariak: (KZ 1291.artikulu osoa) "Epailearen baimenik gabe tutoreek egindako kontratuak, kaltea kontratuko gaien balioaren laurdena baino handiagoa denean" (KZ 1291.1.art.). Demagun: adingabekoa dugu eta ez du gurasorik ; epaileak tutorea izendatzen du eta tutore horrek ezin du kontratu bat egin adingabearentzat epailearen baimenik gabe.

"Absenteen ordezkartzan egindako kontratuak, kaltea kontratuko gaien balioaren laurdena baino handiagoa denean" (KZ 1291.2.art.) -> Harreman bat egiten dugu kanpoan dagoen pertsona batentzat. Hartzekodunen maulaz egindako kontratuak (KZ 1291.3.art.) Gauza auzigaien gaineko kontratuak, demandatuak halakoak egiten dituenean alderdi auzilariak edo agintaritzak judizial eskudunak hori jakin eta onetsi gabe (KZ 1291.4.art.). Guk gai bat dugu eztabaidatua epaimahaian; ondasuna duen kideak dio ondasuna salduko duela: epaileak erabaki arte ezin du saldu, oraindik ez duelako esan nori dagokion ondasun hori.

Hutsaltze-akzioak: Hutsaltzea epaileak adierazi beharko du.

Legitimazio aktiboa: legeak babesten dituen interes zuzena duten pertsonak.

Hutsaltze-akzioaren epea 4 urtekoa da, eta epe horrek ez du etenik izango, iraungitze-epea baita.

Eraginak: aurreko biak bezalakoak.

### V.3.- OBLIGAZIOEN TEORIA OROKORRAREN MERKATARITZA BEREZITASUNAK

#### V.3.1.- Betebehar soilen eskagarritasuna

Hauek automatikoki bete behar diren obligazioak dira, inguruabarririk gabe; hala nola produktu bat saltzea.

Hurrengoak dira betebehar soilek duten ezaugarriak:

(1) Merkatal Kodeak adeitasun-epeak emateko debekua ezartzen du, epealdiak, orokorrean, ezartzea. "Obligazio bat bete behar dugunean, guk (zordunak) ezin dugu eperik eskatu; eskatzekotan, epaileak ezin du jarri. MK 61.art.: "No se reconocerán términos de gracia, cortesía u otros, que bajo cualquier denominación, difieran el cumplimiento de las obligaciones mercantiles, sino los que las partes hubieren prefijado en el contrato, o se apoyaren en una disposición terminante de Derecho."

(2) Merkataritza-harremanetan ordainketa-epea zehaztea: noiz eska daitekeen ezarri behar da, hau da, hartzekodunak noiztik eskatu ahal dion zordunari beraren obligazioa betetzea, legeak ezer ezartzen ez duenean eta kontratugileek kontratuan ezer zehaztu ez dutenean. Bi alde agertzen dira hemen, Kode Zibilak eta Merkatal Kodeak arautua:

a. Kode Zibilak 1113.artikuluan dio: "Betebehar oro behingoan eskatzeko modukoa da, baldin eta hori betetzea ez bada bihar-etziko nahiz zalantzazko gertaera baten mendekoa, edo, gertaera iraganekoa izanik, interesdunek horren berririk ez badute." Automatikoki betetzea eska dezake.

b. Merkatal Kodeak 62.artikuluan dio: "Las obligaciones que no tuvieren término prefijado por las partes o por las disposiciones de este Código, serán exigibles a los diez días después de contraídas, si sólo produjeran acción ordinaria, y al día inmediato, si llevaran aparejada

ejecución."Hau da, +10 (ohiko akzioa) eta +1 (automatikoki, betearazpen-akzioa badute, epaileak zuzenean betetzea adierazten badu).

(3) 2004/3 Legea (Merkataritza Eragiketetan Luzakeria edo Berankeriaren kontrakoa) Aplikazio-esparrua: Non aplikatu daitekeen.

~ Irizpide positiboa: enpresen artean edo enpresaren eta Administrazioaren artean, bai eta kontratista nagusiaren eta haren hornitzaile edo azpikontratisten artean.

~ Irizpide negatiboa: kontsumitzaileekin egindako harremanak.

Ordainketa-epea: Egutegiko 30 egun, merkatu-gaiaren jasotze edo zerbitzuaren prestatze-datatik hasita. Epe hau alderdien itunaren bitartez luza daiteke, baina

ezingo da inoiz egutegiko 60 egun baino gehiagora luzatu. (4) 1996/7 Legea (Xehekako Merkataritzaren Antolamendua): Merkatariek hornitzaileei 30 egun baino lehenago, merkatu-gaia ematen den datatik hasita.

### V.3.2.- Merkataritzako berandutzaren araubide berezia

Zorduna automatikoki berandutze-egoeran jartzen da, legez edo alderdien artean ezarritako epearen barruan obligazioa ez duenean betetzen. Merkataritza-zuzenbidean epea funtsezko elementu bihurtzen da. Ikusiko bi legeren arabera zer-nolako eragin sortzen diren berandutze-egoeran. 2004/3 Legearen arabera berandutze korritua...: Kontratuan itundua badago, ez dugu arazorik Kontratuan itundurik ez balego: korritu-tasa + 8 puntu ehunekoetan. 1996/ Legearen arabera, berandutze korritua...:

Itundurik balego, ordainketarako ezarrita dagoen dataren hurrengo egunetik ordaindu beharko litzateke. Itundurik ez balego, ordaintzen den dataren hurrengo egunetik, merkatu-gaien emate-datatik hasita.

Kopurua. Kontratuan itundurik ez balego, korritu-tasa + 8 puntu ehunekoetan. Kontratuan itundurik balego, korritua ezin izango litzateke legezko interesa + haren %50 baino gutxiagokoa izan.

### V.3.3.- Merkataritza betebeharren preskribatzea

Hemen epealdia dugu, baina eten daiteke. Merkataritza-obligazioen preskripzioari izaera zibilaren kontzeptua, oinarri eta araubidea aplikatu ahal zaizkio; beraz, merkataritza-obligazioak denboraren igarotze hutsaz, hartzekodunaren geldotasunaz, preskribatzen dira.

Etenaldia aztertuko dugu. Etenaldiaren esparruan, bi araudi mota dugu:

Zibila (KZ 1973.art.) Akzioen preskripzioa geldiarazi egiten da, akzio horiek auzitegietan egikaritzearen ondorioz, hartzekodunak epailetatik kanpoko erreklamazioa egitearen ondorioz eta zordunak zorra aitortzeko burututako edozein egintzaren ondorioz. / La prescripción de las acciones se interrumpe por su ejercicio ante los Tribunales, por reclamación extrajudicial del acreedor y por cualquier acto de reconocimiento de la deuda por el deudor.

Merkataritzakoa (MK 944.art.): La prescripción se interrumpirá por la demanda u otro cualquier género de interpelación judicial hecha al deudor; por el reconocimiento de las obligaciones, o por la renovación del documento en que se funde el derecho del acreedor. Se considerará la prescripción como no interrumpida por la interpelación judicial, si el actor desistiese de ella, o caducara la instancia, o fuese desestimada su demanda. Empezará a contarse nuevamente el término de la prescripción en caso de reconocimiento de las obligaciones, desde el día en que se haga; en el de su renovación, desde la fecha del nuevo título; y si en él se hubiere prorrogado el plazo del cumplimiento de la obligación, desde que éste hubiere vencido.

## V.4.- KONTRATUEN TEORIA OROKORRAREN MERKATARITZA BEREZITASUNAK

### V.4.1.- Merkataritzako ordezkariak

Norbait beste baten izenean ari denean (ordezkaria eta ordezkaria, sustituto y sustituido). Ordezkariaren bitartez, pertsona batek – ordezkariak – egintza edo negozio juridikoetan parte hartzen du bere borondatea adieraziz, eta horrek beste pertsona baten – ordezkaria – esparru pertsonalean edo ondarezko esparruan eraginak sortzen ditu.

Bi ordezkariak mota dugu: zuzena eta zeharkakoa.

Ordezkariak zuzena: Ordezkariak egintza edo negozioa ordezkariaren izenean burutzen du (el sustituto hace cosas en nombre del sustituido). Bitartekari hutsa da, kontratua azkenean enpresaburua (ordezkaria) eta kontratukidearen artean egiten baita. Beraz, eraginak ordezkariaren esparru pertsonalean edo ondarezko esparruan sortuko dira berehala.

Zeharkako ordezkariak: Ordezkariak egintza edo negozioa bere izen propioan, ez ordezkariaren izenean aurreko kasuan bezala, egiten du, nahiz eta ordezkariaren interesean eta kontura jardun. Ez da bitartekari hutsa, kasu honetan ordezkariak kontratukidearekin sinatzen dituelako kontratuak/negozioak. Beraz, eraginak ordezkariaren, ez ordezkariaren, esparru pertsonalean edo ondarezko esparruan sortuko dira.

Berezitasunak:

Burujabetasuna du ordezkariak. Adibidez, nagusi ordezkariaren heriotzak ez du faktoreari emandako ahalordea iraungitzen (MK 290.art.: “Los actos y contratos ejecutados por el factor serán válidos, respecto de su poderdante, siempre que sean anteriores al momento en que llegue a noticia de aquél por un medio legítimo la revocación de los poderes o la enajenación del establecimiento. También serán válidos con relación a terceros, mientras no se haya cumplido, en cuanto a la revocación de los poderes, lo prescrito en el número 6.º del artículo 21.”). Ordezkaria bera eta bere ahalmenak Merkatal Erregistroan inskribatu beharko dira (MK 22.1.art.: “En la hoja abierta a cada empresario individual se inscribirán los datos identificativos del mismo, así como su nombre comercial y, en su caso, el rótulo de su establecimiento, la sede de éste y de las sucursales, si las tuviere, el objeto de su empresa, la fecha de comienzo de las operaciones, los poderes generales que otorgue, el consentimiento, la oposición y la revocación a que se refieren los artículos 6 a 10”).

Legeak zenbait merkataritza-ordezkariaren ahalmenen esparrua eta edukia erabakitzen du. Adibidez, gerentea izateko ahalmena izan behar du ordezkariak. (MK 285.art.: “Contratando los factores en los términos que previene el artículo precedente, recaerán sobre los comitentes todas las obligaciones que contrajeren. Cualquiera reclamación para compelerlos a su cumplimiento se hará efectiva en los bienes del principal, establecimiento o empresa, y no en los del factor, a menos que estén confundidos con aquéllos.”).

### V.4.2.- Merkataritzako kontratuen burutzea

Merkataritzako kontratuak, kontratu zibilak bezala, alderdien adostasunaren bitartez burutzen dira, hau da, eskaintzaren eta onarpenaren arteko baterakidetasunez. Bere forma merkataritza-zuzenbidean forma-askatasuna da (MK 51.art.\*). Hala ere, kodeak edo lege bereziek forma berezia eska ditzakete zenbait kontratutarako (MK 52.art.\*). Forma bereziari buruz ari garenean, oro har, idatziz eginda eta Eskritura Publikoan inskribatu behar dela esaten dugu.

\*MK 51.art.: “Serán válidos y producirán obligación y acción en juicio los contratos mercantiles, cualesquiera que sean la forma y el idioma en que se celebren, la clase a que correspondan y la cantidad que tengan por objeto, con tal que conste su existencia por alguno de los medios que el Derecho civil tenga establecidos.”

\*MK 52.art.: “Se exceptuarán de lo dispuesto en el artículo que precede:

1.a Los contratos que, con arreglo a este Código o a las Leyes especiales, deban reducirse a escritura o requieran formas o solemnidades necesarias para su eficacia.

2.a Los contratos celebrados en país extranjero en que la Ley exija escrituras, formas o solemnidades determinadas para su validez, aunque no las exija la Ley española. En uno y otro casos, los contratos que no llenen las circunstancias respectivamente requeridas no producirán obligación ni acción en juicio.”

Kontratu hauek burutzeko hainbat kasu daude, banaka aztertuko ditugunak.

(1) Absenteen arteko kontratazioa. Kideak batera ez daudenean, hots, eskaintzailea eta onartzailea geografikoki batera ez daudenean. Gaur egun araubidea bateraturik dago (KZ 1262.art. eta MK 54.art.).

{?}NOIZ DAGO BURUTUA KONTRATUA BURUTZEKO ERA HAU?

1. Eskaintzaileak onarpena ezagutzen duenetik, hau da, kontratua jasotzen duena baietz esaten duenetik.

2. Onartzaileak onarpena igorritz, erantzuna bidaltzen duenean baietzkoarekin. Adibidez, onarpena+telefonoz deitu.

3. Gailu/baliabide automatiko/elektronikoen bidez egindako kontratuetan, adostasuna onarpenaren adierazpen-data edo –unetik dago. Demagun nik e-mail bat bidaltzen dudala 2015-03-21ean; data horretatik, adostasuna igorri nuenetik, dago kontratua burutua.

Orokorrean, gaur egun arautegia bateraturik dagoenez, kontratua burutua geratu ohi da onarpenaren berria eskaintzaileak ezagutzen duenean. {?} NON DAGO KONTRATUA BURUTUA ALDEAK EZ BADAUDE ELKARREKIN? Normalean, kontratua eskaintza egindako tokian burutu izan dela uste da, eskaintzailea dagoen tokian/tik.

(2) Telefonoz egindako kontratuak. Kontratukideak batera baleude bezala hartzen da. Uneari dagokionez, bertan batera dauden kontratugileek egindako modukoak hartzen dira, hau da, kontratua burutua geratuko da aldeek telefonoz hitz egiten dutenean onartzailea ados dagoela adierazten duenean. Bestalde, tokiari dagokionez, telefonozko eskaintza onartzen duen kontratugilea dagoen tokia izango da, onartzailea dagoen tokia(n).

(3) Kontratazioa bide elektronikoz. Bi kontratazio mota bereizten ditugu:

a. Enpresari edo profesionalen artean egindako kontratuak: alderdien arteko itunik ezean, kontratua zerbitzuak ematen dituen kontratugilearen tokian burutzen dela uste da.

b. Kontratugilea kontsumitzailea baldin bada, kontratua kontsumitzaileak ohiko egoitza duen tokian burutzen dela uste da.

V.4.3.- Merkataritzako kontratuen froga

NOLA FROGATZEN DUGU MERKATARITZAKO KONTRATUA EGON DELA? Hainbat modu ditugu:

-LEKUKOAK: Lekukoak soilik ez dira onartuko 9€ baino gehiagoko kopurua duten kontratuetan; aitzitik, kontratuak 9 euro baino gutxiagoko kopurua badu, bai onartuko dela soilik lekukoa froga bakarra izatea. (9<ez soilik lekukoa / 9> bai soilik lekukoa).

-Kontratua idatziz egiten denean, euskarri elektronikoa onartu egingo da. Egoera horretan, eskuzko sinadura, sinadura elektronikoa aurreratuarekin partekatu egiten da eta epaiketa agiri-froga gisa onargarria izango da.

-Merkatarien liburuak eta gainerako kontabilitate-agiriak froga gisa erabil daitezke, eta epaileak liburuak edo haien euskarri informatikoa bere aurrean aurkeztea eskatu ahal izango du.

-Merkataritza-faktura: Zerga-zuzenbidean ondo arautua dago. (Merkatu-gaien zerrenda, kopurua, izaera eta prezioa).

Baina, zer da faktura? Erosleak jasotzen duen saltzaileak sinaturiko agiria. Horren ondorioz, saltzailea beharturik geratzen da hor jartzen duena egitera/betetzera, beraz, azken batean, guk saltzailearen kontra erabil dezakegu kasuren batean.

Kasuak:

Zer gertatzen da erosleak erreparorik gabe sinatzen badu faktura? Eroslea ere, ondorioz, geratzen da fakturaren edukari lotuta eta froga gisa erabili ahalko da bere kontra. Saltzaileak erosleari faktura emango ez balio, erosleak hura eskatzeko eskubide oso izango luke. Enpresarien eta hornitzaileen arteko harremanak:

~ Hornitzaileak ordainketa-data adierazi beharko du fakturan.

~ Erosleak faktura zerbitzua edo merkatu-gaia jasotzen duenetik, 30 egun baino lehen ordaindu behar du, kontrakorik adierazi ezean. (<30 egun).

~ "Estarizko onarpena": faktura erosleari bidali eta 25 egunetan ezer esaten ez badu, onartutzat hartuko da. Konforme egon ezean, 10 egun gehiago ezartzen dira (adibidez, 35) fakturaren konponketa egiteko.

#### V.4.4.- Isiltasuna borondatearen estarizko adierazpen bezala

Isiltasuna, zuzenbidearen esparruan, jarrera erabat pasiboa izaten denean ematen da. Isiltasunak ez du esan nahi zerbait egitea eta ezer ez esatea (jarrera aktiboa), aitzitik, jarrera guztiz pasiboa izatea da, ez ezer egin ezta ezer esan: isilbidezko borondatearen adierazpenetik bereizten da.

Isiltasunak ez du balio zuzenbidean, baina, hala ere, salbuespen kasuak daude:

1. Merkataria ezkontidearen isiltasuna, merkataritza-jarduera ezagutuz.

2. Komisioiduna: agindua jasota (agindua jasotzen duenean), ez du onartzen hori ez ezta komisio-emalleari bere ezetza jakinarazi ere; hortaz, kalte-galerak bete beharko ditu (MK 248.art.).

3. Kontra dagoen akzioduna edo akziodun absentearen kasua: sozietate anonimoa sozietate pertsonalista (kolektiboa) eraldatzeko erabakian, isilik geratzen da (bozketan) edo bilerara ez doa, beraz, sozietatetik bananduta geratzen da, hots, sozietatetik alde egiteko eskubidea ematen zaio, suposatzen delako ados ez dagoela.

4. Hartzekodunak zordunarengandik zor kopuruaren transferentzia jasotzen baldin badu, arbuia gabe (sin rechazarlo, despreciarlo), isilik geratuz, ordaintze-eragina izango du.

#### V.4.5.- Merkataritzako kontratuen interpretazioa

MK 50.art.: Zuzenbide erkideko arau orokorrak aplikatuko zaizkie merkataritzako kontratuen betekizunei, aldaketei, salbuespenei, interpretazioari, azkentzei eta alderdien gaitasunari, baldin eta gai horiek kode honek zein lege bereziek arautzen ez badituzte. / Los contratos mercantiles, en todo lo relativo a sus requisitos, modificaciones, excepciones, interpretación y extinción y a la capacidad de los contratantes, se regirán, en todo lo que no se halle

expresamente establecido en este Código o en las Leyes especiales, por las reglas generales del Derecho común.

Hauek dira merkatal kontratuak interpretatzeko hainbat irizpide:

Merkataritzako kontratuak interpretatzeko arau orokorra onustea (buena fe) da. Interpretazio tekniko eta objektiboa: Trafiko profesionalean (profesionalki egin denez) hitzek duten esangura -> Jakin behar da adituak direla kontratuak burutzen dituztenak (merkatukoak) eta termino zehatzak erabiltzen direla; begiratu behar da kontratuan dagoen hitzaren zentzu teknikoa. Interpretazio integratzailea: Kontratuaren atal edo lerro batean zalantzak sortzen direnean, kontratuaren eduki osoarekin konparatu eta interpretatu behar da eta kontratuarekin bat datorrena aukeratuko da, edo ezarriko da.

Fede-emaila (notario) publikoaren liburuak: Notario batek parte hartu izan balu kontratuaren burutzean, horren liburuak adierazten dutena nagusituko litzateke.

<Favor debitoris>: (noren alde/norbaiten alde) Gerta liteke zordunari bi epe ematea gauza bat betetzeko: 2 edo/eta 6 egun. Zordunaren alde (favor debitoris) 6 eguneko epea hartuko litzateke.

Atxikimenduzko kontratuak: Kontratukideetako BATEK aldeztatik kontratuaren edukia finkatzen duenean eta beste kontratukideak sinatzen duenean, edo ez, baina ez dagoenean ezer aldatzerik. Adibidez, "guk kontratu bat egiten badugu Iberdrolarekin, ezin gara eztabaidatzen hasi klausulak; sinatzen dugu eta listo."

~ Klausulak argitasunez ezarriak egon beharko dira.

~ Klausula orokorren eta klausula berezien arteko desadostasunik balego, klausula berezien nagusitasuna ezarriko litzateke.

~ Klausula ilunak: Zalantzak sortzen dituzten klausulak dira; beraz, enpresariarentzat kaltegarria aukeratuko litzateke, baina zergatik?

Kontratua argitasunez (lehen puntua) idatzi behar izan zuelako, eta ez zuelako egin.

~ Kontratugilea kontsumitzailea bada, legeri berezia aplikatuko zaio

(Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorra, eta beste batzuk): Zalantzak egotekotan, kontsumitzailearen aldeko legeria aplikatuko da.

## V.5.- MERKATARITZAKO KONTRATUEN EZAUGARRIAK ETA SAILKAPENA

Ez dago irizpide perfektu edo idealik merkataritza-kontratuak sailkatzeko. Sailkapena funtzio, kari edo helburu ekonomikoaren arabera egiten da.

Salerosketa-kontratua eta kideak: hornidura eta trukaketa.

Lankidetzak- eta banaketa-kontratuak: mandatuak, gordailua, bitartekaritza, agentzia, frankizia...

Obra-kontratuak enpresarekin: argitaratze, publizitate, garraio-kontratuak. Banku, finantzaketa eta berme-kontratuak: fidantza, mailegua, kontu korrontea, "leasing", "factoring", banku-kontratuak...

Burtsa eta balore merkaturako kontratuak.

Arrisku-estaldurarako kontratuak: aseguru-kontratuak.

\*Kontratu nahastekatu eta atipikoak: errealitate ekonomikotik sortutakoak eta lege- arautegirik gabekoak. Kontratu hauek dituzten arazoak kontratu tipikoen arauen aplikazio analogiko edo integratzailearen bitartez konpontzen dira.

## II. IKASGAIA.- ENPRESA PRODUKZIO BATASUN EKONOMIKO GISA

### II.1.- SARRERA

#### II.1.- Enpresaren kontzeptua

Enpresa kontzeptua definitzerako orduan, kontuan hartu behar dugu norbaiten ekimenaren

ondorioa dela, elementu ezberdinez osatuta dagoela eta helburu batzuk lortzera bideratuta dagoela, harreman batzuk.

ZERA DA ENPRESA: Ikuspegi ekonomikotik aztertuta, enpresariak merkaturako jarduera ekonomikoa burutzeko erabiltzen duen kapital- eta lan-erakundea, eta bere elementu osagarrien baturak baino balio handiagoa izan behar du.

\*Definizio horretatik sortzen dira zenbait arazo, geroago aztertuko direnak. Enpresa baten irabazteko asmoa egon ohi da beti. Baina, zenbait kasu dago, non ez dagoen asmo hori. Kooperatiben kasua da: horren helburu nagusia, legez, ez da dirua lortzea, elkarlana eta lankidetzeta sustatzea baizik. Aurreko hori, kooperatiba, zuzenbideak ematen duen aukera bat da, baina, azken finean, definizio hori ez dator bat errealitatearekin, dirua lortzea baitute helburuen artean eta, gainera, kooperatiba izanez, zerga mailan gutxiago ordaindu behar dute, abantaila bat izanik.

Dakigunez, enpresan ez du zuzenbide bakar batek parte hartzen, aitzitik, enpresa elementu ezberdinez osatuta dagoenez, hainbatek parte hartzen dute: zuzenbide zibila (pertsonek arteko oinarritzko harremanak eta gatazkak konpontzeko), Administrazio- zuzenbidea (estatuaren jarduerak, administrazio-funtzioa, eta partikular eta aparatuko publikoaren arteko harremanak arautzeko), Zerga-zuzenbidea (enpresak behar bezala finantza dadin, eta beharrezko zergak ordain dezan), merkatal zuzenbidea (merkataritza- harremanak arautzeko), zigor-zuzenbidea (enpresaren delituen bat egotekotan, hori aplikatuko da), lan-zuzenbidea (enpresaren langileen arteko lan baldintzak, egoerak, harremanak... arautzeko), eta abar.

## II.2.- Enpresaren izaera juridikoa

Esan dugunez, enpresaren barruan hainbat elementu hartzen dute parte. Beraz, ezin du elementu bakar batek enpresa osotasunean gidatu edo zuzendu. Enpresa ezin da edozein modutan garatu, erakunde bat izan behar du eta antolatua egon behar da. Testuinguru horretan, hiru arazo ditugu.

1. ENPRESA: BARNETIK EDO KANPOTIK. Enpresa, zer ote da? Kanpotik ikusten dena (batasuna) edo barneko elementuak? Enpresa aztertzen denean kanpotik, batasun gisa agertzen da, baina barnetik elementu ezberdinez osatuta dago. Batasuna edo elementuen bildura?

2. ENPRESAREN BALIOA: Enpresaren elementu guztien batura baino handiagoa izan behar da, aurrez aipatu bezala (enpresari balioa > elementu guztien batura). Nola ote hori?

3. ENPRESAREN NEGOZIOAK ETA KONTRATUAK: Zenbat kontratu egiten dira? Enpresa osotasunean hartu eta kontratu bat, edo enpresaren elementu bakoitzeko (elementuz osatuta baitago) kontratu bat egin? Negozio juridikoen objektua bihurtzen da enpresa merkaturan. Orduan, zenbat eta nolako kontratuak behar dira? Arazo horiek konpontzeko, teoria ezberdinak daude. Ikus ditzagun.

BATASUN TEORIA: Enpresa batasun gisa hartzen du, bere barneko elementuak kontuan hartu barik; hau da, kanpotik bakarrik aztertzen du. Enpresa=Antolakuntza. Elementuak bigarren mailan geratzen dira eta ez dira hain garrantzitsuak.



TEORIA ATOMISTA: "Enpresa ez da inolako batasunik, bere elementuen osagarriak baizik", elementuen balioak banan-banan aztertzen ditu. Elementuen izaera da garrantzitsuena, erakundea emaitza baino ez da.

BITARTEKO TEORIA: Enpresa enpresariaren asmamen eta ekimenaren ondorioa da.

Teoria horiek guztiak ikusita, zera ondoriozta dezakegu: Azkeneko teoria hori nahiko eskasa da, ezen zuzenean bazter dezakegun. Teoria atomistak ez du balio, erakundea ez duelako kontuan hartzen, argi dago ez dela baliagarria. Enpresa elementuz osatuta badago (teoria atomistaren oinarria, elementuak), erakunde bat sortu behar da, elementu bakoitzak, bakarka, ez duelako inolako eraginik sortzen, elementuek elkarlotuta egon behar dira-eta, bestela, ez legoke enpresarik ezta negoziarik egongo. Batasun teoriak, bestalde, ez du balio ere, soilik kontuan hartzen baitu erakundea batasun gisa, eta ez ditu barneko elementuak aztertzen. Horregatik, beste teoria bat asmatu behar dugu:

BATASUN FUNTZIONAL TEORIA: Teoria honen ezaugarria da bi egoerak hartzen dituela kontuan: teoria atomistarena eta batasun teoriarena, enpresa osotasunean hartzen duelako baina ez duelako alde batera uzten elementuen banakako azterketa.

Elementu guztiak daude, guztiek elkarrekin parte hartzen, eta ondorioa erakundea da: elementuak (kopurua) = erakundea.

Teoria horrek arazo guztiak konpontzen ditu:

1. ENPRESA, BARNETIK EDO KANPOTIK? Batasun gisa zein elementuen bildura da: elementu guztiak, GUZTIAK, baturik, erakundea dugu emaitzatat.

2. ENPRESAREN BALIOA: Enpresan, elementuez gain, bi egoera daude: egitezko egoerak, enpresaren benetako balioa sorrarazten dutenak (bezeria, irabazteko itxarobidea...) eta elementuen egoerak.

2.1. Bezeria. Enpresak bezeroak izaten ditu, eta bezeroen artean komunikazioa dagoenez, enpresaren ospea zabal dezakete, gainerako pertsoneri ezagutaraziz.

2.2. Irabazteko itxarobidea. Gizartearen gustuak, prezioa, lehiakideak...

3. ENPRESAREN NEGOZIOAK ETA KONTRATUAK: Zenbat kontratu egin behar ditugu? Nahikoa da kontratu bakarrarekin, enpresa erakundea delako; ez dugu enpresaren elementu bakoitzagatik kontratu bat egin behar. Arazoak sortzen dira, nolahi ere, enpresa eskualdatzen denean, geroago aztertuko ditugunak II.4.1.atalean.

II.3.- Eginkizunak, helburuak eta xedeak

Enpresariak jarduera burutuko du eta horren helburua irabaziak izatea da. Ez da bestelako helbururik onartzen (kontuan hartu behar da kooperatiben kasua, legez helburua lankidetzan duten arren, errealitatean diru irabaztea dutela). Enpresa, beraz, gainerako erakundeetatik bereizten da, gainontzekoek ez baitute irabazteko asmorik. Nagusiki gizarte enpresak aurkitzen dira.

II.2.- ENPRESAREN ELEMENTU OSAGARRIAK

Enpresak beti beharrezko elementu batzuk eduki beharko ditu, eta elementu bakoitza zuzenbideko atal ezberdinek arautzen dute.

Ondasun higiezinak. Toki fisiko bat behar dutenak jarduera burutzeko. Lurrari atxikirik dauden ondasunak dira, hala nola lursailak, orubeak, etxeak, lantegiak, eta, oro har, mugitu ezin daitezkeenak. Jabetza Erregistroan zerrendaturik egon behar dira. Elementu hauek eskualdatzeko, eskritura publikoa behar da.

Ondasun higigarriak. Dagokion jarduera burutzeko tresneria sartzen da hemen, ondasun higiezinak ez diren guztiak, hala nola IPE, garraio-elementua...Enpresa bakoitzak bere jardueraren arabera ezberdinak izango ditu.

Kideak. Lankidetzaren behar da enpresa batean, enpresariak soilik ezin izango duelako bere kabuz jardun. Enpresari orok langileak eta baita laguntzaileak behar ditu.

Marka. Enpresak bere produktu edo zerbitzuentzako marka bat behar du, hau da, izen bat, identifikatzen dituen. Markak, oro har, hiru funtzio betetzen du: produktuari izena ematea, produktua finkatzea eta besteengandik bereiztea.

Merkatal Zuzenbideak arautzen du: Marka Legea.

Jakituri teknikoa. Bi modutakoa izan daiteke: publikoa edo pribatua.

→ Publikoa: "Patentea" publikoa da, edonork ezagut dezake. Enpresaren eskubide bat da, horrek soilik erabil dezakeena.

→ Pribatua: Industria-sekretua edo "know-how" deritzona. Ezin da ezagutu, enpresaren funtzionamendurako gakoa da. Adibidez, Coca-Colaren formula.

### II.3.- ENPRESA-JARDUERA. EZAUGARRIZKO OHARRAK

Enpresari buruz aipamenak egiten ditugunean, dakigunez, ez dago irizpide finkorik zer den definitzeko, aplikatzen diogun irizpidearen arabera aldatu egiten baita. Enpresaren egoera eta enpresariak jarduera burutzeko modua kontuan hartu behar dira, enpresariak ekimen eta antolakuntza eskubideak ditu-eta. Egingo dugun sailkapena, ekonomiaren ikuspuntutik izango da.

1. Irizpidea: tamaina edo neurriaren arabera egiten da sailkapena: hiru enpresa mota sortzen dira. Jakin behar dugu honen arabera sailkapena egiteko, arautegiaren arabera irizpidea aldatzen dela, baina, orokorrean, irizpidea kopurua izango da:

Enpresa txikiak: 150 langile baino gutxiagokoak (150<).

Enpresa ertainak: 150 eta 250 langileen artekoak (150<x<250).

Enpresa handiak: 250 langile baino gehiagokoak (250<).

OHARRA: Kontabilitate esparruan mikroenpresak existitzen dira (10 langile baino gutxiagokoak) araudi ezberdina izaten dutenak.

2. Irizpidea: Jardueraren izaeraren arabera: ekonomia mailan dauden sektoreak dira:

Industria enpresak: Lehengaien mailakoa.

Merkatal enpresak: Eraldakuntza mailakoak. Nekazaritza ez da merkatal harreman gisa onartzen. Zerbitzu enpresak

### II.4.- ENPRESA ONDARE UNITATE GISA. ENPRESA, NEGOZIO JURIDIKOEN OBJEKTU GISA

Enpresa negozioaren objektua bihurtzen denean aztertuko dugu orain. Enpresa erakunde gisa hartzean, merkaturako edo negozioaren objektua bihurtzen da. Enpresa negozio gisa kontsideratzeko, jarduera burutzen egon behar du mementoan, funtzionamenduan.

#### II.4.1.- Problematika, arazo Orokorrak

3 arazo edo problema ditugu honekin lotuta.

##### II.4.1.1. Zorrak jasotzea eta kreditu lagapena

Enpresa bat ustiatzen dugunean, zorrak eta kredituak sortzen ditugu, jarduera burutzen

dugun heinean, enpresa hirugarrenen aurrean hartzekodun edo/eta zordun bihurtuz. Enpresa eskualdatzen denean, berarekin batera hau erabaki behar da: ea, automatikoki, jasotzaileari kredituak eskuz aldatzen zaizkion edo hark, enpresari eskualdatzaileak izandako zorrak, jasotzen dituen. Gai honi buruz ez dago arau berezirik, beraz, arau orokorren bitartez konpondu beharko da.

**KREDITUAK:** Ez dira enpresarekin batera eskualdatuko. Hartzekodun-eskualdatzaileak eta enpresaren eskuratzzaileak espresuki itundu beharko dute kredituen lagapena. Ondo finkatuta geratu beharko da nor den hartzekoduna, zordunak jakin beharko du, nahiz eta onarpena ez duen eman behar. Finkapena ondo ez egotekotan, zordunak ordaindu behar ez zionari ordaintzen badio, bere obligazioa ongi egingo zuen eta hartzekodun errealkak zordunak ordaindu dion hartzekodunari eskatu beharko dio berea zen kreditu hori (bera zelako hartzekoduna).

**ZORRAK:** Ez dira enpresarekin batera automatikoki eskualdatuko. Zordun eskualdatzaileak eta enpresaren eskuratzzaileak espresuki itundu beharko dute zorren jasotzea. Kasu honetan ere hartzekodunari adierazi beharko zaio nor den bere zordun berria eta, horrek ere, onarpena eman beharko du. KZ 1205.art.: “ Berritzea da jatorrizko zordunaren ordeztasun beste zordun bat jartzea; berritzea jatorrizko zordunak jakin gabe egin daiteke, baina ezin daiteke egin hartzekodunaren adostasunik gabe”.

#### II.4.1.2. Kontratu-lagapena

Enpresa eskualdatzen duen enpresaria kontratu anitzen kontratugile izaten da, enpresaren ustiapenetik sortzen baitira. Era berean, enpresa eskualdatzen denean, berarekin batera, erabaki behar da ea, automatikoki, jasotzaileari kontratuak eskualdatzen zaizkion ala ez: arautegiak ez du egoera hori arautzen. Arau orokor bezala: Kontratuak ez dira enpresarekin batera automatikoki eskuz aldatzen, beste alderdi kontratugilearen adostasuna behar da.

Hala ere, aurrekoarekin batera, salbuespen batzuk daude:

<Mortis causa>: Enpresaria hiltzen denean, enpresa zuzenean beste bati eskualdatzen zaio. 12/1992 Legea, maiatzaren 27koa, 27.art.: agentzia-kontratuetan (hirugarrenekin baterako kontratuetan), enpresaren heriotzaren kasuan, kontratuak jarraitzen du. Lan-kontratuak zuzenean eskualdatuko dira (LE 44.art.).

#### II.4.1.3. Konkurrentzia debekua

<Inter vivos> burutzen den edozein enpresa-eskualdatzetan, eskualdatzailea funtsezko elementu guztiak eskualdatzera beharturik dago, bai materiadunak, bai materiagabeak, bai eta egitezko bi egoerak ere – bezeria eta irabazteko itzarobidea ere –.

\*Ezezko obligazioa (ez egiteko obligazioa): enpresari eskualdatzaileak (enpresa hasieran duenak) enpresari eskuratzzaileari (hartuko duenari) lehia egiteko debekua izaten du, azken batean, jarduera berean aritzen bada, bezeria eta irabazteko itzarobidea enpresari eskualdatzaileari kenduko lizkiokelako. Hau guztia alderdiek espresuki itundua izan behar dute.

#### II.4.2.- Enpresaren salerosketa

Gai baten jabegoaren eskualdaketa prezio baten orde, non eroslea jabe berria bilakatzen den, hasierako jabeari prezio bat ordainduz.

Betekizun batzuk sortzen dira:

Nahikoa da kontratu bakarrarekin eta forma askatasunez egin daiteke.

Enpresak beti funtzionamenduan egon behar du. Funtzionamenduan ez balego, ez legoke kontraturik enpresaren salerosketarako.

Horren esparruan, obligazio bereziak sortzen dira, eroslearen eta saltzailearen artean.

**EROSLEAREN OBLIGAZIOAK:** Prezioa ordaindu behar du ezarrita dagoen kopuruan, baldintzetan eta ezarrirako epealdian.

**SALTZAILAREN OBLIGAZIOAK:** Atal ezberdinetan aztertuko dugu: Enpresaren eskualdaketa obligazioa: Bi egoera dago honen barruan.

~ Inbentarioa dagoenean: Inbentario-gaien zerrenda egin behar da, hau da, enpresan dauden eta eskualdatzen diren elementu guztien zerrenda. Gatazkak saihesteko egin ohi da, soilik inbentarioan dagoena eman behar dugulako. Zerrenda mugatua da.

~ Inbentarioa ez dagoenean: Enpresa funtzionamenduan mantentzeko elementu guztiak eman beharko dira. Kasuz kasu aztertu beharko da.

**Obligazio gehigarriak:** Enpresa eskualdatzeko, modurik egokienean egon behar du, tresneria ematekotan aholkuak eman eta jarraibideak; azken batean, irakatsi beharko diogu eskuratzailari zelan erabili, zelan atera etekin gehiena, hornitzaile onenen zerrenda, eta abar. **Konkurrentzia-debekua:** Hala ere, kontratuan ezar daiteke hori kentzea.

#### II.4.3.- Enpresaren errentamendua

Enpresa errentatzea alokatzean jartzea da. Kide batek (jabea) beste kontratukide bati gaiaren, enpresaren, erabilera eta ustiapena uzten dio prezio bat ordainduz eta epe mugatu batean -> Kontratukide jabeak jabea izaten jarraitzen du.

Enpresaren errentamendua ez dago zuzenbide positiboan arauturik. Aipamen bakarra, hiri-finken errentamendua da, bertan industria- edo merkataritza-jarduera burutu ahal izateko. Beraz, arautegia errentamendu-kontratu bera izango da eta, modu subsidiarioan, Kode Zibilak errentamendu-kontraturako duen arautegia.

Enpresaren errentamendu-kontratuan, bi kontratukide daude: Errentatzailea (arrendador) gaiaren jabea dena eta erabilera eta ustiapena enpresa errentan hartzen duenari uzten diona; eta errentaria (arrendatario) gaiaren errentamendua hartzen duena, erabiltzeko eta ustiatzeko. Orain, bakoitzaren obligazioak aztertuko ditugu.

#### ERRENTATZAILEAREN OBLIGAZIOAK

Obligazio orokorrak ditugu, alde batetik.

KZ 1554.art.: Errentatzaileak betebeharra du: 1) Errentariari kontratuaren objektu den gauza emateko. 2) Gauza horretan, errentamendua bitartean, beharrezkoak diren konponketa guztiak egiteko, konponketok beharrezkoak badira gauzak xedetzat duen erabilerarako balio dezan. 3) Errentariak errentamenduaren gozatze baketsua izan dezan zaintzeko, kontratuak dirauen bitartean.

Horrez guztiaz gain, beste obligazio berezi batzuk ditu ere errentatzaileak: Errentatzaileak errentariari eman beharko dio negozioa funtzionamenduan mantentzeko beharrezko lehengai, tresna eta merkatu-gaien gaineko xedatzeko ahalmena, hau da, beharrezko gauza guztiak eman eta horiek erabiltzeko ahalmena.

Errentatzaileak errentariari lankidetzan eman behar dio, laguntza eman behar dio errentariak behar duen guztian, enpresa ustiatzeko behar den guztia burutuz – adibidez, aholkularitza, bezeroen zerrenda, hornitzaile onenen zerrenda... –. Errentatzaileak konkurrentzia-debekua izango du.

#### ERRENTARIAREN OBLIGAZIOAK

Enpresa ustiatzeko obligazioa du. Errentariak enpresa jaso duen moduan bueltatu beharko dio errentatzaileari. Obligazio honen arau-haustek errentariaren kaleratzea eskatzea ahalbidetzen du. KZ 1561\*

\*KZ 1561.art.: Errentariak finka itzuli behar du, errentamendua amaitzean, berak jaso zuen egoera berean, salbu eta denboraren poderioz edo arrazoi saihestezinaren ondorioz gauza hori suntsitu edo narriatu denean.

Negozioaren ustiapena merkatari on baten arduraz burutzeko obligazioa du: objektua ezin da aldatu edo ordeztu. Horrek esan nahi du ustiapena errentatzaileak egiten zuen modura egin behar dela, horrek jarritako arauak errespetatuz.

Enpresa bihurtzeko obligazioa. Errentariak enpresa hasieran zegoen moduan bihurtu beharko dio errentatzaileari. Enpresa hasieran zuen balio gehiagorekin bihurtzen bada, ordaina bete beharko da errentariaren alde, gozamenaren arauen arabera. Konkurrentzia-debekua.

NOIZ IRAUNGITZEN DA KONTRATUA? Enpresaren errentamendu-kontratua errentamendu-kontratuen iraungitze-karriaren bidez iraungitzen da: itundutako epea igarotzearen bitartez eta kontratugileetarikoa batek bere obligazioak ez betetzeak duen suntsiarazpenaren bitartez. Kontratua iraungi ondoren, errentariak enpresa jaso zuen moduan itzuli behar dio errentatzaileari.

#### II.4.4.- Enpresaren gozamena

Gozamena zuzenbidearen eskubidea da. Gozamena beste baten gauzaren gainean ezartzen den eskubidea da, gauzaz gozatzeko ahalmena izaten denean, horren jabegoa ez denean izaten. KZ 467.art.: Gozamenak inoren ondasunak lupertzeko eskubidea ematen du, ondasun horien forma eta izaera artatzeko betebeharrarekin batera, salbu eta gozamenaren eraketa-tituluak edo legeak bestelakoa ahalbidetzen duenean.

Enpresaren gozamena bakarra izango da bere eratze-unean, eta enpresa osatzen duten beste elementutan zatituko da:

Berezko gozamena – ondasun higiezinak –.

Suntsikorrek diren gaiei buruzko gozamena: KZ 482.art.: “Gozamenak bere barruan hartzen baditu erabileraren erabileraz kontsumitzen diren gauzak, gozamendunak gauza horiek erabiltzeko eskubidea du, eta, gozamenam amaitzean, euren balioa ordaindu behar du gauzok zenbatetsita eman bazaizkio. Gauzak zenbatetsi ez direnean, gozamendunak eskubidea du kopuru eta kalitate bereko beste horrenbeste itzultzeko, edo, bestela, gozamena bukatzean gauzok duten precio arrunta ordaintzeko.” Xedapen-gozamena, besterendu behar diren gauzei buruzkoa.

Enpresa-gozamen bi mota daude: Legezkoa (bizirik geratzen de ezkontidearena) eta itunezkoa (kontratu eta testamenduaren bidez ezar daitekeena). Gozamendunak izango du enpresari-izaera jabe soilaren ginetik, eratze-tituluan espresuki ezer ezarri ez denean. Era berean, gozamendunak enpresako elementuen gainean xedapen- eta besterentze-ahalmenak izango ditu. Bestalde, jabe soilak konkurrentzia debekua izango du.

#### II.4.5.- Enpresa ondasun higigarri moduan hipotekatzea

Hipotekatzea soilik ondasun higigarrietan ematen da (hala nola makineria). Hipoteka berme-eskubide bat da. Adibide ximple bat jar dezagun: “Guk mailegu bat eskatzen dugu eta mailegu-emaileak guk ez itzultzeko arriskua du; beraz, hipoteka (berme) bezala, gure ondasun higigarriak hartzen ditu”.

Enpresaren gainean ezin da ezarri bere elementu osagarrien gainean ezartzen diren ez bezalako eskubide errealik: ez dago zamarik enpresa osoaren gainean, baizik eta haren zenbait elementu osagarrien gainean, bereziki zenbait ondasun higigarrien artean.

Hipotekatzea negozio-lekuan ezarritako merkataritza-tokiaren gainean ezarri beharko da, Ondasun Higigarrien Erregistroan inskribatu beharko den eskritura publikoaren bitartez. Beraz, aurreko adibidez berriro hartuz, enpresaren elementuak hipotekatzen ditugu (ondasun higigarriak) eta bermea dira. Guk hipoteka ezartzen dugu eta ez badugu behar dena itzultzen, gure enpresako ondasun higigarria(k) hartuko dute/dituzte eta ondasunok zorra baino balio txikiagoa badute, gainerakoa eskatu beharko digute.

#### II.4.6.- Enpresaren <mortis causa> eskualdaketa

Banakako enpresaria, ez sozietate batekoa, banakakoa, hiltzen denean, enpresa bi egoeraren aurrean aurki daiteke:

- a) Enpresaren administrazioa eta funtzionamendua geldirik geratzea, hildako titularraren oinordekoa(ek) enpresaren ardura hartu arte.
- b) Enpresa desegitea, likidatzea eta zatikatzea, haien elementu osagarriak oinordekoei esleituz. Baina honek arriskuak eta kalteak dakartza:
  - a. Langileentzako interesak ezartzen dira, legeak ezartzen ditu langileen babeserako. (Kalean geratzen dira).
  - b. Produktu edo zerbitzuen interesa ezartzen da ere.
  - c. Konkurrentzia desagertzen da.

Baina, azken batean, enpresa desegiten bada, enpresaren elementuekin (guztiekin) zer geratuko da? Enpresaren balioa, berez, eta haren langile eta hirugarrenen – hartzekodunak eta bezeria – babesak soluzio bat eskatzen du. Beraz, enpresaren iraunkortasuna zenbait bideren bitartez lortu behar da:

Enpresariak, hil aurretik, faktore edo kudeatzailea izendatzea, zeinen ahalmenak indarrean mantentzen baitira, nahiz eta enpresaria hil.

Oinordekoak edo testamendu-betearazleak enpresaren kudeaketa eta administrazioaz arduratzea titular berria izendatu arte.

Enpresaren zatiketa eta likidazioa, enpresaria hiltzen denean, modu honen bitartez lor daiteke: Enpresa kide bakar bati esleitu, legatu-hartzaile edo oinordeko bakar gisa (KZ 1056.art.)

### III. IKASGAIA.- MERKATARITZA ENPRESAK ANTOLATZEKO ERAK

#### III.1.- ENPRESARIA ETA MERKATARITZA ENPRESARIA

Enpresaria definitzeko, ekonomiak ematen duen definizioa hartuko dugu:

“Merkaturako ondasun edo zerbitzuen produkzio edo bitartekotasun jarduera, berak eta bere izenean edo bere izenean baina beste baten bitartez (ordezkaria), antolakuntzaz eta profesionalki aritzen den pertsona fisikoa edo juridikoa”.

Merkatal Kodearen arabera, hau izango da enpresaria: Kode honen ondoretarako (kodean aurreikusten den araudiaren jasotzaileak ezagutzeko), merkataria dira:

1. Merkataritzan ohikotasunez dihardutenak, horretarako lege-gaitasuna izanda.

2. Kode honen arabera eratu diren merkataritza- edo industria-konpainiak. Enpresaria, esan bezala, erakundea (juridikoa) edo pertsona (fisikoa) izan daiteke, baina garrantzitsua da hurrengo puntu hauek aipatzea, enpresariaren ezaugarriak izanik (berak egin edo izan beharrekoak):

Antolakuntza: Erakundea egon behar da, orain ikusiko dugun moduan, eta horren antolakuntzaz arduratuko da.

Profesionalki: Enpresariak (eta langileek) profesionaltasunez jardun behar du(te), enpresa etengabe funtzionamenduan mantenduz.

Jarduera bere izenean: Jarduera berak egitea beharrezkoa da, bere izenean egin beharrekoa; beste pertsona bat izenda dezake bere izenean jardun dezan.

Pertsona fisiko edo juridikoa: Gizakia (fisikoa) nahiz elkarte edo erakunde bat (juridikoa) izan daiteke.

Orain enpresaria bi ikuspuntutatik aztertuko dugu: Merkataritza-enpresaria eta merkataritzakoak ez direnak.

### III.1.1.- Merkataritza enpresaria

Jardueragatik bereizten da besteengandik. Jarduerak industria, merkatu edo zerbitzu mailakoa izan behar du. Merkataritza Kodeak, halaber, enpresari izateko bi ezaugarri bete behar direla adierazten du, aurrez aipatu bezala:

1. Gaitasun legala izatea.

2. Merkataritzaz sarri aritzea.

Kasu batzuetan, bi ezaugarriak izan arren ez da enpresaria: Gerentea, adibidez, nahiz eta ezaugarri horiek dituen, ez ditu enpresariak dituen eskumen guztiak.

Osterantzean, batzuetan ezaugarri horietariko bat ez da betetzen, eta, halere, enpresaria izaten jarraitzen du(te): hala nola, adin gabekoak (adinez helduak baina ezinduak).

Enpresari mota hauek Sozietate Anonimo (SA) eta Erantzukizun Mugatuko Sozietateetan (EMS) egon ohi dira.

### III.1.2.- Merkataritzakoa ez den enpresaria

Hauek, normalean, enpresari zibil bezala ezagutu ohi dira. Hemen bi egoera nagusi sortu ohi dira. Lehenengo egoera: benetako antolakuntzarik ez dago, ez dago erakunderik; hortik sortzen da enpresari txikiak edo enpresarik gabeko enpresariak. Kasu honetan ezin dugu merkatal enpresaritzat kalifikatu, benetako erakunderik ez duelako, enpresarik ez dagoelako.

ADIBIDEA: Legeak maila honetan artisauen egoera ez du onartzen merkatal enpresari moduan: enpresarik ez dute, ez dago antolakuntzarik, gehienez familiako kideen laguntza edo beste hirugarren baten laguntza erabiltzen dute. Maila honetan artisauekin batera, nekazaritza jarduerak ez dira merkatal enpresari gisa onartzen: erabat kritikagarria da, gaur egun nekazaritzak erakundeak dituelako eta antolakuntzaz lan egiten duelako; salbuespen gisa nekazaritza-elkarteak, elkarteak beti merkatal enpresariak dira-eta.

Bigarren egoera: Nolako jarduera burutzen den, jardueraren izaera ikusi behar dugu: ez da onartzen merkatal enpresaria izatea lanbide liberalak eta profesio liberalak (arkitektoak) dituztenak, beraien jarduera profesio liberal bat delako, industria eta merkataritzakoa ez delako. Kritikagarria da, lanbide liberalak, gehienetan, 3.sektoreak kokaturik baitaude.

### III.1.3.- Merkataritza enpresari motak. Merkataritza enpresa eratzeko zenbait era

Enpresa bat eratzeko mementoan, nolako enpresariak izango garen aukeratu beharko dugu, eta, horretarako, bi aukera dugu.

#### A. MERKATARIA EDO BANAKAKO MERKATARITZA ENPRESARIA

Kasu honetan, enpresaria pertsona fisikoa izango da (ohizko edonor enpresari bihurtzen denean). Jarduerak zuzenean bere izenean edo beste batek bere izenean burutuko ditu. Hauek dira ezaugarri orokorrak:

Enpresariari dagozkio harreman guztiak, hau da, harreman guztien erantzukizuna izango du. Demagun enpresariak lau kidekin egiten dituela harremanak, beraz, harreman horietariko bakoitza berari dagozkie eta baita horietatik sortzen diren obligazio eta eskubideak ere.

Erantzukizun mugagabea du enpresariak, harreman guztien erantzukizuna era mugaezin batean, bai une batean dituen ondasunekin bai etorkizunean izango dituenekin. Demagun enpresariak orainaldian zor bat duela eta ezin duela guztiz ordaindu; ondorioz, etorkizunean ordaintzeke geratzen zaiona ordaindu beharko du.

Enpresaren ondasunak ez dira bere ondasun pribatuetatik bereizten, enpresariaren ondarea ondasun horiekin guztiekin osatzen da. Bere dirua, etxea, enpresaren elementuak, eta abar enpresaren ondarea osatzen dute.

Erantzukizuna betetzeko, ondare guztia, bereizgarririk gabe, erabiliko da. Zor bat ordaindu beharrekotan eta ordaindu ezin bada, enpresariaren ondarea, enpresaren ondarea edo ondare pribatua, erabiliko da zor hori betetzeko.

#### B. SOZIETATE MERKATAL ENPRESARIAK

Kasu honetan, enpresaria pertsona juridikoa izango da. Kontratu baten emaitza dugu sozietatea, eta, horregatik, kontratukideak egongo dira. Hemen, ez du bakarrik pertsona batek bere ondasunak jarriko, baizik eta, kontratu bat dagoenez, pertsona bi gutxienez beren ondasunak jarriko dituzte, horietatik irabaziak lortzeko asmoz enpresa jarduerarekin. Hauek dira ezaugarriak, besteak beste:

Kontratukideak, era berean, beste izaera izango dute: bazkide izaera. Hauek guztiek obligazio bat dute: ekarpenak egitea (dirua, ondasunak, diruz baliagarriak diren eskubideak...). Ekarpen horietatik, kapitala sortzen da.

Sozietate Anonimoa dugunean, kapitalaren zati bakoitza akzio deritzenetan banatuta dago. Akzio horiek bazkideen artean banatzen dira: bazkideak elkarteari ekarpenak ematen dizkio eta elkarrekin bazkideari akzioak ematen dizkio (ordez eta ordainez).

Enpresa-jardueraren bidez, kapitaletik burutzen dena, irabaziak edo galerak sor daitezke. Dakigunez, enpresaria sozietate bera da, ekarpena egiten duten pertsonak, alegia; beraz, euren erantzukizuna, egin duten ekarpenaren arabera izango da -> Ezin zaie beste edozein ondasun eskatu kobratzeko, enpresaren dagoen dirua edota akzioak erabiliko dira, ez bakoitzaren ondarea, aurrekoaren aurkakoa.

\*Abantaila nagusi bat dago Erantzukizun Mugatuko Sozietatean: Kontratukideak badaki zerbait galtzekotan soilik kontratuan ezarritakoa izango dela.

-----

Aurreko guztia aipatuta, horretaz aparte, enpresari izateko gaitasun batzuk behar dira. Jakin behar dugu nor den edo nor izan daitekeen enpresaria. Merkatal Kodeak adierazten du jardueraz maiz aritzen dena eta gaitasun legalak dituen; baina, errealitatean, ikus daitezke hori horrela ez dela:

Kasu askotan, enpresari askok, nahiz eta betekizun hori burutu, ez dira enpresariak: gerenteak, adibidez. Betekizun hori bete barik enpresariak izan daitezke.



Hori ikusita, jakin dezakegu legeak adierazten dituen betekizunak ez direla zehatzak, hutsune bat dagoela. Beraz, zein da enpresariari falta zaion ezaugarria? Bere izenean jarduera burutzea, ezaugarri garrantzitsuena. Beraz, hori aipaturik, bi gaitasun nagusi aipa ditzakegu: Merkataria izatea: gaitasun orokorra, Kode Zibilean ematen dena: jaiotze eta 24 orduko jardueraren merkataritza izateko.

Merkatari gisa merkataritza aritzea: Horretarako, beharrezkoak dira adinez nagusi eta ondasunen xedapen librea izatea.

### III.2.- PERTSONA EZKONDUA MERKATARITZAZ ARITZEA

#### III.2.1.- Eraentza (araubide) juridikoa

Banakako enpresaria izatea aukeratzean, enpresariari harreman guztiak dagozkie. Bere ondasun guztiak erantzun beharko du zorren aurrean, hau da, erantzukizun mugagabea dauka. Baina egoera hori zailagoa bihurtzen da banakako enpresaria ezkontuta dagoenean. Dakigunez, edozein ezkontza ekonomia-erregimen bat du, legeak horrela ezartzen duelako. Ekonomia-erregimen horiek bi modutakoak izan daitezke:

Banakako erregimena edo ondasunen banaketa. Ezkontideen artean ez da inolako nahasketarik egongo, bakoitzak bere ondasunak izango ditu. Hau notarioaren bidez egin behar da.

Irabazkin erregimena. Ondasunak bienak dira erdibana (%50 eta %50), ez dago bereizketarik aurreko kasuan bezala. Baina pribatutasun maila bat dago kasu honetan: ondasun pribatuak. Hauek dira, besteak beste:

→ Herentzia bidez jasotzen direnak.

→ Ezkontu aurretik kide bakoitzak zituenak.

→ Jarduera profesionala burutzeko beharrezko tresneria.

Ezkontu ondoren, orduan, erregimen bat aukeratu beharra dago eta aukeratu ezean, legediak zuzenean ematen du. Bi aukera daude:

a) Aukeratu zein izango den ezkontideen ezkontza-erregimena.

b) Ez aukeratu. Kasu honetan, legeak ematen du: Ondasunen irabazkin erregimena.

Salbuespen kasuak daude, ordea, adibidez Katalunian: legeak banakako erregimena ematen du ezer ez aukeratzean.

#### EZKONTZA KONTZEPTUA LEGEZ

Alde batetik, elizakoa dago eta, bestetik, ezkontza zibilak. Guk alde zibila aztertuko dugu, zuzenbidearen eragina bertan dagoelako. Ezkontza-mailan kontzeptu hauek bereiztea oso garrantzitsua da:

Dibortzioa: Ezkontza lotura bukatutzat ematen da, ezabatzen da kontratua eta handik ondorioak sortzen dira ezkontideengan. Bakoitza, nahi izatekotan, ezkon daiteke berriro ere.

Banaketa: Ezkontideek ezkontuta jarraitzen dute baina ez dira batera bizitzen. Kasu honetan, obligazioetariko bat ez da betetzen ari.

Nulutasuna/Deuseztasuna: Soilik erabili ahal izango da ezkontza elizatik egin izan bada, elizak ez baitu onartzen dibortzio ez banaketarik.

Hiru kontzeptu horiek ezberdinak dira. Hori guztia kontuan hartuta, aipatuko dugu ezkontza-kontzeptua zentzu juridikoan, kideen sexua aparte utzita.

Ezkontideek dituzten berdintasun eta askatasuna eskubidez eta obligazioz, legearen arabera. Aitzinean, emazteak menpekotasuna zuen senarraren aurrean, baina egun, biak legaren aurrean berdinak dira. Ezkontideek ekonomia-erregimen bat aukeratu beharko dute. Hori egin ezean, legeak ezarriko die. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, hirugarren erregimen bat

dago: Foru Erregimena. Bizkaian eta Araban aplikatzen da. Kopuruak ezberdinak dira kasu honetan, bost zatitan egiten da herentzia. Bost zati horietatik lau beti izango dira ondorengoentzat, eta geratzen dena askatasunezko parte izango da, ahaideen artean nori dagokion erabaki beharko dute. Kode Zibilaren arabera, herentzia hiru Zatitan banatzen da:

Lehenengo herena zuzenean ondorengo- entzat izango da, bakoitzarentzat kopuru berdina, legeak hori adierazten baitu. Aldaezina da.

Bigarren herena ondorengoentzat izango da, baina egileak nahi duen moduan hobetu ahal izango du. Kasu honetan ez daude beharturik kopuru berbera izatera (lehenengoan ez bezala). Gerta liteke soilik bati hobetzea edo guztiei...

Hirugarren herena nahi denari eman ahal izango zaio, askatasunez.

### EZKONTZA ERREGIMENAREN ALDAKETA/GALTZEA

Ekonomia-erregimena: Nahi den bakoitzean alda daiteke, aldagarria da. Baina aldaketek etorkizunera soilik eraginak izango dituzte. Ezkontza erregimen hau aldatzeko notarioaren aurrean eskritura publikoaren bidez egin behar da. Foru Erregimena eta gainerako erregimenak: auzotasunarekin lotura zuzena dute. Horrek esan nahi duena da auzotasuna aldatzen denean, ekonomia-erregimena aldatuko dela zuzenean; auzotasunarena arabera aldatzen da, nahiz eta ezkontideek ez jakin.

#### III.2.2.- Adostasuna

##### EZKONTIDEA ENPRESARIA DEN KASUA

1. Printzipioa: libreak eta askeak dira obligazioen aurrean eta eskubideen aurrean.
2. Printzipioa: ezkontideak edozein jarduera burutzeko askatasun osoa du.
3. Printzipioa: aurrean aipatu bezala, ezkontide bakar batek ezin dio besteari inolako eragozpenik ezarri.
4. Printzipioa: ezkontideak ez du beste ezkontidearen baimenik behar jarduera burutzeko, baina, aldiz, baimenak edo adostasuna erantzukizuna finkatzen du, hau da, behin ados jarrita bi ezkontideak zeintzuk diren euren obligazioak eta eskubideak adieraziz, erantzukizunak finkatuta geratuko dira.
5. Printzipioa: Ezkontideek askatasun osoa edukiko dute enpresari izatetik sortzen diren ondorioen eraginak ezartzeko edo arautzeko. Baina askatasun horrek mugak ditu: ezkontza ekonomia erregimena, legeak zenbaitetan murrizpenak jartzen ditu- eta.

##### BANAKAKO ENPRESARIAREN EGOERA ETA ONDORIOAK

Bi ondorio ager daitezke: irabaziak edo galerak (ekonomia jarduera betetzetik). Ezkontide bat enpresaria da eta irabaziak edo galerak ditu, baina, norentzat izango dira?

Ondasunen banaketa erregimenean, enpresariarentzat soilik izango dira. Irabazkin erregimenean, ezkontide batek jarduera burutzen du eta bere ondasun pribatuak, dakigunez, izan ditzake, bai eta ezkontideonak bionak direnak ere. Galerak izatekotan, hartzekodunak izango ditugu; hortaz, noren ondasunen kontra jo dezakete? Enpresariaren ondasunen kontra egingo dute, baina hartzekodunak, kreditu moduan, enpresariaren ondasun pribatuak har ditzake. Beste gainerako ondasunen kontra, bionak direnak, ezin izango dute egin. Adostasunik ez egotekotan ezkontidearen eta enpresariaren artean, hori gertatu litzateke, ezin izango luketela partekatzen diren ondasunen kontra egin.

Baina...adostasunaren bitartez, aipatu dugunez, erantzukizuna zabaltzen da, eta gauzak aldatuko lirateke. Enpresaria ez den ezkontideak bi motatako baimenak eman ditzake:

a) Estalitzko baimena (oculto(?)): Bi egoera daude hemen:

i. Ezkontideak ezkondu aurretik jarduera bat burutzen zuen eta ezkondu ondoren jarduerarekin jarraitzen du, beste ezkontideak kontrakotasunik jarri gabe.

ii. Ezkontidea, ezkondu ondoren, jarduera bat burutzen hasten da, kontrakotasunik jarri gabe.

Horrek ondorio batzuk ditu. Uste da ezkontideak kontrakotasunik ez badu egiten, baimena duela bienak diren ondasunak erantzukizun gisa erabiltzeko. Hartzekodunak hierarkia-ordena bat jarraitu beharko du, ezkerreko irudian agertzen dena. Dena den, nahiz eta hori arau orokor moduan den, ezkontideek, euren adostasunez, beste orden bat ezarri ahal izango lukete.

b) Adostasun edo baimen espresua. Beti idatziz egin behar dena da, Merkatal Erregistroan inskribatu beharrekoa. Horretarako, bi modu daude:

i. Zuzenean idatziz eginez.

ii. Eskritura Publikoaren bidez.

Goikoak bezala, horrek ere ondorioak ditu. Kasu honetan ere, erantzukizuna zabaltzen da, ezkontidearen ondasun pribatuetara heltzen delako, baina, hau, aurrekoa ez bezala, idatziz egin behar da, agerian egon behar du, idatziz jasota (tiene que constar). Baina gerta liteke baimenak eman duen ezkontidea iritziz aldatzea, beraz, zeintzuk lirateke ondorioak? Kentzea beti idatziz egin behar da eta Merkatal Erregistroan inskribatuta dagoenez baimen hori, berriro ere hartara jo beharko dugu kentzera, hartzekodunek jakin dezaten zein ondasun har ditzaketen. Gerta liteke, kasu batzuetan, beste modu batzuetan baimena kentzea.

### III.3.- MERKATARITZA ZEIN INDUSTRIA JARDUERAK LANBIDEZ GAUZATZEKO DEBEKU ETA BATERAEZINTASUNAK

III.3.1.- Debekua Gizakiak eskubide osoa du enpresari gisa aritzeko, baina legeak eskubide hori mugatzen dio, jarduerak berak ekar lezakeen ondorio ezatseginak saihesteko. Legeak debeku moduko bat ezartzen du konkurrentzia desleiala gerta daitekeelako, hau da, konkurrentzia- debekua ezartzen du, jarduera burutzetik kalteak sor litezkeelako. Debekurik ez balego, interes-gatazka sortuko litzateke: bakoitzak bezero kopuru handiena eduki nahiko luke bere esparruan (jarduera berdinean). Enpresari izateko eskubidea kentzen dio legeak kasu horretan. Legeak berak adierazten du zeintzuk diren debekuak. Merkatal Kodeak arautzen du honen esparrua. Debekua bi esparrutan ezarrita dago:

Legearen bitartez: Gerenteak ezin izango du jarduera bere kabuz burutu (adibide hutsa).

Itunaren bitartez: Konkurrentzia debekua.

#### III.3.2.- Bateriaezintasuna

Kasu honetan kidek duen nortasuna edo funtzioa ez dator bat merkatal jarduerarekin.

Nortasunarengatik: Kideak ezingo du jarduera burutu bere nortasun edo izaerarengatik. Kontuan izan behar dugu zein den kidearen egoera, legeak ezartzen ditu zeintzuk diren kasuak.

Funtzioarekin: Kontuan hartzen da pertsonaren izaera, kargua (eta nortasuna). Elizgizonak, goi-mailako arduradunak, fiskalak, eta abar ezin dute merkatal harremanik izan, ez soilik karguan daudenean, kargua utzi eta epealdi batean ere ezin izango dute jarduera burutu. Kasuz kasu epea ezberdina da.

Horri jarraiki:

1. Ezingo da esparru berean harremanik izan.

2. Legedi bakoitzak adieraziko duen epealdia kontuan izan behar da.

### II.3.3.- Ezgaikuntza

Ezgaikuntza kide batek duen egoera berezia da, beti epaile batek adierazi behar duena, hau da, ezgaikuntza duela esateko, beharrezkoa da epaile baten adierazpena. Modu horretan, kideari gaitasuna kentzen dio. Ezgaikuntzaren bidez egiten dena da gizakiak enpresari eta merkataritzan jarduteko duen gaitasuna kentzea, legeak adierazten duenaren arabera (zeintzuk diren kasuak adierazten du). Ezgaikuntza kasuak, gehienbat, konkurtso-egoeran dauden enpresa eta enpresarientzat eman ohi dira. Baina, ezgai izatetik gai izatera pasa daiteke? Bai -> Berrabildu kontzeptua.

**BERRABILDUA:** Ezgai izatetik gai izatera pasatzen denean. Egoera hau, ezgaikuntza bezala, epaile batek adierazi beharko du. Ezgaikuntza bi motatakoa, nagusiki, izan daiteke:

1. Merkatal esparrukoa: Nolakoa den finkatu beharko da, hots, zergatiak adierazi beharko dira (beti epaileak).

2. Konkurtso-egoera: Enpresariak duen egoera berezia, krisi egoerak konpontzeko sortzen dena. Epaileak adierazi beharko du konkurtso-egoera nolakoa den. Bi mota daude:

2.1. Erabatekoa: Enpresariari enpresaren kudeaketa osoa kentzen zaio eta administratzaileak izendatzen dira jarduera burutzeko.

2.2. Mugatua: Enpresariari jarduera batzuk burutzeko eskubidea kentzen zaio, soilik batzuk, ez guztiak (ez erabatekoa).

### III.4.- ENPRESARI ESTATUTUAREN ESKURATZE ETA GALTZEA

**ESTATUS:** Enpresariak gainerako kideek ez dituzten eskubideak eta obligazioak izatea adierazten du.

#### II.4.1.- Eskurapena

1. Merkataritzako operazioak burutuz, enpresaria izateko ez da beharrezkoa inskribatzea. Hasieran edonork eskura dezake, libreki, enpresari-izaera merkataritzako operazioak eginez.

2. Hala ere, arlo ekonomiko zehatz batzuetan, ekonomiarentzat edo gizartearentzat funtsezkoak direnez, Administrazioaren alde aurretiko baimena exijitzen da.

3. Beste aldetik, pertsona batzuk ezin dira merkatariak izan (bateraezintasunak), edozein arlotan edo orokorrean, haien karguaren ondorioz interesen gatazka egon daitekeelako.

4. Enpresari-izaera beti jatorriz eskuratzen da (inoiz ez oinordetzaren bidez).

Oinordeak merkataritza burutzen jarrai dezake edo ez.

5. Atzeritarren merkataritzan libreki jardun dezakete, salbuespen batzuekin. Europar Batasunean ezin da desberdintasunik egon bertako pertsonen eta sozietateen artean.

#### II.4.2.- Galtzea

Operazioak egiteari uzten bazaio. Gehienetan, likidazioa eta konkurtsoa sozietateen kasuan, edo heriotza pertsona fisikoen kasuan. Orokorrean: Enpresaria hiltzean, estatusa galtzen du. Enpresaren eskualdaketa: behin betikoa bada, estatusa galtzen du; behin-behinekoa bada eta beste enpresan jarraitzen badu, soilik etenaldi bat egongo litzateke. Ezgaikuntza.

### III.5.- MERKATARITZA ENPRESARIOAREN ESTATUTU JURIDIKOA

#### III.5.1.- Nazioko eta atzerriko enpresarien gaitasuna

Enpresariak, bere naziotasuna kontuan harturik, bestelako gaitasunak izan dezake. Atzeritarra denean, (estatuko kidea ez denean), enpresaria nor den bereizi behar dugu, hau da, lege nazionalak aztertu behar dira eta, bigarrenik, bere jarduera burutzen duen tokiaren

legeria. Hori ikusita, tokiko arautegia errespetatu beharko du. Bereizketa ezarri ondoren, berezitasun bat ezartzen da atzerritarren kasuan:

→ Europar Batasuneko kidea al da? Horrela bada, askatasuna du Europako edozein tokitan jarduera burutzeko. Esan dugunez, toki horretako baldintzak eta arauak bete beharko ditu, baina zirkulazio-askatasuna dauka, ez du inolako baimenik behar Europako edozein tokitan jarduera burutzeko.

→ Ez da Europar Batasuneko kidea? Horrela izatekotan, aztertu beharko da kidea nongoa den eta estatuen arteko hitzarmenak edo loturak. Ez dute askatasunik: estatuan sartzeko baimena behar dute eta bertan geratu eta jarduera burutu nahi badute, lan-baimena beharko lukete.

### III.5.2.- Lanbide-obligazioak

Enpresariak, estatusa duenez, esan dugu obligazio eta eskubide multzo bat duela. Horien artean, kontabilitatea eramateko obligazioa dago: enpresaria hirugarrenen konfiantzaz baliatzen da eta, horregatik, kontabilitatea aurrera eraman behar du. Kontabilitateak enpresaren funtzionamendua nolakoa den jakiteko balio du. Beraz, hirugarrenek (bankuek, adibidez) informazio horretaz baliatzen dira.

#### III.5.2.1.- Kontabilitate antolatua eramateko obligazioa

##### III.5.2.1.1.- Helmena eta izaera

Garrantzitsuena da. Merkatal Kodean ezarrita dago honen oinarritzko legea. Lege honen edo araudi honen aplikazioa merkataritza guztiei ezartzen zaie, baina ez edozein modutan:

1. Kontabilitate ordenatua eraman behar da: antolakuntza batekin eraman behar da, prozedura berezi batekin. Hor sartzen dira kontabilitate plangintzak, laster ikusiko ditugunak.

2. Kontabilitate egokia: moldatuta egon behar da enpresariaren izaerara. Kontabilitateak helburu zehatz eta orokor bat du: enpresaren irudi zehatza erakutsi behar du:

- a. Bere ondarearena.
- b. Finantzaketa egoerarena.
- c. Emaizte buruzkoa.

Baina, aurrean esan dugunez, kontabilitateak plangintza bat behar du, ez delako nahiko kontabilitatea edozein modutan egitearekin. Prozedura zehatza eta berezia behar da,

plangintzen bidez ezarrita dagoena, Merkatal Kodeak arautua. Honen esparruan, hauek bereiz daitezke:

\*Kontabilitateko Plan Orokorra (KPO)

\*Enpresa Txiki eta Ertainen Plangintza Orokorra (ETEen KPO) Legedi horiek adierazten dutenez, "liburuetan" eraman behar da kontabilitatea (liburuetan komatxoaren artean dago egun, kontabilitatea ordenagailuz, kasu gehienetan, egiten delako). Hurrengo irudi honetan agertzen direnak dira, batez ere:

Oso garrantzitsua da kontuan hartzea, liburu horiek guztiak legeztaturik egon behar direla. Hortik, kontabilitatea behar dezala eramaten ez bada edo irudi zehatza adierazten ez badugu, kontabilitateari buruzko delitu bat egiten ari gara. Delituen artean, liburuak legeztaturik ez edukitzea aurkitzen da; beraz, horretarako legeztatu beharko ditugu liburuak, hurrengo pausuekin:

1. Ekitaldia hasi baino lehenago kontabilitate liburua legeztatu beharko dugu, jarduera hasi baino lehen. Jatorrizko legeztapena esaten zaio horri, hau da, liburua Merkatal Erregistrora eramatea eta liburuaren orrialde bakoitzean banan-banan merkatal zigilua jartzea. Liburu horiek zurrutan egon beharko dute.

2. Eratorrizko legeztapena. Legeriak ematen du aukera, kontuan hartuta gaur egun kontabilitatea programa informatikoen bitartez egin daitekeela, ekitaldi bukaeran paperez inprimatuz eta koadernatuz, erregistrora eramateko eta bertan zigilua jartzeko, banan-banan. Aurreko kasuaren berdintsua da, baina programa informatikoekin eginda, inprimatuta eta Merkatal Erregistrora eramanda ekitaldiaren amaieran. Legediak adierazten du ekitaldia bukatzen denetik gehienez lau hilabete daudela liburuak legeztatzeko. Baina, horrekin ez da nahikoa ere ez. Horren guztiaren barruan, obligazio batzuk ezartzen dira. Ikus ditzagun.

NOLA EGIN BEHAR DIRA IDAZPENAK? Argitasunez egin behar dira eta narriadurarik gabe, ez da onartzen inolako orbanik (borrón). Hori egitekotan, kontabilitatea aldatzea nahi dugunaren susmoa adierazten ari gara. Legediak ez du horrelakorik onartzen. Erratzen baldin bagara, beste idazpen berri bat egingo dugu aldamenean, eta aurrekoa txarto dagoela adieraziko dugu. Hortik argitasunez eta narriadurarik gabe egitearen baieztapena. Oro har, idazpenek, irizpide hauek jarraitu beharko dituzte:

→ Garbitasunez egin beharra.

→ Kronologikoki.

→ Orbanik gabe.

→ Akatsak eginez gero, salbuetsi egin behar dira ohar baten bitartez. Gainera, ez dira idazpen edo orrialdeen artean hutsunerik onartzen.

URTEKO KONTUAK: Kontzeptu hau batasun kontzeptua da, aurrean aipatu bezala, izatez bost dira, baina batasun gisa hartzen dira. Hurrengoak dira:

→ Egoera balantzea. Enpresaren momentoko egoera ekonomikoa agertzen duen dokumentua da.

→ Galdu irabazien kontua. Elkarrearen sarrera eta gastuen egoera adierazten du. Galdu irabazien kontuaren helburua: Ekonomia-ekitaldi zehatz batean sarreraren, mozkinen, gastuen eta galeren arteko diferentziak eta horiengatik sortutako ekitaldiko emaitzaren informazioa argitzea.

→ Ondare garbiaren aldaketen egoera. Irabazi, galera eta enpresariak bezeroekin egindako harreman hartzen ditu kontuan.

→ Cash-flow kontua. Enpresaren diruzaintzan gertatu diren aldaketen xehetasunak ematen dituen kontua. Balantze laburtua aurkezten ez den kasuetan, derrigorrezkoa izango da elementu hau aurkeztea.

→ Oroitidazkia. Aurreko guztiaren azalpen txostena da. Idazpenak egiteko balioztapenak eta irizpideak azaltzen ditu. Adituek dokumentu hau aztertuko dute, hain zuzen ere.

ADI! Kontabilitateari buruz jakin beharko dugu liburuak sei urtez gorde beharko ditugula, berdin da enpresari izateari uzten bazaio, gorde beharko dira, derrigorrez epealdi horretan.

III.5.2.1.2.- Kontabilitate sekretua eta kontabilitatea frogatzea gisa

Kontabilitatea sekretua da, inor ez du kontabilitate hori ezagutzeko eskubiderik, baina salbuespen kasuak ditugu: kontabilitatea jakinarazi behar denean edo erakutsi behar denean.

Jakinarazi behar denean: Legeak adierazten digu noiz eman behar den kontabilitatearen berri. Enpresariak langileak kaleratzen dituenean, beste enpresa batekin fusio bat gertatzen denean, krisi egoeran dagoenean enpresa...Kasu horietan guztietan eta, noski, askoz gehiagotan, zuzenean Espainiako Bankuak hartzen ditu kontuak eta publikoak egin beharko dira. Kasu honetan erakustea derrigorrezkoa da, eta nahi ez izatekotan, epaitua izan daite(z)ke.

Erakusketa mugatua: Ez da kontabilitate osoa erakusten, soilik zati batzuk.

Horrek guztiak, ordea, ez du esan nahi edonori erakutsi behar zaionik, finkatuta dago soilik interesdunei erakutsi behar zaiela.

### III.5.2.2.- Urteko kontuak idazteko obligazioa

Urteko kontu guztiak Merkatal Erregistroan aurkeztu beharko dira eta horren gordailuan utzi. Baina ekitaldia amaitzen denetik, zenbat denbora dugu hartara kontuak eramateko?

Legeak adierazten duenez, 4 hilabete da gehienezko epea eta sinaturik eman behar dira, hurrengo baldintzen arabera:

Banakako enpresaria bada, enpresariak sinatua.

Elkartea bada, administratzaileak sinatua.

Erantzukizun Mugatutako Sozietatea bada, bazkideek sinatua.

Baina, elkartearen ildotik, zein administratzailek sinatu beharko du(te)? Bereziki, urteko kontua aurkezten den momentuan karguan indarrean dagoen administratzailea. Baina, ordain dela gutxi izendatutako administratzaile bat izatekotan, honek ez baditu edukiak osotasunean ezagutzen, bere sinadura salbuetsi (exluir/eximir) dezake.

Urteko kontuak, normalean, ikuskaritza izan ohi dute, hau da, ondo daudela berresten dituzten ikerketak. Lan hori auditoreek egingo dute. Hortik sortzen da ikuskaritza edo auditoria kontzeptua. Ikuskaritza-txostena ere Merkatal Erregistroa laga beharko da.

Txostenak lau motatakoak izan daitezke.

1. Erabat positiboa. Ados dagoenean, bai enpresaria bai auditorea, kontabilitate- egoerarekin.
2. Baiezkoa edo onartua baina salbuespenekin. Auditoreak ikus dezake akatsen bat, baina ez gailentasun handikoa.
3. Ezezkoa edo onarpen eza erreparorekin. Auditoreak adierazi dezake ezin daitekeela jakin ondarea urteko kontuen informaziotik; horrek adierazten du, kontuak informazio eskasa dutela eta hobe legokeela informazioa gehitzea.
4. Txostenik eza. Auditoreak adierazten duenean ezin izan duela ikuskaritza- txostenik burutu, arrazoi batengatik. Izan daiteke, elkarteak ez diola utzi urteko kontu horien ikuskaritza egin. Kontu handi izan behar da ikuskaritza-txostenekin. Beti eman behar da, beraz, aurreko laugarren atalean bageunde, egoera larrian egongo ginатеke. Txostena auditoreak sinatua egon behar du eta Merkatal Erregistroan urteko kontuekin batera gorde beharko da. URTEKO KONTUAK EZ DIRA IKUSKARITZA-TXOSTENIK GABE ONARTZEN.

Legediak epealdiak ezartzen ditu: ekitaldia bukatzen denetik, gehienez hiru hilabete daude urteko kontuak egiteko, eta hilabete bat gehiago ematen da ikuskaritza-txostena gordailuan Merkatal Erregistroan uzteko. Hala eta guztiz ere, gehienezko epeak dira eta onena litzateke epe gutxiagoan egitea.

III.5.2.3.- Enpresariaren, beren enpresa eta beren jardueraren erregistro publizitateari buruzko obligazioa. Enpresaria hirugarrenekin kontaktuan dago beti: hornitzaileekin, bezeroekin,

finantza- erakundeekin... Hirugarrenek enpresa eta enpresariari buruzko informazioa biltzeko eskubidea dute, baina esan bezala, informazio horrek guztiak ofiziala izan behar du. Kontabilitatea enpresaren irudi zehatza emanik, eta derrigorrezkoa izanik, enpresaria ere beharturik dago datu batzuk webgunean emateko:

i. Bere datu pertsonalak.

ii. Egoera.

iii. CIF zenbakia (zerga-zenbakia).

Merkatuan aritzeko askatasuna, konkurrentzia eskubidea. Baina legeak mugak ezartzen ditu, gutxienezko baldintzak edo mugak: Konkurrentzia desleiala ez. Hauek dira adibide batzuk: Industria jabegoak: patenteak, markak... erabili ahal izango ditu.

Merkatal izena.

Errotulua: Enpresariak dituen tokiak izendatzeko erabiltzen duen izena.

Marka: Produktu edo zerbitzu baten izena.

Orokorrean, Merkatal Erregistroan erregistratzerakoan, enpresariaren informazio ofiziala ematen da. Baina, era berean, enpresariak berari buruzko informazioa gainerako agirietan adierazi beharko du, bai paperezkoetan bai bide informatikoen bidez (eskutizetan, fakturretan, web-orrialdea, faxa, zerga-zenbakia...).

### III.6.- MERKATARITZAKO ERREGISTROA

#### III.6.1.- Funtzionamendua eta antolakuntza

Merkatal Erregistroa merkatal esparruan dagoen erregistrorik garrantzitsuen da. Erregistro-mailan, publizitatea, berri ofiziala deritzona ematen da, segurtasun eta zehaztasun osoz. Baina, zergatik dira beharrezkoak erregistroak? Merkatal Erregistroak, eta noski, erregistroak oro har, informazio fidagarria eta ofiziala eskaintzen dute, zuzenbidearen eraginetarako balio duena. Epaiketetan, erregistroak eskaintzen duen informazioa baliagarria suerta dakiguke.

Beste erregistroen adibide bat Erregistro Zibila izan daiteke, inskribatua dagoen edonoren bizitza osoko informazioa ematen duena. Merkatarriak, bestalde, hirugarrenekin egiten dituzte harremanak, bai bezeroekin, beste enpresari batzuekin, hornitzaileekin, etab. Horiek guztiek enpresa horretatik onena espero edo/eta nahi dute. Hori jakiteko, informazioa biltzeko, Merkatal Erregistroa daukagu, enpresari eta jarduerari buruzko informazio ofiziala, legezkoa eta auzitegietan erabiltzen dena jasotzen duena.

#### III.6.1.1.- Funtzioak

Esan dugun moduan, enpresaria jarduera burutzen duenean, hirugarrenek informazioa behar dute, bai erosleak, hornitzaileak, eta lehiakideak.

Baina gainera, informazioa legezkoa izan behar du, auzitegian erabiltzeko modukoa.

Orokorrean, erregistroak funtzio hauek ditu:

Hirugarrenei enpresari eta bere jarduerari buruzko informazioa izateko aukera edo eskubidea ematea. Erregistroko aipamenak zehatzak eta egokiak dira: informazio ofiziala eskaintzen du.

Kontabilitate mailan, liburuaren legeztapena egiten du.

Adituen izendapena: elkarteek, bereizi Erantzukizun Mugatuko Sozietateek edo Anonimoek adituak izendatu behar dituzte. Adibidez, ekarpen bat egitean, demagun diruz baliagarria den



eskubide bat, adituek horren berri dute eta arazoak egotekotan (eskubide horren balioa adibidez) adituek konponduko dute. Hori guztia Merkatal Erregistroak finkatzen du.

Auditoreen izendapena: Horiek elkarteen kontuak eramaten dituzte ekitaldiz- ekitaldi. Izendapena elkarteari berari dagokio, baina salbuespen kasuak daude:

elkartearen gutxiengoak (kapitalaren %5a baino gutxiago duenak) auditoreak izendatzeko eskubidea du, baina gutxienez, %5eko kapital hori izan behar dute.

%5eko kapitala baino gutxiago izatekotan, Merkatal Erregistroari egokiko zitzaion izendapena. Aipatu bezala, Merkatal Erregistroa legezko informazioa ematen digu. Bulego publikoa da, edonor joan daiteke eta bertan inskribatuta dagoen edonoren informazioa eska dezake, eta bertan dagoena ezin dio deus esan, informazio PUBLIKOA delako. Merkatal Erregistroan bi bereizketa daude:

OHIZKO MERKATAL ERREGISTROA: Probintzia bakoitzeko hiriburuetan daudenak dira. Probintzia bakoitzaren hiriburuan Merkatal Erregistro bat egoten da. Eta, nor inskribatzen da? Enpresari guztiak. Bertan egongo dira probintziako enpresari guztiak inskribaturik. Irizpidea helbidea izango da, probintzia bakoitzeko jardueraren arabera.

MERKATAL ERREGISTRO ZENTRALA: Merkatal Erregistroen erregistroa da, bakarra da, Madrilen dagoena. Justizia Ministerioan dugu.

→ Ez da zuzenean ezer inskribatzen, horregatik erregistroen erregistroa dela esaten dugu. Probintzia bakoitzeko datu guztiak biltzen ditu (ohizko merkatal erregistroen bildura da). Era berean, erregistro honen helburua enpresari bat non dagoen inskribatua jakitea izaten da.

→ Kasu berezi bat dugu: Izeneztapen kasua. Enpresari gisa merkaturan sartu nahi dugunean, izeneztapen bat behar dugu, enpresari gisa jarduteko beharrezkoa dena, eta horrek berria izan behar du. Ez da onartzen alde zuzenetik egon izan den izeneztapenik, eta hori jakiteko Merkatal Erregistroaren ezezko ziurtagiri bat behar dugu -> Ez dagoela beste enpresaririk guk nahi dugun izeneztapenarekin. Baina praktikan hori guztia, beti bezala, ez da horrela izaten. Izeneztapen bat hartuta dagoenean, jardueraren atzerapena dakar, izeneztapen bat izan arte ezin baita jardun. Horregatik, aholkua da Merkatal Erregistro Zentralari zerrenda bat bidaltzea hierarkia-ordena batekin

→ Buletin Ofiziala. Kontuan hartu behar dugu Merkatal Erregistroak ere Buletin Ofizial bat duela, non egiten diren aldaketak argitaratzen diren. Oso garrantzitsua da argitaratze-data, zerbaiterako erabili beharrekotan (adibidez, hirugarrenen aurrean aurkezteko).

## INFORMAZIO GEHIGARRIA: MERKATAL ERREGISTROAREN ANTOLAKUNTZA

SISTEMA: PERTSONEN ERREGISTROA DA. Erregistro-orriaren titularra enpresari bakoitza izango da, eta

orri bakoitzean berari buruzko informazio osoa aurkitu ahal izango da.

Ez da ekintza (kontratua, izendapena) gordailatzen, urteko kontuen kasuan izan ezik.

KALIFIKATZEKO FUNTZIOAN erregistratzaileak egiaztatuko du ea ekintza inskribagarria den, zer eta nola argitaratu eta ea formalki baliozkoa den. Hau da, ekintzaren baliozkotasun formalabesterik ez du aztertzen, baina ez baliozkotasun materiala. Baliozkotasun materialari buruzko gorabeherak epaileek soilik deklaratu dezakete prozedura judizial batean. Ekintza bat inskribatua izan bada eta gero epaile batek baliogabetzat hartzen badu, erregistratzaileak gero baliogabetasuna inskribatuko du.

LURRALDE ANTOLAKETA. Probintzia bakoitzeko hiriburuan Erregistro bat dago, probintzia horretan helbideratutako enpresariak inskribatzeko.

Erregistratzaileak kalifikatzeko funtzioa egikaritu eta gero, inskribatzea egingo du eta Merkatal Erregistro Zentralari informazioa bidaliko dio MEAO (Merkatal Erregistroaren Aldizkari Ofiziala) aldizkari ofizialean argitaratu ahal izateko. MEAO aldizkarian agertzen dena inskribatzearen laburpena besterik ez da.

Beraz, gaur egun, Merkatal Erregistroan inskribatzea eta MEAO aldizkarian argitaratzea beharrezkoa da publizitatea eraginkorra izateko.

ERREGISTRATZAILEEN BESTE ESKUDUNTZA BATZUK: kontabilitate-liburuen legalizazioa, eta adituen izendapena (aurrez aipatu bezala) Erregistro guztiak Justizia Ministerioaren menpe daude -> Erregistratzaile eta Notarioen Zuzendaritza Orokorren menpe.

### III.6.1.2.- Inskribatu beharreko subjektuak eta egintzak

#### NUMERUS CLAUSUS PRINTZIPIOA

Erregistroaren helburua kontuan hartuz, ezin da edonor eta edozer inskribatu, baizik eta legeak aurreikusitakoa besterik ez. Izan ere, hirugarrenei interesatzen ez zaizkien gauzak inskribatuko balira, Erregistroak ez luke eraginik izango. Legeak ezarritako zerrendan dagoena derrigorrez inskribatu behar da.

#### III.6.1.2.1- Subjektuak

Subjektuei dagokienez, MK 16.artikuluak zerrenda jasotzen du: hauek besteek baino arrisku gehiago eta handiagoak sortzen dituztelako trafikoan:

1. Enpresari indibidualak. Salbuespenez, inskribatzea ez da haientzat derrigorrezkoa. Haien ezkontideek eskatu ahal izango dute kapitulazioak inskribatzeko, haien edukia hirugarrenen aurrean aurkatu ahal izateko.
2. Merkataritza-sozietateak (gainontzekoak ez).
3. Aseguru-entitate guztiak.
4. Inbertsio- eta pentsio-funtsak.
5. Interes ekonomikoko elkarteak. Beti dira merkataritzakoak, beraz, errepikapena besterik ez da.
6. Profesio-sozietate zibilak, betiere mota honentzako legedi bereziaren arabera eratu badira.

#### III.6.1.2.2- Egintzak

Ekintzei dagokienez, aurreko subjektuen ekintza guztiak ez dira beti interesgarriak hirugarrenentzat, kaudimenean edo finantza-arriskua eragin handia ez dutelako beti. Horregatik, MK. 22.artikuluan zehaztutakoak besterik ez dira inskribatu:

1. Enpresari indibidualaren kasuan: identifikazio-datuak, negozioaren izena, establezimenduaren izena eta helbidea, sukurtsalarenak, haren faktoreak, eta haren ondasunean ondorioak dituzten ezkontzari buruzko gorabeherak.
2. Pertsona juridikoaren kasuan: eratzeko ekintza, azken horretan gertatutako aldaketak, desegitea, haren egiturazko aldaketak (bat-egitea, zatiketa, etab.), sukurtsalak, administratzaileen, likidatzaileen eta kontu-ikuskarien izendapenak eta baztertzekak edo kargu-uzteak, faktoreak, baloreen igorpena.

#### III.6.1.3.- Inskripzio prozedura. Legezko publizitatea

IDAZPEN bat Erregistroan islatzen den ekintza baten edukia da. Hainbat mota daude, besteak beste, hurrengokoak: AURKEZPENEZKO IDAZPENA. Ekintza aurkeztean automatikoki egiten da. Behin behinekoa da (2 hilabete) inskribatzea egin artea (edo ez egin erabaki arte). Inskribatze-dataren ondorioak aurkezpeneko datan hasiko dira, hau da, behin inskribatuta, Erregistroaren araudiaren ondorioak jasoko ditugu. INSKRIBATZEKO IDAZPENA. Erregistratzaileak egiten du bere kalifikatzeko funtzioa egin eta gero. Kalifikatzeko funtzioaren emaitzak hurrengoak izan daitezke:

→ Inskribatzea luzatzea, kontrol formala gainditzen bada.

→ Inskribatzea etetea, kontrol formala gainditzen ez bada, aurkitu den akatsa zuzengarria denean.

→ Inskribatzea ukatzea, kontrol formala gainditzen ez bada, aurkitu den akatsa ezin zuzenduzkoa denean.

PREBENTZIOKO IDAZPENA. Judizio batean inskribatutako ekintzaren edukari buruz zerbait zalantzan jartzen bada. Hirugarrenei abisatzeko idazten da, epaileak judizioaren hasieran agintzen duelako (epaia baino lehen).

INDARGABETZEKO IDAZPENA. Inskribatzearen indarrari amaiera ematen zaio (adibidez, sozietatea desegin eta likidatu eta gero).

BAZTERREKO OHARRA. Ekintzari buruzko iruzkin bat da, inskribatzea baino beranduago jarritakoa. Adibidez, ekintza-epearen igarotzea.

#### ERREGISTRO-ORRIEN ITXIERA

Zigor gisa, sozietatearen urteko kontuak gordailatzen ez badira Merkataritza Erregistroan urte bateko epean, sozietate horrek ezin izango ditu berari buruzko ekintzak inskribatu. Horrela, izango da bere ondorioez baliatu.

#### ERREGISTROAREN PRINTZIOAK

DERRIGORREZKO INSKRIBATZEA, enpresari indibidualaren kasuan izan ezik. Derrigorrezko inskribatzeak ez du esan nahi inskripziorik ondorio eratzailerik duenik ekintzarentzat berarentzat (ez du esan nahi inskribatzeak eratzeari adierazten). Hau da, inskribatzea ez da ekintza baliozkoa izateko elementu bat. Hasieran, inskribatzeak adierazpenezko ondorio besterik ez du. Hau da, ekintza bazegoen inskribatu baino lehen, baliozkoa zen, eta alderdien artean ondorioak zituen, baina inskribatzeak ondorio berriak eman dizkio ekintzari (hirugarrenen aurrean).

TITULU PUBLIKOEN PRINTZIOA. Hau da, legeak kontrakoa esten ez badu, notarioak egindako dokumentuak soilik aurkez daitezke Erregistroan. ESKATZEKO PRINTZIOA. Partaideek soilik eska dezakete ekintza baten inskribatzea, inoiz ez erregistratzaileak (inoiz ez ofizioz).

LEGEZKOTASUN PRINTZIOA. Kalifikatzeko funtzioa burutuz, ekintzen legaltasun formala kontrolatzen da, eta hirugarrenentzat interesgarria dena soilik argitaratuko da, ez ekintza osoa edo ekintzaren dokumentu osoa (esan bezala ekintzaren laburpena soilik argitaratzen delako).

PUBLIZITATE FORMALAREN PRINTZIOA. Kontzeptu honek, batez ere, adierazten du edonork ezagut dezakeela Erregistroaren edukia. Enpresaren dokumentazio osoan Erregistroaren orria jarri behar da, hirugarrenentzat informazioa bilatzea errazagoa izateko, bestela, isuna eta ondorio zibilak ere egon daitezke, hala nola kalte-galeren ordaina. MEAO aldizkari ofiziala tresna egokia da ere honen esparruan.

ERREGISTROAREN ZEHAZTASUNAREN PRESUNTZIOA (zehaztasun printzipioa). Partaideen/kontratugileen artean, inskribatzearen edukia ontzat hartzen da, betiere beste bide baten bidez kontrakoa frogatzen ez bada.

FEDE PUBLIKOAREN PRINTZIOA. Inskribatzearen edukia ontzat hartuko da hirugarrenen aurrean edozein kasutan. Hau da, haien aurrean ez da onartzen beste modu baten bidez kontrakoa frogatzea.

#### III.6.1.3.1- Publizitate-materiala. Inskribatzearen ondorioak

Ondorioak bai hirugarrenen onuran bai alderdien onuran ezartzen dira. Lehenengoentzat, Erregistroaren edukia ontzat hartzen da nahiz eta errealia ez izan, Erregistroaren edukian fidatu direlako kontsultatzeko arreta betez. Eta, bigarrenentzat, zerbait inskribatu badute, bere edukia edozein hirugarrenen aurrean aurkatu ahal izango dutelako, nahiz eta azken horiek ekintzaren partaideak ez izan eta errealitate hori ez ezagutu. Azken finean, hirugarrenek, zerbait inskribagarria bada, Erregistroa kontsultatzeko arreta bere gain hartu behar dute.

##### III.6.1.3.1.1- Publizitate material positiboa ([www.derechomercantil.info](http://www.derechomercantil.info))

Publizitate material positiboa hirugarrenen aurreko eraginak adierazten du. Erregistroan inskribatutako ekintza edo gertakizun baten aurkakotasuna da. Inskribatutako ekintza edo gertakizuna hirugarrenen aurreko aurkakotasunean eraginak ditu MEAOn argitaratu denetik, ez ekintza edo gertakizunaren inskripzioetik (aurrekoa izango dela). Gure arazoa da argitaratze-data badu edo ez jakitea (el problema es saber si se incluye el día de la publicación o no). Gainera, ez da aurkagarria izango 15 egunetik beherako epealdian, hirugarrenak bere jakineza frogatuko balu (MEE 9.art.).

Hirugarrena fede txarrekoa (mala fe) bada, (badaki egintza inskribatua izan dela), egintza bera aurkagarria izango litzaioke inskripzio-datatik eta ez MEAOn argitaratze-datatik.

##### III.6.1.3.1.2- Publizitate material negatiboa ([www.encyclopedia-juridica.com](http://www.encyclopedia-juridica.com))

Inskribatzearen falta adierazten du, MEE 4.2.artikuluari adierazita dagoena. Inskribatu behar dena ez badu egiten, bere errua edo neglijentzia izanez, fede oneko hirugarrenaren/hirugarrenen kontra ezin izango du inskripzioari eza kontrajarri, eta hirugarren horrek ez du jasan beharko inskripzioari eza hori.

### III.7.- KUDEAKETA ETA ORDEZKARITZA

#### III.7.1.- Zuzendaritza ahalmena enpresan

Jarduera burutu ahal izateko, lankidetzak beharrezkoa da. Enpresariak ezin du bere kabuz jarduera burutu, laguntzaileak behar ditu, hau da, lankidetzak. Merkatuko jarduerak garapen berezia eskatzen du: teknika egokiak, helburu zuzenak, ahalik eta emaitza onena lor dadin. Produktu edo zerbitzua eskaini ondoren, merkatuak xuhurki eskatutako baldintza horiek guztiak mantendu behar dira. Enpresariak laguntzaileak izateko arrazoiak badira ere, besteak beste, hurrengoak izanik:

Jarduera multzoka eta nahitaez burutzeko, enpresariak lankidetzak behar du, hirugarrenen laguntza eta aholkularitza, erabaki guztiak bere gain ez hartzeko.

Jarduera toki ezberdinetan burutzeko, merkatu berrietan egon ahal izateko. Jarduera horiek gero eta zabalagoak egin ohi direnez, bai jardueraren burutzea bai horretatik sortzen diren obligazioak zailtzen joaten dira, eta egoera horretan ezin hobe suertatzen zaio enpresariari laguntzaile bat.

Baina laguntzaileen artean printzipio edo/eta mota batzuk bereizi behar ditugu, lau irizpideren arabera:

1. Laguntza motaren arabera: lankidetzat etengabe eskaintzen dutenak edo noizik behin eskaintzen dutenak.
2. Enpresariarekin duen loturaren arabera, bi laguntzaile mota ere bereiz ditzakegu:
  - 2.1. Merkatal izaerazkoa
  - 2.2. Lan izaerazkoa: langilea duenean laguntzailetzat: lan esparruko harremana sortzen da.
3. Lankidearen laguntzaren esparrua: non ematen dion laguntza:
  - 3.1. Enpresaren barnean
  - 3.2. Enpresatik kanpo (adibidez, produktuak merkatuan aritu behar direnean).
4. Lankidearen izaera:
  - 4.1. Menpekotasun langilea: zuzenean aginduak bete behar dituenak, lana arautua duena.
  - 4.2. Burujabea edo menpekotasunik eza duen laguntzailea: berari dagokio enpresariak esan diona betetzea, baina berak erabakiko du nola antolatuko duen, esan dezakegu ez duela arau finkorik, soilik zer egin eta ez nola egin.

### III.7.2.- Enpresariaren ordezkariak

Aurrez aipatu bezala, enpresariak laguntza behar du bere jarduerara aurrera eramateko, eta bide horretan lankidetzat tresna bikaina suertatzen zaio. Laguntzaileen artean bi mota bereizten dira: menpeko laguntzaileak (ez du inolako aukerarik enpresariaren aurrean, ez du inolako irizpiderik, aginduak zuzenean betetzen ditu), eta laguntzaile burujabeak (kideaeta enpresaria maila bera daude -> aholkularitza delakoa izaten da. Profesionalak izan ohi dira, horretarako prestatuak).

#### III.7.2.1.- Enpresariaren menpeko laguntzaileak

III.7.2.1.1.- Merkataritzako kudeatzailea edo faktorea – ahalmen orokorra – Merkatal izaeraz ari garenean, etengabe laguntza ematen dioten laguntzaileak dira, ahalmen orokorrak dituztenak, enpresatik kanpo.

#### III.7.2.1.2.- Goi-zuzendaritzako pertsonala

Hauek laguntzaile garrantzitsuenak izan ohi dira, ahalmen gehienak dituzte-eta. Ahalmenak hartu behar ditugu kontuan kasu honetan, biziki inportanteak baitira. Legeak adierazten dituen gutxienezkoak hauek dira:

1. Administrazioa.
2. Kudeaketa.
3. Kontratazioa.

Hemen sartzen dugu GERENTE kontzeptua. Gerenteak enpresariarentzat laguntzaile garrantzitsuenak bihurtzen dira. Zuzendari orokor bezala ezagutu ohi zaio. Gerentea izateko gaitasun batzuk behar dira, besteak beste, adinez nagusia izatea, ezgai ez izatea eta aurreko hiru baldintza horiek betetzea. Halaber, enpresariak ahalmen edo gaitasun gehiago eman diezazkioke aurrekoez aparte, horiek Eskritura Publikoan ezarri eta Merkatal Erregistroan inskribatu. Horri jarraiki, konfiantza-harremana sortzen da enpresariaren eta gerentearen artean:

Harremana enpresariarekin: Zerbitzu errentapen kontratu bat da; horrek esan nahi du enpresaria gerentea bere borondatez adierazten duela, harengan konfiantza duenez gero. Hori horrela izanik, enpresariak gerentearekiko konfiantza galdu ezker, kargutik ere kendu ahal izango du. Baina, azpimarratzekoa da gerenteak enpresariarekin harreman hau

edukitzeaz gain, lan-harreman bat ere badu, goi-mailako zuzendaritza kontratua, alegia, ezin izango du hain erraz kendu kargutik.

Goi mailako harreman berezia dagoenean (lan izaerazkoa) lotura bikoitza egoten da: kargutik kentzeko, beraz, bigarren lotura dago (lan izaerazko harremana). Legeak ezartzen ditu zeintzuk diren harreman hori hausteko zentzuko arrazoiak. Dena den, normalean gerenteari ordaindu beharko zaio harremana apurtzen bada. Harreman horri Blindaje Harremana deritzo.

### GERENTEAREN ESTATUSA

Gerenteak gaitasun batzuk behar ditu (aurreko hiru horiek) gutxienez. Enpresariaren izenean burutuko ditu eginkizunak, betiere enpresariak berak jarritako irizpideen arabera eta errespetua aurretik izanik. Kontu handi honekin: gerenteak ezin du enpresari moduan jardun, enpresari batentzat lan egiten duelako. Horren esparruan, hori betetzen ez bada, bi ondorio nagusi daude: irabazi guztiak enpresariari itzultzea eta zorrak gerenteak ordaintzea. Azken batean, enpresariak gerenteari ahalmenak ematen dizkio, bere konfiantzarekin bat, Merkatal Erregistroan inskribatzen eta Eskritura Publikoan adierazten. Horrez guztiaz gain, gerenteak dituen betebeharrak, obligazioak, debekuak edo baldintzak hauek dira:

1. Adinez nagusia izatea eta ondasunen xedapen librea izatea (ezgaitua ez izatea).
2. Ahalmenak mantentzen ditu enpresaria hil arren.
3. KONKURRENTZIA-DEBEKUA du, ezin izango du enpresariarentzat burutzen duen jarduera berdina burutu. Debeku hori betetzen ez badu, ondorioak sortzen zaizkio:
  - 3.1. Gerenteak irabaziak izatekotan, enpresariarentzat izango lirateke.
  - 3.2. Gerenteak galerak izatekotan, berak ordaindu beharko ditu.
4. Ahalenak galdu ditzake. Ahalmenak enpresariak gerente izendatzen duenean eskuratzen ditu eta, aitzitik, galdu kargutik kentzen duenean.

Gerente nabariaren kasua: egoera honetan arrisku ugari sortzen dira. Kontzeptu honek zer esan nahi du? Enpresariak gerentea ez duenean inskribatu Merkatal Erregistroan eta norbait ari denean bere izenean. Egitezko portaera bat egoten da, baina izendapenik eza.

#### III.7.2.1.3.- Banakako ahaldunak

Banakako ahaldunak ahalmen mugatua dutenak dira, gehienetan soilik lan-kontratuak dituztenak. Hauek enpresariaren gainerako menpeko laguntzaileak dira. Honen barruan, merkataritzako mendekoak eta ordezkariak ditugu, euren ahalmenak mugatuak direnak. Laguntzaile hauek dendatan edo tokietan daudenak izan ohi dira, gehienetan lan-kontratua soilik izanik. Salmenta egin, prezioa kobratu eta dagokion faktura edo agiria luzatu egin dezakete soilik. Tokia euren muga da. Ezin izango ditu kreditura egindako erosketak kobratu, horiek enpresariak jasoko ditu. Orokorrean, honako muga hauek dituzte:

Ezin dute tokitik kanpo saldu.

Ezin dute kreditura saldu, epeka saltzeko aukera ezin dute eskaini.

Ezin dute epeka egindako salmenten prezioa kobratu, hori enpresariaren erantzukisuna delarik.

#### III.7.2.2.- Enpresariaren laguntzaile burujabeak

Ez dago enpresariarekin harremanik. Euren ezaugarri nagusia enpresariak direla da (ez zentzu hertsian harturik), beren jarduera beste enpresariari laguntza ematea da.

### III.7.2.2.1.- Merkataritzako agenteak

Enpresariari bezero berriak bilatzea da euren jarduera, edo publizitate-kanpaina bat egiten duenean laguntza eskaintzen dutenak.

### III.7.2.2.2.- Fede maila publikoak / Bitartekari Elkargokide Agenteak.

Multzo hauetan epaileak, notarioak eta abar sartzen ditugu. Egoera baten aurrean eurek eskaintzen duten informazioa edota probak, zuzenak dira, egia ofiziala deritzona.

## III.8.- ENPRESARIAREN ARRISKUA ETA ERANTZUKIZUNA

### III.8.1.- Printzipio orokorra

Enpresariaren erantzukizuna mugagabea da (bere ondasun guztiak), baina gaur egun muga bat egon daiteke: ondasun bat salbuetsi daiteke harreman profesionaletatik, hau da, enpresari-harremanetatik. Gehiegizko kopuru hori 300.000€koa izaten da. Gehienetan, ondasun hori enpresariaren etxebizitza da. Oro har, biztanleria milioi batetik gorako hirietan kopuru hori handitu egiten da.

Puntu honetako izenburuak dioenez, enpresariak arriskua du, jarduera betetzetik datorkiona. Horren ildotik, enpresariak erantzukizunak ditu, eta, orokorrean, bi modutakoak izan daitezke:

1. Kontratu izaerazko erantzukizuna: Zuzenean kontratukidearekin erantzukizuna dagoenean. Kontratukideek obligazioak dituzte, eta horietariko batek betetzen ez badu, hor, zuzenean, erantzukizunak sortzen dira. Horrelako kasuetan kontuan izan behar dira kontratuarekin edukiak eta baldintzak, eta horren ondoren, bi emaitza posible daude:

a. Kontratuak berak adierazten duena betetzea.

b. Legediak ezartzen duena betetzea.

2. Kontratuz kanpoko erantzukizuna: Kontratuarekin lotura ez duten gainerako erantzukizunak. Kasu honetan, kontratuz kanpoko arriskuak eta erantzukizunak legediak arautzen ditu. Legedi hori, besteak beste, Kode Zibila izango da eta horrek finkatuko du nor den egoera bakoitzaren erantzulea. Demagun toki publiko batean gaudela eta etxetik eroritako zerbaitek norbait zauritzen duela. Horrek ez du kontraturik sinatu etxekoekin, beraz, egoera honetan legeak emango dio babesa. Ondorio moduan zer aipa dezakegu: kontraturik egon ez arren, arrisku egoerak babesturik daude (legeak babestuak).

### III.8.2.- Objektibaziorako joera

Jarduerak, esan bezala, arriskuak sortzen ditu. Arriskuak enpresariak jasateaz gain, langileek, gizarteak edota bezeroek ere pairatzen dute. Produktuaren erabilera ere arriskugarria suerta daiteke. Jatorriz, arriskua izateak ez du esan nahi kalte egoera batean bilakatuko denik, baina baliteke. Legediak dio arrisku egoera horiek (eta, orokorrean, guztiak) babestu behar direla, hau da, erantzukizuna objektiboa izatea.

Arrisku egoerak Europar Batasunak zehazten ditu. Noiz da produktu bat akasduna? Bere ezaugarriak betetzen ez dituenean. Gero, produktua banaka aztertu beharko da. Produktu hori, beraz, arriskugarria da; hala ere, ez du esan nahi kalterik kausatuko duenik. Zuzenean enpresariari erantzukizuna eskatzen zaio. Baina eskatzen zaion erantzukizuna ez da berdina izango bere portaera arretazkoa edo axolagabekeriakoa izan baldin bada, lehenengoan isuna txikiagoa liteke.

### III.8.3.- Erantzukizunaren mugatzerako joera

Enpresariaren erantzukizunari mugarik jarriko ez balitzaioke, horrek hori betetzeko aukerak murriztuko lirateke. Horregatik, legeak erantzukizuna ordaintzearen mugak ezartzen ditu, baina ez du erantzukizuna bera mugatzen. Muga, oro har, esparru guztietan aplikatu ohi da. 300.000 milioi eurotan ezarrita dago erantzukizunaren muga.

#### IV. IKASGAIA.- MERKATARITZA SOZIETATEA

##### IV.1.- SOZIETATE KONTZEPTUA

Merkataritza sozietatea kontratu baten emaitza da. Kontratu horretan kide ezberdinek hartzen dute parte eta horiek bere gain hartzen dute kontratua bera sinatzean: ekarpenak egitea. Ekarpenen artean, hurrengoak bereiz daitezke:

Dirua: 10.000 euro.

Ondasunak: Etxea, bulegoa...

Diruz baliagarriak diren eskubideak: patentea, marka...

Horri elkarte-kontratua esaten zaio. Pertsona bik edo gehiagok batera elkartuz, euren ekarpenak eskaintzen dituzte eta jarduera burutzen dute (egindako ekarpenei esker) irabaziak lortzeko asmoz. Ekarpena egiten denean, kontratukidea bazkidea (EMS) edo akzioduna (SA) bihurtuko da.

Kontratukideok (kasu askotan, bazkideak edota akziodunak, diferentziatu beharrekoak) ekarpenak egiten dituztenean, kapital kontzeptua agertzen da. Kapitalari esker (hots, ekarpenak) jarduera burutu ahal izango da, eta jardueraren burutze horri esker, irabaziak lortu ahalko dira, bazkideen edo akziodunen artean banatzeko.

Bazkideok edo akziodunok elkartetik kapitalaren zatiak jasoko dituzte, SAetan akzioak eta EMSeetan partaidetzak deritzenetan.

Baina, kasu honetan, nor da enpresaria? Sozietatea bera. Enpresari estatusa sozietateak izango du. Aipatzekoa da ere kideak (kontratukideak) bi izaera dituela: kontratukidea eta bazkide izaerak.

Hauek dira sozietate kontzeptuaren esparruan ematen diren bi definizio, Kode Zibilaren eta Merkatal Kodearen eskutik:

KZ 1665.art.: Sozietatea kontratua da, eta, horren bidez, bi pertsona edo gehiagok euren gain hartzen dute dirua, ondasunak edo industria erkidegoan jartzeko betebeharra, irabaziak euren artean banatzeko asmoarekin.

MK 116.art.: Konpainia-kontratuaren bitartez, bi pertsona edo gehiagok ondare-funts erkidea eratzeko betebeharra hartzen dute, ondasuna, industria edo halako zerbait jarrita, irabaziak lortzeko; kontratu hori merkataritzakoa izango da, baldin eta kode honetako xedapenen arabera eratu bada, konpainia-mota edozein izanda ere. Merkataritzako konpainia eratu eta gero, horrek nortasun juridikoa izango du, burutzen dituen egintza eta kontratu guztietan.

##### IV.2.- MERKATARITZA SOZIETATEAK

Gainerako erakundeetatik bereizi behar da merkataritza sozietatea; lau kontzeptu gako zehaztuko ditugu segidan: elkargoa, erkidegoa, lankidego edo kooperatiba eta elkarte.

1. ELKARGOIA (asociación): Kide ezberdinek sortzen duten erakundea da, bai fisikoek bai juridikoek. Ez du ekonomia-jarduerarekin zerikusirik. Ekonomiaz kanpoko edozein izaera mota izan dezake; gehienak kulturalak izan ohi dira.

2. ONDASUNEN ERKIDEGOIA (comunidad de bienes): Zuzenbidearen kontzeptu teknikoa da.



Pertsona desberdinen ondasun edo eskubide bat izatea zatitu barik. Oinordetzaren kasua nabaria da: ondasun edo eskubidea zatitu aurretik erkidegoa izaten da, baina horri amaiera eman nahi zaionean, arazoak agertzen dira: guk jakin badakigu

3 oinorde ditugula eta bakoitzari %45a, %10a eta %45a dagokiola, hurrenez hurren, baina ez dakigu zerekin ordainduko zaien, soilik euren parte-hartzea.

3. LANKIDEGO EDO KOOPERATIBA: Berezia da ekonomia mailan. Ezaugarri nagusia kideen partaidetza edo aurrezkoa da, ez soilik etekinak lortzea. Kapitala eta kide kopurua aldagarria da. Merkatuan enpresari lehiakide gisa parte hartzen du erakunde mota honek, baina zerga-mailan gutxiago ordaintzen du, gainerakoekiko abantaila duela esan nahi duena. Hots, kontraesana dago legeak dioenaren eta merkatuko egoeraren artean.

4. Elkartek edo sozietateak: Esan bezala, kontratu baten emaitza da. Kontratukideak ekarpenak egitera beharturik daude, nondik kapitala sortzen den. Kapital horretatik, akzio edo partaidetzak esleitzen zaie kontratugileei. Hortik ere jarduera burutzea ahalbidetzen da eta horretatik irabaziak lortzea, bazkideen (kontratukideen) artean banatzeko.

#### IV.3.- MERKATARITZA SOZIETATE MOTAK

Sozietate ereduak legediak ezartzen ditu, Merkatal Kodean finkaturik daude, 4 edo 5 eredu. Bi mota, orokorrean, bereizi egiten dira:

1. SOZIETATE PERTSONALISTAK: Ezaugarria zuzenean bazkideen nortasuna da.

a. Sozietate Kolektiboa.

b. Komanditako Sozietatea.

2. SOZIETATE KAPITALISTAK: Ez dute ezaugarri nagusi bazkidearen nortasuna, baizik eta kapitala, nork egingo duen ekarpena.

a. Sozietate Anonimoa

b. Erantzukizun Mugatuko Sozietatea

Sozietate horiek noiz izango dira Merkataritza-sozietateak? Irizpidean aldaketa bat egon da. Hasieran irizpide finkoa zegoen: Merkataritza Kodeak dituen sozietate mota bat aukeratzen bazen, automatikoki merkataritza sozietatea izango litzateke. Gero, irizpide aldaketarekin, Kode Zibilaren sorrerarekin, 1.670.artikuluari: Sozietate zibila denak, burutzen duen jardueraren arabera, merkataritza sozietatea forma erabili ahal izango du.

Zeintzuk izango dira Sozietate Zibilak?

Sozietate Anonimoak eta Erantzukizun Mugatuko Sozietateak ez dira inoiz sozietate zibilak izango, beti Merkataritzakoak. Sozietate Kolektiboa eta Komanditako Sozietatea direnean, bere jarduera erreparatu beharko da, izaera jakin ahal izateko (zibila ala Merkataritzakoa).

Izaera zibila duten sozietateek ez dute legeri propiorik eta, beraz, lehenetsia merkataritza izaerazko sozietateen araudia izango da. Hau zibil izaera duen obligaziozko araudiaren kontrakoa ez denean, bestela arautegi zibila aplikatuko da.

#### KONTRATUAREN OBLIGAZIOAREN EDUKIA ETA BAZKIDEEN OBLIGAZIOAK

Bazkideekiko sortzen den obligazioa da kontratuaren obligazioa, bazkideei ekarpena egiteko obligazioa sorraraztea, alegia. Baina nola garatzen dira obligaziook?

1. MODUA: Kontratua sinatzean sozietatea sortzen da eta hasiera batean lege ez dago ekarpenik egiteko obligaziorik -> Elkarre Kolektiboa eta Komanditakoa.

2. MODUA: Ekarpena egin beharra izatea hasiera batean eta gainera osorik %100ean -> Erantzukizun Mugatuko Sozietatea.

3. MODUA: Ekarpena hasiera batean lege ez da osorik egin behar, gutxienez %25a. Posiblea da, ordea, kontratukideek beste modu batean adostea -> Sozietate Anonimoa.

#### IV.3.1.- Pertsona izaerazko Sozietateak

Bazkideen arteko harreman pertsonalean oinarrituta sortzen dira, eta neurri handi batean bazkideen identitatearen menpe daude (intuitu personae). Horrek esan nahi du garrantzitsuena bazkidearen izaera izango dela, lehentasuna kideak duela. Hala ere, ekarpena ere kontuan hartzen dute, baina bigarren maila batean. Oinarritzko ezaugarriak hauek izan ohi dira:

Bazkide-izaera eskualdatzeko ezintasuna

Antolaketa pertsonalizazioak (erabakiak hartzeko ahobatezkotasuna / bazkide bat hiltzean desegitea, etab.)

Administrazioaren deszentralizazioa.

Ondareen komunikazioa (ondarearen autonomia mugatua / bazkideen erantzukizun pertsonal eta mugagabea, etab.) Honen barruan, bi bereiz ditzakegu: Sozietate Kolektiboa (SK) eta Komanditako Sozietatea (KS).

Hauek dira, besteak beste, euren ezaugarrietariko batzuk, hurrengo orrialdean aipatzen direnak. Kontuan hartu behar dugu Sozietate Kolektiboak ez duela bazkide mota bat baino gehiago, baina, aitzitik, Komanditako Sozietatea bi bazkide mota ditu: bazkide kolektiboak eta komanditako bazkideak. Bazkide kolektiboak Sozietate Kolektiboko bazkideak bezalako erantzukizunak eta abar dituzte, baina komanditako bazkideek ez dituzte horiek bezalakoak, nahiko antzekoak baina ez berdinak. Hurrengo orrialdean aipatzen dira ezaugarriok.

IV.3.2.- Kapital izaerazko Sozietateak. Sozietate Anonimo eta Erantzukizun Mugatuko Sozietatea garrantzitsuena kapitala da. Antolakundea bazkideen ezaugarri eta inguruabar pertsonalekiko autonomoa da. Oinarritzko ezaugarriak hauek izan ohi dira:

Bazkide izaera eskualdagarria da.

Antolakundearen egonkortasuna (gehiengo printzipioa / desegite-kari objektiboak, etab.)

Administrazioaren zentralizazioa Ondarearen banaketa (bazkideen erantzukizun mugatua).

Esan bezala, bazkidearen izaera ez da lehentasuna, garrantzitsuena kapitala dela. Zentzu zabalean ekarpena ondasunak edo diruz baliagarriak diren eskubideak eta dirua izan ohi dira. Bazkidearen izaera kontuan hartu ohi da (esan dugu ez dela kontuan hartzen, hau da, ez dela lehentasunetariko bat) baina bigarren maila batean. Honen barruan, bi talde bereizten dira:

1. Sozietate Anonimoak: hauek sortzeko bakoitzak zenbateko eta nolako ekarpena egingo duen kontuan hartu behar da. Kasu batzuetan bazkidearen izaerak ere garrantzia du, baina salbuespen kasuak dira.

2. Erantzukizun Mugatuko Sozietateak.

Hurrengo orrialdean sozietateen laburpen taula bat agertzen da, lagungarria dena. Sozietate Kolektiboa.

#### BAZKIDE MOTA BAKARRA

Bazkideen erantzukizuna: pertsonala, solidarioa, mugagabea eta bigarren mailakoa.

PERTSONALA: Bazkideek beren ondasun pribatuekin erantzun beharko dute.

SOLIDARIOA: Hartzekodunak zuzenean aukera dezakeela kreditua kobratzeko bazkidea.

MUGAGABEA: Hartzekodunek bazkideen ondasunak erabili ahal dituzte kreditua kobratzeko, baina lehenik elkartearnetikoetarik kobratzen saiatu behar dira, eta nahikoa ez denean, orduan bazkidearenen kontra joan ahalko dira. Bazkideak izateagatik, elkartearen administratzaileak izateko eskubidea izango dute.

Komanditako Sozietatea

BAZKIDE KOLEKTIBOAK

Sozietate Kolektiboko bazkideak bezalakoak.

KOMANDITAKO BAZKIDEAK

Aurrekoen berdina izango da, baina kontuz honekin:

MUGAGABEA EZ DA IZANGO.

MUGATUA: Beren arriskua ekarpena izango da, ezin izango zaie gehiago eskatu, soilik egin duten ekarpenaren arabera. Abantaila dute besteekiko.

Kasu honetan, bazkide hauek ezingo dira elkartearen administratzaileak izan.

Baina legeak kasu berezi bat ezartzen du: ezin dute bere izen ezta abizenik elkartean ezarri, bazkide hauen izen edo abizena ezartzean, elkartearen erantzukiduna mugatutik mugagabera aldatzen delako.

EKARPENAK

KAPITALA

HARPIDETZA ORDAINKETA

Sozietate

Kolektiboa = SK

Dirua / Ondasunak / Diruz

Baliagarriak diren eskubideak

/ Lana

XXXXXX XXXXXX

Komanditako

Sozietatea = KMS

Bazkide kolektiboek: Dirua /

Ondasunak / Diruz baliagarriak

diren eskubideak / Lana XXXXXX XXXXXX Komanditako Bazkideek: Dirua /

Ondasunak / Diruz baliagarriak

diren eskubideak

Komanditako

Akziodun

Sozietatea = KMAS

Elkarte mota honen arau bereziak / Elkarte Anonimoen Legea

>60.000€ >15.000€

Sozietate  
Anonimoa = SA

Dirua / Ondasunak / Diruz baliagarriak diren eskubideak >60.000€ >15.000€

Europar Sozietate Anonimoa = ESA

Bat-Egite / Holding / Filial / Eraldatze >120.000€ >30.000€

Erantzukizun Mugatuko Sozietatea = EMS

Dirua / Ondasunak / Diruz baliagarriak diren eskubideak >3.000€ Osorik

Pertsona Bakarreko Erantzukizun Mugatuko Sozietatea =PBEMS

Dirua / Ondasunak / Diruz baliagarriak diren eskubideak  
>3.000€ Osorik

Pertsona Bakarreko Sozietate Anonimoa = PBSA  
>60.000€ >15.000€

Enpresa Berri Sozietatea = EBS

Dirua soilik 120.202€>X>3.012€ Osorik Kapital izaerazko sozietateen ildotik jarraituz...

#### IV.3.2.1.- Kapital kopurua

Zer da kontuan hartu behar duguna? Zerk bereizten du elkarte hauek besteongandik? Ikusiko ditugu zeintzuk diren sozietate motan hauen berezitasun batzuk, baina argi utzi behar da bi sozietate mota hauetan, kontratu bat dugula oinarri eta kontratu horrek diotenaren arabera, ekarpenak egin beharko direla eta hortik kapitala sortuko dela, gero bazkideoi edota kontratukideoi dagokien akzioak edo partaidetzak esleituz.

Hona hemen ezaugarrietariko batzuk:

#### KAPITALA:

~ Sozietate Anonimoetan, bazkideak ekarpena egiten du eta horren ordainetan, elkarteak akzioak ematen dizkio.

~ Erantzukizun Mugatuko Sozietateetan berdina da, baina bazkideek akzioak jaso beharrez, partaidetzak jasotzen dituzte.

#### AKZIOEN NEGOZIAZIOA:

~ Sozietate Anonimoetan akzioak negoziagarriak dira, eskualdatu daitezke, erosi edo sal daitezke. Akziook Burtsan parte har dezakete.

~ Erantzukizun Mugatuko Sozietateetan, partaidetzak ezin dira negoziatu, ezin dute Burtsan parte hartu, baina bai eskualda daitezkeela.

#### EKARPENAREN ORDAINKETA:

~ Erantzukizun Mugatuko Sozietateetan, ekarpena osorik egin behar da hasieratik.  
~ Sozietate Anonimoetan, hasierako ekarpena, gutxienez, %25ekoa izan behar da, legeak abantaila ematen du hor. Ordaintzeke gelditzen dena, kasu honetan %75a izango litzatekeela, dibidendu pasiboa izango da, hau da, ordaintzeke geratzen den ekarpenaren zatia, osorik egin ez baita. Egoera hau ez da Erantzukizun Mugatuko Sozietateetan kontenplutzen.

#### HARTZEKODUNEN AURREAN...:

~ Bazkide edo kontratukide hauek ez dute inoiz hartzekodunik izango, ezin izango dute bazkideen kontra egin, euren obligazioa ekarpena egitea da- eta. Horrek esan nahi du bazkideen harremanak soilik elkartarekin izango direla eta ez hartzekodunekin. Nozio hau EMSeetan eta SAetan berdina da.

#### SOZIJETATE ANONIMOAREN KAPITALAREN HIRU BALIOAK

~ Balio Nominala (BN): Kapitaletik sortzen den balioa. Akzio bakoitzak duen balioa da eta tituluan edo kontuko idatzoharrean azaltzen da.

~ Benetako Balioa (BB): Ondare kontzeptutik sortzen da. Akzioak duen balioa da, merkatuan saltzen edo erosten den unean.

~ Merkatuko Balioa (MB): Balio hau eskaria eta eskaintzaren arabera sortuko da. Prezioa izaten da gehienbat, zenbat ordaintzeko prest dauden. Merkatua Burtsa denean, kotizazioa izango da, hots, akzioak duen balioa Burtsan bertan.

#### IV.3.2.1.1.- Kapitala gehitzea

Hurrengo orrialdean agertzen den eskema lagungarria izango zaigu kapitala nola gehi daitekeen eta zer prozedura aurrera eramane behar den ulertzeko orduan. BALIO NOMINALA= Sozietatearen kapitala  
Akzio kopurua

BALIO ERREALA= Ondarea +(Irabaziak - Galerak) Akzio kopurua

KAPITAL BAIMENDUA: Kapitala gehitzeko erabakia administrazio organoak onartu behar du, horrek sozietatearen premia ondo ezagutzen duelako. Erabaki hori hartzeko ahalmena Batzar Orokorraren bitartez edo estatutuen bitartez jasotzen da. \*Ekarpenak diruzkoak izango dira soilik. \*Administrazio organoak kapitala era honetan gehitzeko gehienez bost urte izango ditu. \*Kapitala %50ean handituko da gehienez.

Hona hemen adibide bat: "Sozietatearen kapitala 100ekoa da. %50ean soilik handitu daitekeenez 5 urtetan, 150era igo daiteke". Hauek lirateke bi adibide.

#### 1.kasu posiblea

2015 2016 2017 2018 2019 2020

100 150 225 (ezin) EZIN EZIN EZIN

Aipatu dugunez, kapitala 150era soilik igo daiteke hurrengo bost urteetan. Lehenengo urtean 150era igo bagara, ezin izango dugu gehiago gehitu 2020aren amaierara arte, beraz, 2016tik 2021era ezin izango litzateke kapitala gehitu.

2.kasu posiblea

2015 2016 2017 2018 2019 2020

100 110 140 150 EZIN EZIN

Kasu honetan, 150era 2018an heltzen gara, beraz, geratzen diren bi urteak kapitala gehitu gabe geratu beharko gara. Laburtuz, kapitala 5 urteetan horren %50ean soilik handitu ahal izango da, eta nahi den moduan egin ahalko da banaketa.

#### IV.3.2.1.2.- Kapitala urritzea

Hemen behean agertzen den eskema lagungarria izango zaigu kapitala nola urri daitekeen eta zer prozedura aurrera eramane behar den ulertzeko orduan.

#### IV.3.2.2.- Merkataritzazko izaera formaren arabera

Bi sozietate hauek merkataritza sozietateak dira, baina sozietate zibilak ere izan daitezke. Baina, bien artean nola bereizi?

**SOZINETATE ANONIMOA:** Sozietate Anonimoetan kapitala akzioetan banatuta dago, ordainketa ez da osorik egin behar hasiera batean, esanda bezala. Egoera hau estatutuen bitartez alda daiteke, baina ezin izango da inoiz gutxienezko kapitala gutxitu; aitzitik, handiago bai bihurtu daitekeela. Bazkideek ez dute inoiz erantzukizunik izango hartzekodunen artean, elkarteak osotasunean baizik. Halaber, bazkideak ez du administratzailea izateko eskubiderik, nahiz eta bazkide izaera duen.

**SOZINETATE MUGATUA:** Egoera Sozietate Anonimoen antzekoa da, beraz, horrentzat esan duguna baliogarria izango zaigu sozietate mota honetarako, berezitasunik baldin ez badago. Kapitala partaidetasunetan banatuta dago eta ez dira merkaturuan negoziagarri.

Jakin badakigu merkatal sozietatearen eta zibilaren arteak aldeak daudela. Ikus dezagun zein den muina zibila edo merkataritzakoa izateko.

Bereizteko irizpidea haxe litzateke: jardueraren izaerari erreparatu beharko genioke:

industriaz, merkataritza edo zerbitzuko baldin bada merkataritza sozietatea izango litzateke, beste mota batekoa baldin bada, sozietate zibila.

**ADI! EDOZEIN MERKATARITZA SOZINETATE MERKATAL ERREGISTROAN INSKRIBATU BEHARKO DA.**

#### IV.3.2.3.- Sozietate izendazioa

Sozietate bat sortzen dugunean, izen bat eman behar diogu: Era objektiboan: jarduerarekin lotura duena. Era subjektiboan: bazkideen izen-abizenak. Jatorrizko era: sozietateak asmatutakoa, ezerekin zerikusia ez duena. Izeneztapena hautatzeko, legeak askatasuna ematen du, baina bi baldintza hauek beti bete beharko dira:

1. Izeneztapenak berria izan behar du. Merkatal Erregistroan jada inskribatuta dagoen edo egon den izeneztapen bat ezin da erabili. Egokiena Merkatal Erregistroari zerrenda bat bidaltzea da, hierarkia-preferentzia batekin. Ezezko ziurtagiriak Erregistro Zentralak eman beharko luke.

2. Izeneztapenean, izenaz gain, sozietatea identifikatzeko izen bat jarri behar da.

Legeak kasu honetan laburdurak erabiltzea onartzen du. Adibidez, NOKIA S.A, NOKIA Sozietate Anonimoa, etab.

Aipatzekoa da ere erregistroak ematen duen ezezko ziurtagiriak epaile batek berretsia izan behar duela. Ezezko ziurtagiria jasotzearen kausa nagusienak izena erabat berdina izatea edo/eta erabiltzen diren hitzak berdinak direnean baina ordena ezberdina denean.

Muga horiek, batez ere, nahasketak eta konkurrentzia desleiala saihesteko egiten dira.

Horren ildotik, MARKA LEGEA daukagu. Zer esaten digu marka legeak kasu honetan? Ez da onartuko merkatalen merkatal izen moduan beste enpresari baten marka berdina izatea.

Berezi behar da Elkarteen Legea eta Marka Legea aspektu honetan:

Elkarteen Legea: berdintasun egoera soilik aipatzen du.

Marka Legea: berdintasuna eta antzekotasuna: esangura zabalagoa. Sortzen denean sozietate bat erregistro ezberdinak daude datuak inskribatzeko. Gatazkak egotekotan izena jartzerako orduan, ikusi beharko dugu zer esaten duten legeriek.

Marka Legeak adierazten du beranduago sortu denak aldatu beharko duela izena eta erregistrotik ezabatu beharko dela, nahiz eta hori errealitatean ez gertatu.

Merkatal Erregistroa: ziurtagiria behar da (ezezko ziurtagiria), berdintasun egoera galarazten duena. Antzekotasun egoera dagoenean enpresaria demanda ipintzeaz arduratuko da.

#### IV.3.2.4.- Naziotasuna eta helbidea

##### IV.3.2.4.1.- Naziotasuna

Sozietateek edo edozein enpresak naziotasuna behar du, hau da, identifikatu behar da nongoa den. Europar Batasuneko elkarteak bi irizpideren arabera hartuko dute naziotasun bat edo beste bat: sortze-tokiaren arabera edo helbide-tokiaren arabera.

Gure kasuan irizpide bakarra hartzen da kontuan: helbide-tokiarena. Espainian naziotasuna helbideen arabera finkatzen da. Legeak obligazioa ezartzen du helbidea adierazterakoan: bere merkataldegi printzipala lurralde nazionalean badago, bere helbidea estatuan ezarri beharko da. Naziotasunak ere elkarteon legeria finkatzen du.

Elkarteen jabeak edozein lekutan ezartzeko aukera dauka, baina naziotasuna galtzeko arriskuan egongo litzateke.

Helbidea aldatzen denean, zeri erreparatu behar diogu:

Egitura aldaketan legea: Helbidearen aldaketa naziotasunaren ondorioa dakar. Helbidea aldatzeko Batzar Orokorra bildu behar da. Ezezko botoa ematen duten bazkideak elkartetik alde egin dezakete.

##### IV.3.2.4.2.- Helbidea

Elkartea edo sozietatea bera enpresaria denez, helbide bat beharrezkoa du. Helbideak finkatzeko bi irizpide daude:

1. Bere administrazio edo zuzenbide gunea dagoen tokia.
2. Bere merkataldegi edo ustiakuntza dagoen tokia.

Gerta liteke elkarteak irizpide horiek biak ez erabiltzea eta hirugarren toki bat helbide gisa ezartzea; hori posiblea da, baina ondorio zuzen bat du: hirugarrenek hobeto datorkien lekua aukeratuko dutela. Horrez guztiaz gain, elkarteak nongo auzitegia erabiliko duen adierazi

beharko da ere. Gainera, kontuan hartu behar dugu gure kasua, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua, helbidearen arabera, ikusiko dugu non ordaindu beharko diren zergak (?).

#### IV.3.2.4.3.- Sukurtsalak

Helbideekin batera sortzen den kontzeptua dugu. Sukurtsal kontzeptua ez dago behar bezala arauturik eta arau bakarra merkatal erregistroaren erregelamendua da. Baina, zer da? Establecimiento secundario de la empresa, que goza de autonomía organizativa, aún cuando puede mostrar cierto grado de dependencia con respecto al principal, que puede o no estar ubicado en la misma localidad. A su frente puede estar un factor, que en todo caso opera por cuenta del empresario. / Establecimiento comercial o industrial que depende de otro llamado casa matriz o central. Se trata de dos establecimientos distintos

Hori kontuan hartuta, guk, gure hitzekin, definizio bat emango diogu: Sozietatearen toki bat da, sozietateak horren jabegoa izanik eta helbidearen (sozietate nagusiaren helbidearen) menpe dagoena. Beste hitzetan ere, elkarteak edo sozietateak duen bigarren mailako tokia, eratorrizkoa. Azpimarratzekoa da sukurtsalak nolabaiteko burujabetasuna duela ikuspuntu juridikotik, jarduera asko burutzen baitira horietan, baina beti men egin beharko du sozietate nagusiak ezartzen dizkion arauak. Sukurtsalaren kasuan, arautegia ez da oso zehatza, esan dugunez. Sozietateak erabakitzen du sukurtsalaren kokapena. Merkatal Erregistroan inskribatu beharko dira:

~ Sozietatearen helbideari dagokiona.

~ Sukurtsalaren tokiari dagokiona.

Europar Batasunak ematen duen aukera bat hurrengokoa da: Elkarte bat eratu beharrean, sukurtsalak era daitezke. Adibidez, beste estatu bateko elkarte batek, Espainian sukurtsala era dezake soilik, elkarte bat ezarri beharrean. Beste adibide bat Caja Madrid daukagu: enpresa edo sozietatea Madrilen kokatuta dago baina Espainian zehar, probintzietan, sukurtsalak izaten ditu.

#### IV.3.2.4.4.- Webgunea

Gaur egun, ia sozietate guztiek, eta bereziki Burtsan kotizatzen dutenek, web orrialde bat izaten dute. Web orrialdeek honako betekizun hauek bete behar dituzte:

1. Merkatal Erregistroan inskribatu behar da eta Merkatal Erregistroko Buletin Ofizialean argitaratu.
2. Web orrialdera sartzeak dohainik izan behar du eta bertan dauden agiriak jasotzea ere.
3. Web orrialdeak barne-arautegi bat sortu behar du eta sistema horren egiaztapena beharko du.
4. Bazkideek onartu beharko dute informazioa web orrialdean publikatuko dela.

#### IV.3.2.5.- Fundazio-eraketa



Orokorrean, ezkerrean agertzen den irudiaren prozedura jarraitu ohi da sozietate baten eraketa aurrera eramaten denean. Bi eraketa-modu daude: aldibereko eraketa eta hurrenez hurreneko eraketa. Nagusia lehena da, baina biak aztertuko ditugu, sakonki aldiberekoa ikusiz.

## A MODUA: ALDIBEREKO ERAKETA

Une bakar batean sortutik geratzen da sozietatea. Une bakar batean sozietatea sortzeko kontratua notarioaren aurrean sinatzen da eta eskritura publikoan jartzen da. Hauek dira eman beharreko pausuak.

### 1. ESKRITURA PUBLIKOA

Sozietatea sortu nahi duten kideek sinatzen duten agiria da, beren borondatea adieraziz. Gutxienezko eduki bat izan behar du, legeak ezartzen duena (gutxienez izan behar dituen aipamenak): Nortzuk diren pertsona fisikoak (kideak): kontratukide edo elkartearen bazkideen nortasuna, nortzuk diren fundatzaileak... (izen abizenak eta datuak).

Sozietatea sortzeko borondate zehatza edo espresua (borondate dutela sozietatea eratzeko). Egiten dituzten ekarpenak (dirua, ondasunak)... Sozietatearen kapitala eta bazkideek egingo dituzten ekarpenak. Jasotzen dituzten akzioak edo partaidetzak (kapitalaren ordainetan). Ezarri behar da nortzuk izango diren sozietatearen administratzaileak: nahitaez administratzaileak egon behar dira, bestela sozietateak ezingo du funtzionatu. Elkarrearen Estatutuak: Elkarrearen jardueraren barne-arautegia (honen bitartez konponduko dira sortuko diren arazoak). Hau eskritura publikoaren aipamen gehigarria da. Legeak gutxienezko edukia finkatzen du, baina posiblea da, bazkideen borondatearen kariaz, elementu gehiago azaltzea.

- ~ Elkarrearen izeneztapena. S.An eta E.M.Setan askatasun forma dago: subjektiboa (bazkideen izen abizenak), objektiboa (jarduerari dagokiona), fantasiakoa (asmakizun hutsa, hala nola "El Corte Inglés").
- ~ Bazkideak nortzuk diren.
- ~ Zein den kapitala.
- ~ SA bada, ekarpena osorik eginda dagoen ala ez adierazi behar da.
- ~ Ekarpena osorik eginda ez balego, aipatu behar da litzateke zein den ordaintzeke geratzen den kopurua eta noiz ordainduko litzatekeen.
- ~ Akzio edo partaidetasunen balioak (nominala, benetakoa...).
- ~ Sozietatearen ekitaldia: aipatzen ez bada, ohizko urtea dela suposatuko da.
- ~ Elkarrearen helbidea. Legeriak sozietateari bi irizpide ematen dizkio:  
bere administrazioa edo zuzendaritza dagoen lekuan / bere merkataritza gunea duen lekua.
- ~ Elkarrearen jardura.
- ~ ...

### NORTZUK DIRA FUNDATZAILEAK?

Eskritura publikoan sinatzen dutenak, bazkideak eta sozietatearen akzioak jatorriz jasotzen dituztenak. Horrekin batera, legeriak ezartzen du fundatzaileek eskubide eta obligazio batzuk dituztela.

-Obligazioak: Fundatzaileek eurek adierazitako ekarpenak egiteko obligazioa dute.

Horrez gain, ekarpenen balorazioa ere beren erantzukizuna da, ekarpenari emandako balioa erreala den ala ez ziurtatzea. (dirua denean balorazioa ez da egin behar).

+Eskubideak: Merkatuaren alde norbait zerbait egin du. Horiek fundatzaileak dira eta euren ezartzen zaie saria -> haiek ezartzen diete euren buruei. Legeak abusu arriskua egon daitekeela adierazten du eta kontrola egin behar dela dio:

Estatutuetan aipamen espresua egon behar da.

Ordainketa ezin da boto eskubidea izan, ekonomiaren esparrukoa baizik.

Gehienez fundatzaileen ordainketa balantzearen netoaren arabera %10a ezingo du gainditu, zergak eta abarrekoak ordaindu ostean.

Gehienez fundatzaileek 10 urteko eskubideak izatea. Ordainketak ezin dira akzio bidezkoak izan.

## 2. NOTARIOAREN AURREAN ESKRITURA PUBLIKOA EGIAZTATU

### 3. ERABAKI EDO AKORDIO PARASOZIETARIOAK

Eskritura Publikoa eta estatutuez gain, beste puntu hau kontuan hartu behar da.

Eskritura publikoak eta estatutuek eragina dute elkartean eta hirugarrenen aurrean; erabaki parasozietarioak, ordea, akordio pribatuak izaten dira eta horregatik esaten da hirugarrenen aurrean ez dutela inolako eraginik. Egoera honetan, erantzukizun erregimen bat ezartzen da akordioa egitean. Jakin behar da akordioak ez direla inoiz eskritura publikoan ez eta estatutuetan agertuko. Paktua, bestalde, sekretua edo publikoa izan daiteke.

Legeak sekretua izatea onartzen du.

Salbuespen kasuak daude: Burtsan kotizatzen duten sozietateen kasuan, paktuak publikoak egin behar dira, euren web-orrialdean publikatuz.

### 4. MERKATAL ERREGISTROAN INSKRIBATZEA

Behin sozietatea Merkatal Erregistroan inskribatuz, benetan existituko da eta bere jarduera burutu ahal izango du. Honen esparruan, bi egoera erreal ditugu:

1.egoera: Eratzear dagoen elkartea: Eskritura publikoa ematen den datatik hasita, inskripzioa egiten den unera arte, gehienez urtebete pasa daiteke.

~ Harremanak egiten dituztenek erantzukizun solidarioak izango dituzte.

~ Harreman batzuk beti egongo dira elkartearen erantzukizunpean, baita eskritura publikoan agertzen diren harremanak ere. Elkarteak inskribatu eta zuzenean jasoko dira harremanak egin dituen izenean, eta horretatik hirugarrenen babesa sortzen da.

2.egoera: Elkarte irregularra: Eskritura Publikoa ematen denetik urte bat pasatzen bada eta ez bada Merkatal Erregistroan inskribatu. Kasu honetan, suposatzen edo/eta frogatzen da ez dagoela sozietatea sortzeko asmorik eta, noski, ondorioak sortzen dira.

~ Edozein bazkidek elkartearen desegitea eska dezake.

~ Ekarpeneren bueltatzea eska dezake ere.

~ Elkartetik alde egiteko eskubidea dute.

### B MODUA: HURRENEZ HURRENEKO FUNDAZIOA

Hurrenez hurreneko fundazioa soilik Sozietate Anonimoetan ematen da, Erantzukizun Mugatuko Sozietateak aldi bereko eraketa soilik erabil dezakeela adierazten duena. B modu hau gutxitan ematen da, gaur egunera arte sortu diren S.A guztiak aldibereko fundazio gisa sortu dira-eta.

Hurrenez hurreneko eraketaren kontzeptua: Elkarteak epealdi ezberdinetan eratzen da, gutxienez 6 hilabete iraunez.

#### IV.3.2.6.- Bazkide-izaera

Bazkide izaera fundatzaileek duten egoera berezia edo nortasuna da. Elkartearen kontratu eta eskritura publikoan sinatu duenari esaten zaio fundatzaile. Fundatzailea, gero, elkartearen jatorrizko bazkidea bihurtuko da. Honako ezaugarriak ditu;

Eskritura publikoan parte hartzen du. Kontratukide izaera izango du kontratu bat sinatu duelako.

Jatorriz akzioak jasotzen ditu, beraz, jatorrizko bazkidea izatera pasatuko da.

Fundatzailearen bazkide-izaera bi eraketen arabera da.

Aldibereko eraketan: elkartea sortzeko asmoa duena eta lehen akzioa harpidetzen duena da. Kontratukidea izango da, elkartearen bazkidea eta fundatzailea aldi berean.

Hurrenez hurrenko eraketa: eragilea esaten zaio. Elkartea sortzeko programa eratzen duena da, baina ez da elkartearen bazkidea izango, ez ditu ezta akzioak erosiko.

##### IV.3.2.6.1.- Akzio-partaidetza, kapitalaren zati gisa

Akzio-partaidetza ekarpenetatik sortzen da: dirutik, ondasunetik edo diruz baliagarriak diren eskubideetatik S.A edo E.M.S bada. Jakin badakigu Sozietate Anonimoetan hasieran egin behar den gutxienezko ekarpena %25ekoa dela. Hori gutxienezko ekarpena da eta estatutuen bitartez kopurua handitu daiteke. Ordaindu gabe geratzen den zatiari dibidendu pasiboak deritza. Hori balantzearen pasiboan doa: atxikipen zifra bat da, hots, hirugarrenen aurrean berme edo garantia zifra.

DIBIDENDU PASIBOA: Ekarpene bat egiten denean, eta gutxienezko ordainketa egiten denean, ordaintzeke geratzen den kopuruari esaten zaio. Sozietate Anonimoetan, 60.000 euroko ekarpena egin behar da eta gutxienezko 15.000 euro dira. 15.000 euro horiek ordaintzen badira, ordaintzeke geratzen diren 45.000 euroak dibidendu pasiboak izango lirarteke. Esan bezala, akzioek, kapitalaren zati osagarri gisa, hiru balio dute:

1. Balio nominala
2. Benetako balioa
3. Merkatuko balioa

Hasiera batean, ekarpenek akzioak berdintzen dituzte (ekarpenak=akzioak), ez daude-eta irabazirik ez eta galerarik. Baina gerta liteke ekarpena akzioaren balioa baino handiagoa izatea (ekarpena>akzioa); horiek salbuespen kasuak dira soilik eta beti estatutuetan adierazita egon behar dira. Horien adibiderik argiena primazko akzioak dira: prezioaren gainean emititutako akzioak dira, balio nominalaren gaineko prezio batean merkaturatzen direnak.

Akzioak ekarpenen ordean eta ordainez jasotzen dira, hori jadanik badakigu. Kapitala eta ondarea kontzeptu ezberdinak dira ekarpenaren arabera. Estatutuen bitartez, kapitala gehi daiteke. Kapitala, azken batean, atxikipen zifra bat da. Ondarea kapitala eta erreserbak baino handiagoa izan behar da. Hori horrela ez bada, ezin izango dira dibidenduak bazkideen artean banatu. Normalean kapitala eta ondarea berdina izatekotan, sozietatea sortzen denean izango da, irabazirik eta galerarik ez daudelako.

##### IV.3.2.6.2.- Akzio-partaidetza, bazkide izaeraren adierazle gisa

Ekarpinak: Sozietate Anonimoan, gutxienez ordainketa %25ekoa izan behar du eta Erantzukizun Mugatuko Sozietatean %100a. Ekarpina egiten denean, badakigu ezin dela lana ekarpen gisa eman. Hauek dira ekarpen motak: Dirua denean: eurotan ezarri behar da eta beste moneta batean egiten bada, alde zuzenetik eurotan bihurtu beharko da.

~ Nola egiten da ekarpina? Notario baten aurrean egiten da, horri diru kopurua eskuz edo txeki bat eman. Bigarren modu bat izango litzateke finantzaketa moduan, kontu korronte batean. Notarioari ziurtagiri bat eman beharko zaio banku bidez egiten bada.

Ondasunak edo diruz baliagarriak diren eskubideak direnean: bazkideak edo kontratugileak arduratu beharko dira ekarpen horiek adierazten den balioa dutela.

IV.3.2.6.3.- Akzioa, balore higikor gisa. Akzioen dokumentazioa eta ordezkaritza

#### EKARPEN MOTAK ETA EUREN ARAZOAK (?)

Diruz baliagarriak diren eskubideak: diruzkoak ez direnean sortzen dira arazoak kasu honetan (noski, dirua ez delako). Benetako balioarekin daukagu arazo nagusia: zenbat balio dute ekarpen horiek? Bere benetako balioa esleitzen ari zaie?

→ ARAZOA: Balioztapena.

→ Esaten duguna da bere balioa. Bertan ez dago arazorik: Balio nominala.

→ Benetako balioa handiagoa denean ekarpen horri ematen zaiona baino ( $B.B > \text{Ekarpeneren balioa}$ ), kaltetua bazkidea izango da, jasotzen ari dena merezi duena baino gutxiagoa delako.

→ Benetako balioa txikiagoa denean ekarpenari ematen zaiona baino ( $B.B < \text{Ekarpeneren balioa}$ ), kaltetua elkartea da. Horrez gain, bazkide batzuk ere kaltetu suertatuko dira, beste batzuek baino gehiago eskaini dutelako. Azken batean, kaltetua bazkidea da, elkartea bazkidez osatuta dago eta. Bazkideok elkartearen kontrako demanda bat jar dezakete.

Berrito ere ondasun edo diruz baliagarriak diren eskubideekin sartuko gara. Ekarpeneren balioa jasotzen diren akzioen balioaren berdina izan behar da, hau da, proportzionala izan behar du egiten den ekarpenak jasoko den akzioen balioarekin. Baina, berrito ere, arazoak agertzen dira:

→ ARAZOAK:

→ Ekarpeneren balioa  $>$  akzioen balio nominala: egoera honetan kaltea bazkideak jasotzen du, merezi duena baino gutxiago jasotzen duelako.

→ Ekarpeneren balioa  $<$  akzioen balio nominala: egoera honetan elkartea jasotzen du kaltea, bere balioaren gaineko kopurua eskaintzen ari delako.

Honek ondorioak sortzen ditu:

~ Hartzekodunek: ikusten dute elkartearen benetakoa ez den kapitala dagoela, benetakoa ez den garantia bat.

~ Gainerako bazkideek: abantaila dute, gutxiago ordainduz edo eman, gehiago jasotzen dute.

Horren aurrean legediak arauak finkatzen ditu:

Kaltetua bazkidea denean: berak eskatu beharko du bere ekarpenarekiko proportzionala den eta jasotzeke duen zatia; hau da, bera arduratu beharko da demanda jartzeaz: SIBI IMPUTET\*.

SIBI IMPUTET: Impútese a sí mismo. Expresión que significa que cada cual debe imputarse a sí propio las consecuencias de los actos que ha ejecutado o de las omisiones en que ha incurrido.

Kaltetua elkartearen denean; ekarpena diruz ez egitean, aditu baten txostena ezarri behar da, non ez-diruzko ekarpenaren balorapena agertuko den, batik bat. Txostenean agertzen den balioak eskritura publikoan agertzen den berdina izan behar du.

Salbuespenak daude: Burtsan kotizatzen duten sozietateak. Ekarpina egitean, aditu batek txostena egin beharrean, sozietate horretako administratzaileek egin behar dute.

## INFORMAZIO GEHIGARRIA ADITU TXOSTENEI BURUZ

Elkarteari dirua ez den ekarpena egiten zaionean, aditu txosten bat behar da, non aditua(/e)k Merkatal Erregistroan inskribatzen txostena, hurrengo aipuak egin behar ditu(zt)en:

Ekarpenaren balioa (zenbatekoa den).

Ekarpenaren jatorria (nork egiten duen).

Gauza gehigarriak eta eskubideak.

Kasu guztietan ez da beharrezkoa aditu txosten bat, beste txosten batzuk egiten badira, hala nola.

Burtsan kotizatzen duten sozietateentzat, non administratzaileek egindako txosten bat behar den.

Ekarpenen balioa gutxitzen bada, estarizko akatsak daude; erantzukizuna ekarpena egin duen kideak izango du eta berak bete beharko du ekarpenaren balio osoa.

Elkarteak ez du inoiz kalterik izango.

Ebikzio kasua: zuzenbidearen egoera berezia da. Ebikzioa izateko epaile baten sententzia bat behar da. Baina, zer da ebikzioa? Gai baten jabegoa beste kide bati dagokiola adierazten denean. eko definizioa: "Pérdida de un derecho aparente de una persona sobre una cosa a causa de la existencia de un derecho de un tercero sobre esa misma cosa". Horren ondorioa zein da? Demagun, guk ekarpen bat egiten diogula elkarteari, eta beste batek demanda bat jartzen digu ekarpen hori berari edo beste pertsona bati dagokiola alegatuz. Epaileak horri arrazoiak ematen badiot, ekarpenaren jabea izateari utziko diogu eta zuzenean ondorioak agertzen dira: elkarteak jabegoa galduko du (bazkidea elkartearen elementu delako) eta hutsune bat edukiko du -> Guk bazkideok ekarpen hori diruz egin beharko dugu.

Kasu horietan ikusten dugu elkarteak ez duela inolako kalterik jasotzen ekarpenetatik, bazkideak edo hirugarrenak direla hain zuzen ere. Kontuan hartu behar dugu ekarpena bi modutakoa izan daitekeela:

1. Jabego moduan: bazkidea hasieran egiten duen ekarpenaren jabea da, baina horrez geroztik, elkartearen gauza edo ekarpen horren jabe bihurtzen denean.

2. Erabilera moduan: Kasua ezberdina da: bazkidea hasieran egiten duen ekarpenaren jabea da, baina horrez geroztik, elkartearen ez da horren jabe bihurtzen, bazkideak erabilera soilik lagatzen dio. Horren ondorioz, bazkideak elkartetik alde egiten badu, berarekin eramango du.

Eta, nola jakingo dugu ekarpena zein modutakoa den? Inolako aipamenik egin ez bada, zuzenean jabego moduan egin dela adieraziko da; aitzitik, erabilera moduan ekarpena egin nahiko balitz, espresuki adierazi beharko litzateke.

#### DIBIDENDU PASIBOEN ORDAINKETA

Kontuan hartu behar dugu Sozietate Anonimoetan gutxienezko ekarpen bat egin daitekeela, %25ekoa, alegia. Gero, ordaintzeke geratzen den kopurua dibidendu pasiboa da. Noiz eta nola ordaintzen dira? Hori beti Estatutuetan espresuki adierazita egon beharko da sozietatea eratzen den unean. Bere ordainketa modu ezberdinetan egin daiteke.

##### a) NOIZ?

Epealdi finko batean ordaindu beharko da, data zehatz bat adierazi beharko da ordainketa burutzeko. Sozietatearen administratzaileek eskatzen dutenean, ordaindu beharko da, haiek baitira sozietatearen egoera ezagutzen dutenak eta hobekien datorkiona. Normalean ekarpenak diruz egiten dira, baina horrela ez egitekotan, ohiko epealdia 5 urte baino gutxiago izan ohi da. Behin 5 urte horiek pasata, administratzaileek ezingo dute dibidendu pasiboen ordainketa eskatu.

##### b) NOLA?

Ondasunez edo diruz baliagarriak diren eskubideez egiten denean ekarpena (dibidendu pasiboaren ordainketa), gehienez 5 urte edukiko da hori burutzeko. Dibidendu pasiboa eskatzen denean eta bazkideek ez dutenean ordaintzen, luzakeri (morosidad) egoeran egongo dira. Horren kariaz, bazkide izaerak dituen eskubideak galduko ditu (boto eskubidea, lehentasunez harpidetzeko eskubidea, Batzar Orokorrera joateko eskubidea...). Beste ondorio bat izango da sozietateak dibidendua eskatzeko eskubidea izango duela eta horrek sortutako kalte-galeren ordaina.

#### GEHIGARRIZKO PRESTAMENAK

Gehigarritzko prestamenak kontzeptu finkoa da: estatutuetan bazkideei eskatzen zaizkien ekarpenez gaineko gauza gehigarriak dira. Ekarpen kontzeptuarekin lotuta dago, baina gauza gehigarri hauek ez dira kapitalean sartuko.

Ekarpena zuzenean kapitalera doa eta gehigarritzko prestapenek beste helburu batzuk izango dituzte. Gehigarritzko prestamenak Estatutuetan espresuki adierazi beharko dira. Batzuetan, orokorrak izan beharrean, bazkide bakoitzak berea izango du; beraz, subjektuak, kasu horietan, adierazi beharko lirateke.

Edukia eta erregimena estatutuetan egon beharko da aipatuta: zer da egin behar duena bazkideak? Erregimenaren edukiak, oro har, honelakoak izan beharko dira:

~ Baiezko obligazioak: enpresaren alde egin beharrekoak.

~ Ezezko obligazioak: enpresaren kontra zerbait ez egitea. Bazkideen akzioetan adierazi beharko da gehigarritzko prestamenak daudela. Horregatik, akzioak nominatiboak (laster ikusiko ditugunak) izan beharko dira.

Gehigarritzko prestamenak ordainduak ala dohainekoak izan daitezke. Ordainduak izateko estatutuek aipatu beharko dute zenbatekoa eta nolakoa den; aipatzen ez bada, bestalde, dohainezkoa dela suposatuko da, legeak dioenez.

#### AKZIOAK ELKARTEAREN ARABERA (akzio motak)

1. Egin behar dugun lehenengo aipamena akzio nominatibo eta eramailearentzako akzioak dira, aurrez esan dugun moduan.

AKZIO NOMINATIBOAK: Jabea duten akzioak dira, hots, izena daramatenak. Kasu honetan jakin badakigu nori dagokien akziook.

ERAMAILEARENTZAKO AKZIOAK: Anonimoak dira, ez dute izenik. Bakoitzak frogatu beharko du berea dela.

2. Akzioak titulu gisa edo kontu oharpen gisa (adierazteko formak dira) TITULU GISA: Titulu gisa bada, fisikoki dagoen agiri bat da. Legeak adieraziko du zein den agiri horren edukia. (Documento en el que se incorporan y representan los derechos y obligaciones del socio de una entidad jurídica por el que se facilita la transmisión y ejercicio de tales derechos. El título-acción puede ser nominativo o al portador.)

KONTU OHARPENEAN: Zenbaki bat baino ez da, fisikoki ez dagoena, ez dago agiririk. (La anotación en cuenta es una forma de representación de títulos valores, cotizados o no en Bolsa, en la que éstos son identificados en registros contables especiales, generalmente por sistemas informáticos; este sistema permite la supresión del soporte de papel)

3. Kopuru akzioak edo kuota akzioak

KOPURU AKZIOAK: Zuzenean bere balio nominala ezarrita dutenak dira. Eurotan adierazi ohi dira. Suma akzioak moduan ere ezagutu ohi dira.

KUOTA AKZIOAK: Zuzenean balio nominala ezarrita ez duten akzioak dira. Normalean, akzio hauek legez kontrakoak dira.

\*Split Kasua: Akzio gehiago sortzen dira balio nominala zatituz (ikus hurrengo adibidea). Akzio batetik akzio bat baino gehiago ateratzean datza, azken batean; horretarako, balio nominal txikiagoa duten akzioak sortuz. Elkarrekin kapitala handitu beharrik gabe, bazkide gehiago lortzeko eta horrela elkarrekin kontrola errazagoa izateko tresna lagungarria da.

4. Akzio askatuak edo askeak eta akzio ez-askatuak

AKZIO ASKEAK EDO ASKATUAK: Guztiz ordainduta dauden akzioak dira, hau da, dibidendu pasiborik ez dutenak. Eskualdaketa posiblea da kasu honetan.

AKZIO EZ-ASKATUAK: Osotasunean ordaindurik ez dauden akzioak dira, hau da, dibidendu pasiboak dituztenak. Eskualdaketa ez da posiblea.

5. Primazko edo primadun akzioak

Akziodun berriak sortzen direnean eta benetako balioa baino gutxiago ordaintzen dutenean, desoreka hori oreka dadin: Primazko Akzioak sortzen dira.

Ordainketa/Ekarpenaren balioa > balio nominala izan behar denez, hori gertatu ezean, primazko akzioak sortuko lirateke. Akzio mota hauek egoteko baimena sozietatearen estatutuetan aipaturik egon behar da.

Gazteleraz azalduta baina oso ondo, hurrengoan:

Normalmente entramos a valorar esta prima cuando una empresa ya constituida decide ampliar su capital inicial

permitiendo la entrada de nuevos socios. Es decir, cuando una compañía quiere aumentar su negocio y, para ello, pone a la venta nuevas acciones. En este sentido, los inversores iniciales pueden decidir que estas acciones sean a la par, esto es, que tengan un precio idéntico a su

valor nominal (que fue el que pagaron ellos), o bien fijar un sobreprecio o prima sobre cada acción. A este sobreprecio se le conoce como prima de emisión. La prima de emisión total que han desembolsado los accionistas figura en el balance de la empresa como reserva, una vez ha finalizado la operación.

Zenbat ordaindu behar dute akziodun berriek? PREZIOA = Balio nominala (%25 ordainduta nahiko izan daiteke) + Emisio prima (%100ean izan behar da).

De este modo, el desembolso que corresponde a los nuevos socios consiste en la suma del valor nominal de la acción (pongamos 2 euros) más la prima de emisión fijada por los fundadores (1,5 euros). En este caso, el total que deben pagar los nuevos accionistas por cada acción es de 3,5 euros.

### BAZKIDE IZAERAK DAKARTZAN ESKUBIDEAK

Akzioek bazkide izaera ematen diote pertsonari. Orduan, akzioak dituen elkarte baten bazkidea izango da. Horrez gain, partaidetzek ere ematen dute bazkide izaera eta eskubide batzuk ere bai. Eskubide horiek orain aztertuko ditugu, hiru talde nagusitan sailkatuko ditugularik.

#### 1. ONDARE- ETA EKONOMIA-IZAERA DUTEN ESKUBIDEAK

a) Irabazietan parte hartzeko eskubidea eta korbona eskubidea: Elkarte edo sozietate bakoitzak ekitaldi ekonomikoaren amaieran emaitzak izaten ditu, eta emaitza horiei buruz erabaki batzuk hartu behar dira, Batzar Orokorraren bitartez.

Normalean, sozietateak izaten dituen irabazien zati bat bazkideei ematen zaie.

Baina eskubide hau zehaztugabea da; sozietateak irabaziak ez banatzea erabakitzen badu (noski, Batzar Orokorraren bidez), bazkideek ezin izango dituzte eskatu.

Horregatik esan ohi da eskubide hau abstraktua dela. Baina hori alda daiteke: korbona eskubidea ager daiteke. Zer ote da hori? Sozietatea konprometitzen denean jaso dituen irabazi guztiak, edo zati bat, bazkideen artean banatzera; modu horretan, bazkideek segurtatuta dute euren zati proportzionala irabazien arabera. Zer gertatzen da sozietateak irabazi horiek ez dituen banatzen korbona eskubidea egonez? Sozietatearekiko kreditu-kobro eskubidea dutenez bazkideek, demanda bat jar diezaiokete.

b) Likidazio-kuotan parte hartzeko eskubidea: Kasu hau elkartearen egoera berezia da. Likidazio egoeran dagoen enpresa desagertze-prozesuan dago. Likidazio egoeretan egin behar den lehenengo gauza kredituak kobratzea da eta gero zorren ordainketa. Prozedura hori behin burututa, begiratu beharko da ea oraindik zerbait geratzen den; zerbait geratzen baldin bada, bazkideen artean banatu beharko da: hemen sortzen da likidazio kuotan parte hartzeko eskubidea. Jasoko duena kapital kopuruaren arabera izango da, kapitalaren duen zatiaren arabera. Kontuan hartu behar dugu hau guztia estatutuetan idatzita egon behar dela, eta elkarte bakoitzak bere irizpideak finka ditzakeela.

c) Lehentasunez harpidetzeko eskubidea: Eskubide honek, noski, akzio edo partaidetzekin zerikusia du. Egoera hau sozietate baten kapitala handitzen denean ematen da. Bazkideak aukera izan behar du bere akzioen edo partizipazioen balio izendatuaren eta sozietatearen kapitalaren arteko proportzioari eusteko. Hau da eskubide honen oinarria. Eskubide hau ukagarria da, eskualdagarria eta indargabegarria batzar orokorraren erabakiaren bidez, baldintza zehatz batzuetan.



Demagun hasierako kapitala 100 dela eta hiru bazkide daudela. Hor akzio berriak aulkiko dira eta akziodun berriak agertuko dira. Kasu honetan, akziodunen akzioen balioa jaisten da; baina desoreka hori konpontzeko, akzio berriak harpidetzeko lehen zeuden akziodunei eskubidea emango zaie: lehentasunez harpidetzeko eskubidea. Hala eta guztiz ere, gerta liteke bazkideek eskubide hau ez erabiltzea.

Zer gertatzen da kasu horretan? Beti begiratu beharko da gehikuntza-akordioa; normalean, bazkideren batek eskubidea ez badu erabiltzen, eskubidea erabili dutenei eman ahal die edo zuzenean hirugarrenei eman.

Horretarako epealdiak finkatzen ditu legeriak: Burtsan kotizatzen duten sozietateentzat 15 egun eta kotizatzen ez dutenentzat hilabete bat.

## 2. EGINKIZUN- ETA POLITIKA-IZAERA DUTEN ESKUBIDEAK

a) Batzar Orokorretara joateko eskubidea eta bertan parte hartzeko eskubidea. Bazkide orok, estatutuetan kontrakoa adierazi ezean, batzar orokorretara eta bertan parte hartzeko eskubidea du. Batzar orokorra sozietatearen organoa da eta horri buruz erabakiak hartzen dituena. Normalean, arazo bat egon ohi da: aurrez aipatu dugun moduan, bazkide guztiek batzar orokorretara joateko eskubidea daukate, bai, baina arazoa dagoenez eta arazo hori toki fisikoaren muga denez, sozietateak mugatu ohi du batzar orokorretara joan daitezkeen bazkideak. Muga hori gutxienezko kapitala da; gutxienezko kapital hori kapitalaren %5a da. Aurrerago aipatuko dugun moduan, bazkideek euren akzioak elkar ditzakete %5era heltzeko, baina gero horietariko bat bakarrik joan ahal izango da.

b) Boto eskubidea. Batzar orokorrean sozietatearen auziei buruzko erabakiak hartzen dira. Bazkideek batzar horietan botoa emateko eskubidea daukate; normalean, bazkideak dituen akzio kopuruaren arabera izaten da: 12 akzio baditu, 12 boto eman ahal izango ditu. Baina legeak mugak ezartzen ditu, abusu-egoerak egoten direlako zenbaitetan. Orokorrean, mugak estatutuetan adierazita egon behar dira; adibidez: 120 boto ematea gehienez.

c) Informazio eskubidea. Aurreko bi eskubideetarako informazio behar da: "Zer bozkatuko dugu? Zeri buruzkoa da gaur egongo den batzarra? Zer eztabaidatuko dugu?". Horiek dira informazio eskubideak erantzuten dituen galderak, oro har. Batzar orokorrerako deialdia egiten denean, eztabaidatuko diren puntuak adierazi beharko dira: urteko kontuen onarpena, ikuskaritza eta auditoria txostenak...

Horrez gain, bazkideak batzar orokorretan jorratzen diren gaiei buruzko txostena eska dezake, edo azalpenak (horretarako batzar orokorrean bertan egon ohi da denbora-tarte bat galderak egiteko). Hori guztia kontuan hartuz, non egon behar du bazkideak jaso beharreko informazio guztia? Sozietatearen helbidean, web-orrialdean, bazkideen etxera bidaltzeko aukera dago ere (doan eta lehenbailehen), Burtsan kotizatzen duten sozietateek derrigorrezkoa dute informazioa web-orrialdean jartzea.

3. GAINERAKO ESKUBIDEAK (ikus eskema-liburuaren 201 orrialdeko V.5.4.4.atala) Ez dago irizpide bakar bat gainerako eskubideak finkatzeko. Aurreko eskubide guztiak ez diren eskubideak sartzten dira honen barruan, haien artean ez dutelako zerikusirik. Horien artean hauek egon daitezke: elkartetik alde egiteko eskubidea, elkarteari ziurtagiriak eskatzeko eskubidea... Baina hauek dira bazkideak partaidetasun edo akzioen bidez dituzten eskubideak. Honen barruan, bi aipamen daude: ohizko akzioak edo pribilegiozkoak. Zer ote da

pribilegio bat? Pribilegioak ez dira korritu bat edo boto eskubidearen arabera izango; aitzitik, pribilegioak korbonari atxikitzen zaizkio.

Oro har, sailkapen hau egin daiteke:

OHIZKOAK: bazkide eskubideak dituztenak besterik gabe.

PRIBILEGIOZKOAK: pribilegioak dituztenak. Pribilegio mota ezberdinak daude:

→ Irabazietan kopuru handia jasotzea (korbona eskubidearekin lotuta).

→ Likidazio kuotan kopuru handia jasotzeko eskubidea.

→ Eta beste batzuk.

## GUTXIENGOAREN KONTZEPTUA

Gutxiengoa, kapitalaren %5a duena izaten da. Jakin behar dugu oso zaila dela kapitalaren %5a lortzea enpresa handietan, oso sakabanatuta baitago. Esan dugunez, kapitalaren %5a lortzea oso zaila denez, legeak biltze-eskubidea legeztatzen du. Zeri deritzogu biltze eskubidea? Ezkerreko irudian ondo azalduta agertzen da.

Orokorrean, eskubide hauek dituzte:

1. Ez-ohiko batzarraren deialdia egiteko eskubidea eta bertan aztertuko diren gaien finkapena egiteko eskubidea.

2. Administrazio Kontseiluaren erabaki nuluak edo anulagarriak inpugnatzeko eskubidea.

3. Administrazioaileen kontra elkarte-erantzukizuna (kaltea elkarteari egiten zaionean) eskatzeko eskubidea. Eskubide hau ez da autonomoki egiten, prozedura bat beharrezkoa da:

a. Ez-ohiko batzarrerako deialdia.

b. Batzar orokorra egiten bada eta ezezko erabakia (administrazioaileen erantzukizunik ez dela egongo) adierazten bada, zuzenean auzitegietara joateko eskubidea dute.

c. Batzar orokorrean baietz erabaki bada eta ezer egin ez bada, 30 egun ondoren kontseiluak auzitegietara jotzeko eskubidea du (?).

4. Auditoria edo ikuskaritza eskatzeko eskubidea: Gutxiengoak eskatzen baldin badu, egin behar da, nahiz eta sozietatea beharturik ez egon. Gerta daiteke jada ikuskari bat izendatuta egotea baina bazkideak (adibidez, gutxiengoak) ez fidatzea horretaz; modu horretan, beste bat izendatzeko eskubidea dute (elkarte bat 20 auditore izatera hel daiteke): izendapen hori Merkatal Erregistroak egingo du.

5. Batzar orokorrean notarioa egotea eskaera egiteko eskubidea: notarioa badago, era berean, berak eramango du Akta. Eskubide hau EMSeetan, bazkideek %5a jarraitu behar dute izaten, SAetan %1arekin nahikoa den bitartean.

6. Sozietate Mugatuen kasuan, gutxiengoak urteko kontuak egiteko erabili diren agiriak eskatzeko eskubidea dute bazkideek.

7. Azken eskubidea, oro har, Sozietate Anonimoetan bereziki ematen da, eta hurrengokoa da: Administrazio Kontseiluko kideak proportziorako sistemaren bitartez izendatzeko aukera izatea. Aukera hori ematen zaio gutxiengoari, gutxienez kide bat izendatzeko.

## AKZIOAREN ORDEZKARITZA (kapital ordezkaria (?))

Legeriak akzioak ezarri edota izendatzeko bi modu adierazten ditu:

1. Agirien bitartez (tituluak)

2. Kontu oharpenen bitartez.

Sozietateak askatasuna dauka bi modu horien artean aukeratzeko; aldiz, Burtsan kotizatzen duten sozietateek kontu oharpenetan ezarri edo izendatu behar dituzte akziook. Posiblea izan liteke agiria (titulua) izan den akzioa kontu oharpen bihurtzea, baina ez alderantziz. Legeak adierazten du sozietateak aukeratzeko eskubidea duela bi akzio mota horien artean, bai, baina ahalmen hau kasu batzuetan mugatu egiten du; hauetan:

Dibidendu pasiboak daudenean Gehigarritzko prestazioen egoeran Akzioen eskualdagarritasuna murrizturik dutenak

Arautegi bereziak dituztenak; hala nola futbol-sozietateak.

Esan bezala, akzioak agirien edo kontu oharpenen bidez ezar daitezke; ikus ditzagun zeintzuk diren horien arteko ezberdintasunak.

#### AGIRIAK DIRENEAN

Akzioak agirien bitartez ezarrita daudenean, sozietateak bi aukera ditu: akzio nominatibo edo eramailearentzako akzioak izatea. Jakin behar duguna da agirien bitartez nola legitimatzen/frogatzen diren: hau da, elkarteari frogatu behar diogu gu bazkide garela.

1.legitimazioa: Eramailearentzako akzioa denean, akzioaren aurkezpena egin behar da, zuzenean erakutsi behar zaio elkarteari. Finantzaketa erakundeak agiri bat egingo du eta bazkideak elkarteari erakutsi beharko dio. Hemen arrisku bat sortzen da: eskubideak agiria bere eskuetan duenak erabili ahal izango ditu. Eskualdaketa nola egingo litzateke? Negozio bat egin beharko zen (kontratu bat, non notario batek fedea eman beharko lukeen) eta ondoren akzioa fisikoki jaso.

2.legitimazioa: Akzio nominatiboa denean, elkarrekin liburu erregistro bat izango du eta legitimitatea horrela lortuko da. Liburu erregistro horretan bazkideak inskribatuta egon behar dira; modu horretan, nahikoa da bertan inskribatuta egotearekin, ez da ezer erakutsi behar. Eskualdaketa nola egingo litzateke? Negozio bat egiteaz gainera, titular berriaren inskribatzea egin beharko zen liburu erregistroan.

#### KONTU OHARPENETAN DAUDENEAN

Kasu honetan, akzioa zenbaki bat baino ez da eskubideak edo ezaugarri jakiteko, agiririk ez dago. Akzioak sortzen direnean, beti sortzen dira Eskritura Publikoaren bitartez.

1.legitimazioa: zuzenean egiten da, balore erregistro batean inskribaturik, sistema elkartua deritzon, Burtsa guztiak lotzen dituen sistema da. NOMINATIBOAKBurtsan kotizatzen ez badu sozietateak, bazkideak nahi duen erakundearen legitimatzen da (normalean bankuan).

Nola egiten da eskualdaketa? Burtsako erregistroan akzioa ezabatu (zenbakia desagerrarazi) eta beste norbaiten kontuan agerrarazi. Gure esparrutik desagertzen da eta beste norbaiten aipamenean dago. Bestalde, Burtsan kotizatu ezean, zuzenean bankuko idazpenean izena aldatuko litzateke.

IV.3.2.6.4.- Akzioa, negozio juridikoen objektu gisa. Akzioen eskualdagarritasuna (eskema liburua 193.orrialdea)

Dakigunez, akzioak erabat negoziagarriak izan ohi dira: akzioak, azken batean, negozioaren objektuak, obligazioak edota edukiak bihurtzen direlarik. Segidan aipatuko duguna akzioei buruzkoa izango da, partaidetzetarako baliagarria ez dena. Akzioari buruz negozioak egin

daitezke, bereziki Burtsan kotizatzen duten akzioei buruz. Negozioak hainbat modutan egin daitezke: Askatasunezko negozioak: ez dago inolako mugarik; merkatuko arauak erabiliko dira, Murrizketen bitartez egiten diren negozioak: beti egongo da baldintzaren bat edo menpekotasunen bat negozioa burutzeko. Orokorrean, legeak akzioari eskualdagarritasuna ematen dio eta horretarako merkatu bat behar da, ohizko edo ofiziala. Eskualdatzeko eroslea behar da eta horregatik Burtsatik kanpo dauden sozietateen akzioek ez dute likidezirik. Aldiz, Burtsan erabateko likidezia dago, bertan sal daitezkeelarik. Goian aipatu bezala, legeak akzioen eskualdagarritasunean, hainbat murrizketa ezartzen ditu, orain aztertuko ditugunak.

#### IV.3.2.6.4.1.- Lege murrizketak

Zuzenean legerian bertan (orokorra edo berezia) adierazita dago nola egin behar den akzioen eskualdaketa: murrizketak eta prozedurak zehaztu ohi dira. Akzioak eskualdatu nahi izanez gero, jasotzailea ezin dela edozein izan adierazi ohi dute. Lege hauetan agertu ohi diren arauak Europar Batasunaren legeriaren aurkakoak izaten dira; modu horretan, geroz eta askatasun handiagoa dago -> erabateko eskualdagarritasuna ematen du.

#### IV.3.2.6.4.2.- Itun murrizketak

Paktu baten bitartez ezartzen dira hauek. Nortzuk finkatzen dute paktuak? Sozietate bateko bazkide batzuek, gehienek edo guztiek egin ohi dute. Helburuak ezberdinak izaten dira baina guztiek erabaki bat hartu behar dute, betetzeko prest daudena. Murrizketa hauek pribatuak dira, baina ez sekretuak: ondorioak eta eraginak paktu sinatzaileen esparruan geratu eta gertatuko dira. Aitzitik, Burtsan kotizatzen duten sozietateek paktu hauek erabat publikoak egin behar dituzte.

#### IV.3.2.6.4.3.- Estatutu murrizketak

Bere izenak dioenez, estatutuetan finkatzen diren murrizketak dira, akzioen eskualdaketa esparruan. Murrizketa hauek ez dira nahitaez elkartea sortzen den momentuan ezarri behar; bestalde, nahi den momentuan egin daiteke. Bazkide guztiengan dute eragina. Estatutuetan egiten diren murrizketa hauek ez dute eskualdagarritasuna murrizten, baizik eta eskualdaketa hori nola egiten den, hau da, prozedura. Beste betekizun bat izan behar da akziook nominatiboa izan daitezen. Murrizketa hauek egiteko hainbat modu daude, hurrengokoak:

1. Tanteo klausulak: Bazkide batek akzioak eskualdatu nahi izanez gero, lehenik eta behin gainerako bazkideei eskaini behar dizkio; horiek euren aukera aprobetxatzen ez badute, hirugarrenei eskaini ahal izango dizkio, baldintza berdinetan. Ez dugu nahastu behar lehentasunez harpidetzeko eskubidearekin: Tanteo klausulak Lehentasunez harpidetzeko eskubidea. Tanteo klausulak akzioak eskualdatu nahi direnean egiten da eta lehentasunez harpidetzeko eskubidea akzio berriak erosten direnean.

2. Baimen klausulak: Bazkide batek akzioak eskualdatu nahi dituenean, elkarrearen baimena behar izango du. Baimen hori Administrazio Organoak emango du. Abusuak egoten dira kasu hauetan, beraz, elkarrekin abusu horiek eragozteko, baimen klausuletan ezezko zerrenda bat ezarri behar du, ezezko kasuak eta zergatiak adieraziz. Era horretan, bazkideak baimena jasoko ez dituen kasuak zerrendatuko dira.

3. Jasotzaileak zenbait ezaugarri izatea edo ez izatea: Hemen mugatu egiten da bazkidearen ezaugarria, gutxienezko ezaugarri batzuk ezartzen dira. Kasu hauetan gertatzen da arrisku bat: arriskua elkarrearen esparruan da, batzuetan eskualdaketa bera mugatzen delako (ezin dena egin) eta ez eskualdaketa askatasuna.

#### SALBUESPENAK ESKUALDAKETAREN ESPARRUAN

Mortis Causagatiko eskualdaketa: titularraren heriotzaren ondoriozko eskualdaketa da. Beraz, bere heriotzarekin batera eskualdatzen dira akzioak. Baina beti bezala murrizketak badaude, gauzak aldatu egiten dira: ondorengoek ezin izango dute titularrak izan; kasu horretan, sozietateak berak erosi beharko lituzke akzioak edota akzioak eskaini. Ezinbesteko inorenganatzeari: kasu honetan, ere murrizketak aplikatzea eska daiteke: sozietateak berak erosi ditzake edota akzio hori jasotzaileentzat eroslea bilatu.

#### IV.3.2.7.- Erakuntza eta organoak

##### IV.3.2.7.1.- Batzar Orokorra (eskema liburua 203-212)

Bazkideak biltzen dituen batzarra da, eta horretarako deialdia behar bezala egin behar zaie bazkideei. Horiek euren eskumenekoak diren sozietate-gaiak eztabaidatu eta, ondoren, gai horien gaineko erabakiak hartzen dituzte, gehiengoak adierazitakoaren arabera. Gehiengo hori legeak edo estatutuek ezarritakoa izan daiteke. Bazkide guztiak erabaki hauen menpe geratzen dira, baita kontra bozkatu dutenak edo bertaratu ez direnak ere. Ez da posible batzar birtualik edo Internetetik egitea, sozietatearen egoitzan egin behar delako.

~ Posiblea dena da urrutiko batek bideokonferentzia baten bidez bertaratzeari edo urrutiko botoa emateari.

##### IV.3.2.7.1.1.- Batzarraren eskumenak

#### MUGAK

Batzar orokorraren eta administratzaileen arteko harremanak

~ Printzipioz haren jarduerari sozietatearen barne-arazoetara mugatuta dago.

~ Baina baliteke estatutuetan ezartzea batzar orokorrak administrazio-organuari instrukzioak eman diezazkiola, edo zenbait gai zehatzen inguruan hartutako erabakiak haren baimenaren menpean daudela. Sozietatearen estatutuek ezarritakoa (batzar orokorrak estatutuak aldatu egin ditzake, baina ezin du hartu horien kontrako erabakirik). Bazkideen banakako eskubideak errespetatu behar dira, eta ezin da ezarri betebeharririk haien adostasunik gabe. Batzarraren erabakiek beti izan behar dute gogoan sozietatearen interesa.

#### GUTXIENEZ, HURRENGO GAIEI BURUZ EZTABAIDA ETA ERABAKI DEZAKE BATZAR OROKORRAK

i. Urteko kontuen, emaitzaren aplikazioaren eta kudeaketa sozialaren onarpena.

ii. Administratzaileen, likidatzaileen eta, hala dagokionean, auditoreen izendapena eta kargutik kentzea; horien guztien kontra erantzukizun-akzio soziala tartekatzea.

iii. Estatutuen aldaketa erabakitzea.

iv. Sozietatearen kapitala gehitzea edo urritzea.

v. Beste sozietate bati oinarrizko aktiboak eskualdatzea edo ekartzea, edo hari oinarrizko aktiboak eskuratzea.

- vi. Lehentasunez harpidetza-eskubidea baztertzea edo mugatzea.
  - vii. Sozietatearen eraldaketa, bat-egitea, zatiketa, aktibo eta pasiboaren erabateko lagapena, eta egoitza atzerrira eramatea erabakitzea.
  - viii. Sozietatea desegitea.
  - ix. Likidazioaren azken balantzea onartzea.
  - x. Sozietateak bere akzioak edo partizipazioak edo sozietate nagusiarenak eskuratzea.
- Sozietate Mugatuetan... Batzar orokorrak administratzaileei baimena eman ahal die sozietatearen jarduera bera, horren antzekoa edo osagarria gauzatzeko, euren nahiz inoren kontura. Bazkide eta administratzaileen onurarako, sozietateak maileguak eta bermeak ematea (finantza-laguntza) erabaki dezake batzar orokorrak.
- ~ Ez da beharrezkoa batzarraren akordioa halako egintzak egiteko beste sozietate baten onurarako, sozietate hori sozietate-batasun berebanean badago.

#### IV.3.2.7.1.2.- Batzar orokor motak

1. OHIKO BATZAR OROKORRA EDO ARRUNTA. Aurretik deitutakoa, ezinbestez bildu behar da ekitaldi ekonomiko bakoitzaren lehen sei hilabeteren barruan, kudeaketa soziala onartzeko, aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko eta emaitzaren aplikazioari buruz erabakiak hartzeko. Batzar hau baliozkoa izango da, nahiz eta epez kanpo deitua edo ospatua izan. Administratzaileek egin behar dute honetarako deialdia; bestela, bazkideek eska dezakete deialdia epaileak egin dezala (deialdi judiziala).
2. EZ OHIKO BATZAR OROKORRA EDO APARTEKOA. Arrunta ez den beste edozein batzar orokor. Administratzaileek aparteko batzarrerako deialdia egin dezakete, hori egokitzen jotzen dutenean, sozietatearen intereserako. Eta deialdia egin behar dute, baldin eta sozietatearen kapitalaren %5a gutxienez ordezkatzeko duten bazkideek hala eskatzen badute. Horrez gain, deialdia eskatzen duten bazkideek eskarian tratatu nahi dituzten gaiak adierazi beharko dituzte.
3. BATZAR OROKOR UNIBERTSALA. Ez du deialdirik behar, kapital oso bertaratuta (edo ordezkaturik) badago eta bertaratutakoek aho batez onartzen badute batzarra egitea. Azken batean, kapital guztia bildurik eta ados egin behar da. Gero, sozietatearen erabakiak hartuko ditu lehenengoz. Halako batzarra edozein lekutan egin daiteke.

#### IV.3.2.7.1.3.- Batzar orokorrerako deialdia

Lehenik aipatu behar dugun gauzarik garrantzitsuenak, batzarraren eraketa baliozkoa izan dadin, aurretik deialdia egin behar dela da. Oro har, iragarkia (batzar orokorraren iragarkia) MEAO eta sozietatearen web orrialdean (Merkataritza Erregistroan inskribatuta) egon behar da; web-orria izan ezean, iragarkia MEAO eta probintziako hedapen handienetariko egunkari batean egon beharko litzateke. Baina baliteke estatutuetan ezartzea iragarkia komunikazio-pertsonalaren bitartez egin behar izatea; halaber, probintziako hedapen handienetariko egunkari batean iragarkia egotea estatutuetan borondatezkoa eta gehigarria da. Deialdiaren eta batzarraren egunaren artean gutxienez: (eskuinean) Iragarkiak batzarrerako bigarren deialdiaren data jaso dezake, deialdi hori beharrezkoa gertatzen den kasuetan (ez badago quorum (laster ikusiko duguna) nahikorik batzar orokorra baliozkotasunez eratzeko). Kasu horretan, 24 orduko tartea egon behar da gutxienez lehenengo eta bigarren deialdien artean. Iragarkian eztabaidatu beharreko gaien zerrenda jarri

behar da, eguneko aztergaien zerrenda deritzona. Eta gai horiek izango dira batzar orokorrean eztabaida daitezkeen bakarrak (salbuespenak daude: administratzaileen erantzukizuna, izendapena eta uztea). Sozietate Anonimoetan, posiblea da akziodunek (gutxiengoaren eskubidea: kapitalaren %5a gutxienez) deialdiaren osagarria eskatzea.

#### IV.3.2.7.1.4.- Batzarra eratzeko betekizunak

Administratzaileek (edo epaileek) deialdia egin behar dute, batzar unibertsalean salbu. Batzar orokorra sozietateak bere egoitza duen lekuan ospatu behar da (batzar unibertsala salbu, berriro ere, edozein lekutan ospa daitekeena), eta deialdian ezarritako egun eta orduan.

#### QUORUMA

Sozietate Anonimoetan, batzarraren eraketa baliozkoa izateko beharrezkoa da legeak ezarritako gutxienezko quorumak betetzea (hau da, gutxienezko kopurua). Estatutuek hortik gorako quoruma ezar dezake. Lehenengo deialdian boto-eskubidea ematen duen harpidetutako kapitalaren %25 gutxienez izan behar dute bertan dauden akziodunek edo haien ordezkariak. Bigarren deialdian ez dago gutxienezko quorumik, salbu eta estatutuek quorum jakin bat zehazten dutenean; kasu horretan, eskatutako kapital-kopurua nahitaez izan behar da legean edo estatutuetan lehenengo deialdirako eskatzen dena baino txikiagoa. Zenbait gaitan (estatutuen aldarazpena edo obligazioen jaulkipena) legeko quorum gogorragoak ezartzen dira. Lehenengo deialdian %50 eta bigarren deialdian %25.

#### BATZARRAREN ORGANOAK

Batzarrera joan direnen zerrenda egin behar da. Estatutuek zehazten dute zein den batzarraren burua -> Pertsona hori zehaztu ezean, administrazio-kontseiluaren buruak egingo du lan hori. Horrelakorik ez badago, bilerara bildu direnek hautatzen duten bazkideak.

#### IV.3.2.7.1.5.- Batzar orokorretara joatea eta ordezkaritza

Bazkide guztiek batzar orokorretara joateko eskubidea dute. Sozietate Anonimoetan, estatutuek eskubide hori muga dezakete. Horrez gain, oso garrantzitsua da administratzaileak batzar orokorretara joatea. Estatutuek batzar orokorrera joateko baimena edo agindua eman diezaiekete pertsona batzuei, sozietatearen intereserako denean.

Baliteke batzar orokorretara ordezkarien bidez joatea. Batzarrera joateko eskubidea den bazkideak ordezkari baten bidez egikari/buru dezake eskubide hori, eta ordezkari horrek ez du zertan bazkidea izan, estatutuek exijitu ezik. Baliteke ordezkaria pertsona fisikoa edo juridikoa izatea. Akziodunen sindikatuak (SA). Akziodun batzuk baten ditu, eta horrela joan ahal dira batzarrera. Sindikatu horrek pertsona bat (akzioduna ala ez) izendatzen du, eta pertsona horri ematen dio Batzarrera joateko eta botoa emateko ahalordea bere izenean eta bere ordezkari gisa. Ordezkaritzaren eskabide publikoa (SA). Sozietatearen administratzaileek, tituluen erakunde gordailuzainek edo Kontuko Oharpenen Erregistroko

#### Ordezkaritza

-moduak arduradunek eskatzen dutenean, eurentzat edo beste batzuentzat. Ordezkaritza modu hau dagoela uste da 4 akziodun edo gehiago ordezkatzeko direnean. Halako kasuetan, eguneko aztergaien zerrenda eta ordezkaturiko akziodunaren jarraibideak edo behintzat botoaren zentzua erantsi behar zaizkio ahalordea jasotzen duen agiriari. Salbuespen gisa,

ordezkariak bestelako botoa eman dezake, baldin eta ordezkatuaren interesari kalte egin diezaieketen inguruabar ezezagunak gertatzen badira.

#### IV.3.2.7.1.6.- Sozietatearen akordioak eta batzarraren akta

Eguneko aztergaiaren zerrendan dauden gai guztiei buruz eztabaidatu behar da batzar orokorrean, arazo nahikoa eztabaidatu arte, batzarraren buruak erabaki behar duena -> Jarraian, batzar orokorrak horri buruzko sozietatearen erabakia har dezake.

#### ERABAKIAK HARTZEKO BEHAR DEN GEHIENGOA

Legezko gehiengoak estatutuetan igo daitezke, baina ezin da ezarri erabakiak aho batez hartu behar izatea. Sozietate Anonimoetan oro har, nahikoa da gehiengo sinplea (bertaratu eta ordezkatuak kapitalaren aldeko boto gehiago kontrakoak baino, Diputatuen Kongresuan bigarren inbestiduran bezala). Kasu batzuetan, gehiengo indartuak (%50 baino quorum handiagoa: gehiengo absolutua). Erantzukizun Mugatuko Sozietatea oro har, nahikoa da gehiengo sinplea. Dena dela, beharrezkoa da boto horiek sozietatearen kapitala osatzen duten partizipazioen botoen herena gutxienez ordezkatea; halakoetan, ez dira zenbatzen boto zuriak. Hala ere, bi kasutan gehiengo indartua izan behar du: estatutuaren aldaketan eta beste akordio berezietan (hala nola kapitala gehitze edo urritzea, eraldaketa, bat-egitea edo zatiketak...). Legeak edo estatutuak zehazten duten botoen proportzioaz gain, bazkide kopuru jakin baten aldeko botoa beharrezkoa dela adieraz dezakete sozietatearen estatutuak.

#### BATZARRAREN AKTA

Batzar orokorrak hartzen dituen erabakiak idatziz jaso behar dira aktan. Zein da aktak izan behar duen edukia? Besteak beste, organoaren deialdi eta eraketari buruzko datuak, eztabaidatuak gaiaren laburpena, aktan agertzeko eskatutako parte-hartzeak, joan direnen zerrenda, hartutako erabakiak eta botazioaren emaitzak. Idazkariak edo notarioak jaso behar du akta: administratzaileek notarioarengana jo beharko dute nahitaez, hainbat bazkidek hala eskatzen badute:

SA: kapitalaren %1a gutxienez.

SM: kapitalaren %5a gutxienez.

Akta onetsi behar da, eta horretarako bi modu daude:

1. Batzarrean bertan, hau egin eta gero.
2. Batzarraren buruak eta bi kontu-hartzailek, bata gehiengoordezkaten du eta besteak gutxiengo, 15 eguneko epean. Beharrezkoa da idazkariak akta sinatzea eta batzarraren buruaren onespena, notarioak akta egiten duenean izan ezik.

#### IV.3.2.7.1.7.- Sozietatearen akordioaren deuseztasuna

Aurkaratu daitezkeen akordioak legearen, estatutuaren eta batzarraren erregelamenduaren kontrakoak dira. Interes soziala kaltetzen dutenak bazkide baten, batzuen edo hirugarrenen onurarako egiten da. Legitimazioa: kapitalaren %1 ordezkaten duten bazkideek (estatutuaren portzentaje txikiagoa eska daiteke); hala eta guztiz ere, ordena publikoaren kontrako



erabakiak edo akordioak edozein bazkidek eska dezake. Administratzaileek edota hirugarren batek ere eska dezake(te), interesa duela justifikatzen badu.

#### IV.3.2.7.2.- Administrazio eta ordezkari organoa (eskema liburua 212-220)

Administrazio organoa sozietatearen organo betearazle eta ordezkaria da, sozietatearen barne- eta kanpo-bizitzan aritzeko. Oro har, honek Batzar Orokorreko menpekotasuna du. Obligaziozko organoa da eta etengabe osatuta egon behar du sozietatean.

Sozietateak askatasunez edozein forma aukera dezake. Hauek dira aukera daitezkeenak:

1. Pertsona bakarreko organoa: obligazioak eta erantzukizuna pertsona batek bere gain hartzen du, hau da, pertsona bakarrak izango ditu eskumenak.
2. Pertsona aniztasunezko organoa: Funtzionamendu solidarioa du; kasu honetan, administrazio organoak bi kide edo gehiago ditu. Normalean, kide guztiek ahalmen guztiak dituzte. Haatik, gerta liteke kide horietariko batek ahalmen, obligazio guztiak izatea, gainerakoei ezer esan gabe. Gerta daiteke kontraktotasuna gertatzea -> batek egin duena besteak behar bezala ez interpretatzea; hori barne- funtzionamenduaren arazoa litzateke.
3. Pertsona aniztasunezko organoa, funtzionamendu mankomuna: erabakiak hartu ahal izateko, guztien parte-hartzea behar da. Edonork abstentzioa erakusten badu, ez dago erabaki hori hartzerik. Organoa, kasu honetan, osotasunean hartu behar da.
4. Pertsona aniztasunezko organoa, funtzionamendu kolegiatua: Hemen, aurrekoan ez bezala, erabakiak hartzeko gehiengoa behar da soilik, ez guztiak aho betez ados egotea.

##### IV.3.2.7.2.1.- Administratzaile izateko gaitasunak

Legeriak aipatzen du adinez nagusia eta ezgaitua ez izatea. Posiblea da administratzaile gisa beste elkarte bat izendatzea, baina dakigunez, ezinezkoa da bileretara elkarte bat joatea; beraz, pertsona fisiko bat (horren elkartekoa) izendatu beharko litzakete batzarretara joateko. Aipatu beharrekoa da ere, konkurtso egoera batean dagoen enpresa bat ez dela onartuko, ez eta delitu baten barruan dagoena.

Hona hemen, orokorrean, eman behar diren betekizunak:

Adinez nagusia ezgaitua ez izatea Konkurtso egoeran edo delituren barruan dagoen enpresa batean egotea bi enpresatan batera administratzailea izatearen debekua Sozietate baten administratzaileak izatea posiblea da, bazkidea izan gabe Leialak izatea Arduraz betetzea eta interesez funtzionamenduan aritzea Jakituri berezia izan beharra Egoera hori guztia estatutuen bidez alda daiteke. Kasu batzuetan, administratzailea pertsona juridikoa izan daiteke, esan dugunez. (adibidea hemen behean) Adibidez, BBVAn administratzaile Telefónica da. Telefónicak kide bat izendatuko du Batzarretan (BBVAn) parte hartzeko. Nola egiten da izendapena? Eskritura publikoan lehen aldiz; gero, batzar orokorraren bitartez, gehientasun sistemaren bitartez.

##### IV.3.2.7.2.2.- Organoaren funtzioak

Sozietatearen ordezkari eta zuzendaritza, oro har.

Zuzendaritza: Sozietateak burutzen dituen jarduerak -> harremanak egin, kontratuak egin, sozietatearen kudeaketa, eta abar.

Ordezkaritza: Sozietatearen izenean ari dena ekintzak burutuko ditu -> hirugarrenetik.

IV.3.2.7.2.3.- Administrazioaren erantzukizuna administrazioaren erabakiak kaltegarriak edo lege kontrakoak izan daitezke eta erantzukizuna hurrengo izaten da:

Elkarte erantzukizuna: kaltea elkarteari egiten zaionean. Banakako erantzukizuna: kaltea bazkideari edo hirugarren bati (hartzekodun bati, adibidez) egiten zaionean.

Nork erabil ditzake eskubide hauek?

a) Elkarteko erantzukizuna denean:

- i. Elkarteko berak Batzar Orokorraren erabakiaren bitartez.
- ii. Kapitalaren gutxiengoa duenak ere.
- iii. Kaltetuek, hartzekodunek edo hirugarrenek

b) Banakako erantzukizuna denean: kaltetuak soilik erabil dezake, ez beste inork.

IV.3.2.7.2.4.- Administrazioaren ordainketa

Legeak ez du aipamenik egiten, ezta egon behar duenik ere, beraz, estatutuetan ezarri behar da beti honen aipamena. Ordainketaren kopurua edo EMSeen kasuan gehieneko kopurua ere ezarri behar da. Sozietate Anonimoetan modu ezberdinetan, irabazietan parte hartzea eman daiteke eta hemen abusuak gerta daitezkeenez, legeak honakoa dio: Estatutuetan ezarrita Ekitaldiko irabazietatik soilik irabazi garbietatik egingo da ordainketa Bazkideek kobratu behar dute lehenik (gutxienez %4) eta gero administrazioarek.

IV.3.2.7.2.5.- Administrazio-karguaren epemuga

Legeak adierazten du epemuga zehaztugabea dela, borondatez kargua utzi behar dela edo Administrazio Kontseiluak kanporatu behar duela. Sozietate Anonimoetan, epea dago: kargua gehienez 6 urtez egon daiteke Administrazio Kontseiluan (karguan < 6urte). Kontuan hartu behar dugu nola izendatzen diren eta nork izendatzen dituen: lehenengo administrazioarek eskritura publikoan izendatu behar dira eta gainontzekoak batzar orokorrak izendatuko ditu.

Nola uzten da kargua?

Karguaren epemuga heltzen denean, agintaldia amaitzen denean. Ez du esan nahi automatikoki utziko dela kargua; batzar orokorra egin arte (ohikoa) itxaron behar da, ekitaldiaren lehen 6 hilabeteetan zehar. Dimisioa aurkeztuz Batzar orokorrak kargutik kentzen duenean; horretarako, ez da inolako justifikaziorik behar.

Berezitasuna: Batzar orokorraren aztergai ez egon arren, erabakia har dezake kargutik kentzeko, salbuespen moduan (ikus beheko adibidea\*). \*Florentino Pérezek, Real Madridenteko presidentek, enpresa bateko administrazioarek bat izanik, beste enpresa bateko

administratzailea izan zen era berean; enpresa horretako goi karguak ohartu zirenean, zuzenean kaleratu zuten, bi enpresatan batera administratzaile izateagatik.

#### IV.3.2.7.2.6.- Administrazio Kontseiluaren funtzionamendua

Organo gisa barne arautegia izaten dute. Burtsan kotizatzen duten sozietateek derrigorrezkoa dute. Legeriari dagokionez, Administrazio Kontseilua gutxienez 3 hilean behin bilduko da. Ohizko gehientasunaren bidez hartuko dira erabakiak (gehientasuna handitzea posiblea da, estatutuen bidez). Bilerak edonon egin daitezke, baita idatziz ere, horretarako denek ados egon behar dute. Administrazio Kontseiluak era honetako organoak sortzen baditu, kontuan izan behar dira hauek jasotako ahalmenak: kontseilari ordezkaria, batzar betearazlea... Ahalmen batzuk Administrazio Kontseiluarenak izango dira eta ezingo dira eskualdatu. Horren ildotik, eskumenen aldaketarako organoa osotzen duten kideen 2/3a beharko da.

#### IV.3.2.7.2.7.- Administrazio organoko eredutik aldatzea

- Sozietate Anonimoetan: Elkarte hauen kasuan, administrazio organotik aldatu nahi bada, estatutuak aldatu beharko dira.
- Erantzukizun Mugatuko Sozietateetan: Elkarte hauen kasuan, ez dira estatutuak aldatu behar; eredu mota guztiak inskribatu behar edo ahal izango dira sozietatea eratzean, eta gero batzar orokorrak nahi duena aukeratu ahal izango du.

#### IV.3.2.7.2.8.- Administrazio Kontseiluak dituen berezitasunak

Izendapena da berezitasunetariko bat. Izendapena egiten denean, zenbat kide dauden hartu behar dugu kontuan eta estatutuetan adierazi beharko da. Kideak ezartzeko bi modu egon ohi da:

1. Kopuru finkoa ezarriz
2. Gutxienezko edo gehienezko mugak ezarriz

Izendapena era desberdinetan egin daiteke:

- Ohizko moduan: batzar orokorrean gehiengoa duenak beti izendatuko dituela administratzaileak.
- Proporziorako sistemen bidez: mota hauek soilik SAetan erabil daitezke, eta batzar orokorrak sozietateari aurretik jakinarazi behar dio. Modu honetan, gehientasuna ez dutenek izendatzeko aukera daukate. Ikusi hurrengo adibidea.

Demagun sozietatearen kapitala 100ekoa dela eta kapital hori administrazio kontseiluko kideen artean banatzen dela: 5 kide behar dira administrazio kontseiluan -> beraz, kozientea 20 da ( $100 \div 5 = 20$ ; hau da, %20). Modu horretan, %20a duenak izendatu ahal izango du. Esan dezagun partaidetasuna honela banatuta dagoela:

- A. Kideak: %6ko partaidetza
- B. Kideak: %17ko partaidetza
- C. Kideak: %20ko partaidetza
- D. Kideak: %57ko partaidetza

Horrek esan nahi du lehenengo eta bigarren kideek eurek bakarrik ezingo dutela administratzaile bat izendatu eta euren partaidetza batu ahal izango dutela boto bat eman ahal izanez, soilik. Gainerakoak partaidetza nahikoa dute bozketa gauzatzeko.

#### \*KOOPTAZIOA

Behin bitarteko egoera bat da Administrazio Kontseiluan. Horrek duen kideetariko bat gabe geratzen bada organoa, hutsune bat agertzen da. Posibilitate hauek suertatzen dira:

- a) Horrela jarraitzea (hutsunearekin)
- b) Hutsunea bete. Hutsunea betetzea erabakitzen bada, kideak bazkide bat izan behar du.

Kide hori hurrengo batzar orokorrean aurkeztua izango da. Kooptazio sistemaren bitartez aukeratua izango da. Modu horretan, kooptazio sistema bidez aukeratua izan dena, zer egin behar du, edo zer egin behar da berarekin?

- a) Karguan mantentzen bada, epealdiak aztertu beharko dira. Arazoak egoten dira honen esparruan: aurrekoak 6 urterako kontratua bazuen eta 2 urte igaro eta gero dimisioa aurkeztu bazuen, berria 4 urtez edo 6 urtez egongo litzateke? Ezer aipatzen ez bada, berriak 4 urte egingo litzuzke.
- b) Kendu eta beste bat ezarri.

<http://www.encyclopedia-juridica.biz14.com/d/sistema-de-cooptaci%C3%B3n/sistema-de-cooptaci%C3%B3n.htm> –ren definizioa: Es el mecanismo previsto legalmente para cubrir la vacantes producidas en el Consejo de Administración y sin tener que convocar Junta general para designarlos. Llamada también facultad de cooptación o simplemente cooptación, ha de ejercerse nombrando a un accionista y teniendo esta designación validez provisional: el consejero nombrado por cooptación lo será hasta que se celebre la próxima junta de socios, en la que podrá ser elegido como consejero. En algunas sociedades, en lugar de la cooptación, se utiliza el sistema de suplentes: las vacantes se cubren con los designados como suplentes en la junta general que nombró los consejeros titulares.

IV.3.3.- Burtsan kotizatzen duten eta beste zenbait sozietateen berezitasunak (ikus eranskina)

IV.3.3.1.- Arautegia

Burtsan kotizatzen duten sozietateak hurrengo arautegiek arautua dira:

- Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina onestekoa: 495-539. artikulua XIV Titulua.
- Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina onestekoa

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2010/BOE-A-2010-10544-consolidado.pdf>

IV.3.3.2.- Kontzeptua

Bigarren Mailako Balore Merkatu Ofizialetan akzioak negoziagarriak dituzten Sozietate Anonimoak dira (horiei buruz hitz egingo dugu).

#### IV.3.3.3.- Berezitasunak akzioen esparruan

##### IV.3.3.3.1.- Akzioen adierazpena (496.art.)

Akzioak, nahitaez kontuko idatzoharretan egon behar dira adierazita. Balore Erregistroen Erakundeak sozietate jaulkitzaileari akziodunak identifikatzeko beharrezko datuak jakinarazi behar dizkio; hau da, erakunde horrek beharrezko datu batzuk jarri edo ezarri behar ditu, sozietate jaulkitzaileak akziodunak esfortzu gabe eta era errazean identifika ditzan.

##### IV.3.3.3.2.- Lehentasunezko korbona eskubidezko akzioak (498-499.art.)

Sozietatea korbona banatzea erabakitzera beharturik dago, baldin eta mozkin banagarririk badago, estatutuek kontrakoa esan ezean. Aipatu beharra dago, pribilegiozko akzioak badaude, lehentasunezko korbonaren legezko erregimena botorik ez duten akzioek duten berbera izango dela.

##### IV.3.3.3.3.- Akzio erreskatagarriak (500-501.art.)

Kontzeptua: Las acciones rescatables son aquéllas que se amortizan a solicitud de la entidad emisora, de los accionistas o de ambos. En la emisión de este tipo de acciones se fijan las condiciones para el ejercicio del rescate. En el caso de que sólo el emisor tenga derecho de rescate, no podrá ejercitarlo hasta pasados tres años de la emisión de las acciones.

Akzio erreskatagarriak sozietatea jaulkitzaileak, akzio horien titular edo bien eskarira, jaulki ditzake, baldin eta sozietatearen kapitalaren laurdena gainditzen ez badu zenbateko nominallean. Hau da, sozietateak akzio erreskatagarriak jaulki ditzake baldin eta zenbateko nominallean (Balio Nominallean) kapitalaren 1/4 ez badu gainditzen. Beste betekizun bat da osorik ordainduta egon behar direla, hots, ez dutela dibidendu pasiborik izan behar, harpidetza unean.

Erreskate eskubidea sozietateak soilik baldin badu, jaulkipenetik hasita 3 urte igaro arte ezingo du erabili.

Nola amortizatzen dira akzio erreskatagarriak?

\*Normalean, etekin, erreserba libre edo akzioen jaulkipen berrien kargura egingo da amortizazioa, Batzar Orokorrek erabakita, eta amortizazioa finantzatzeko xedearekin.

\*Etekin edo erreserba libreen kargura egiten bada, amortizatutako akzioen balio nominalaren zenbatekoa erreserbetan ezarri beharko da.

\*Etekin edo erreserba librerik edo operazioa finantzatzeko akzio berririk jaulkiko ez balira, amortizazioa soilik ekarpenen itzultzeen bidez kapitalaren urritzerako ezarri diren betekizunetz aurrera eraman liteke.

##### IV.3.3.4.- Berezitasunak akzioen harpidetza esparruan (503-508.art.)

\*Harpidetza eskubidea erabiltzeko gutxienezko epealdia: Administratzaileek ezarritako epealdia izango da: hamabost egun baino gutxiagokoa ezinezkoa da, Merkatal Erregistroko Buletin Ofizialean jaulkipen berriaren harpidetza eskaintzaren iragarkia argitaratzetik zenbatzen hasita.

\*Lehentasunez harpidetzeko eskubidearen kentzearen ohizko erregimena: Ohizko erregimena 308.artikuluari agertzen da (308.art.: 1. En los casos en que el interés de la sociedad así lo exija, la junta general, al decidir el aumento del capital, podrá acordar la supresión total o parcial del derecho de suscripción preferente. 2. Para que sea válido el acuerdo de exclusión del derecho de preferencia será necesario:...). Balio arrazongarria merkatuko balioa izango da, baina merkaturiko balioa ez balitz ezarriko, Burtsako kotizazioaren arabera.

\*Lehentasunez harpidetzeko eskubidearen kentzearen erregimen berezia:

- Batzar Orokorrak akzio berrien jaulkipena edozein prezioan, auditorearen txostenari darion akzioen ondarearen balio netoa baino handiagoa izanik (siempre que sea superior al valor neto patrimonial de éstas que resulte del informe del auditor).
- Administratzaile eta kontu auditorearen txostenek akzioen ondarearen balio netoa zehaztu behar dute.
- Kontuen auditoreak ondarearen balio netoa ikuskatu beharko du, azken ikuskatutako urteko kontuen arabera edo geroago baldin bada, azkenik ikuskatutako finantzaketa estatuen arabera.

\*Lehentasunez harpidetzeko eskubidea kentzeko ahalmenaren eskuordetzea:

- Kontzeptua: Batzar Orokorrak administratzaileengan ahalmena eskuordetzea, sozietatearen interesak beharko balu.
- Batzar Orokorraren deialdi iragarkian ahalmen kentze proposamena espresuki etzanarazi.
- Jaulkiko diren akzioen balio nominala eta jaulkipen primaren zenbatekoa gehituz.

\*Akzio berrien harpidetza osagabea: Balore Merkatuko Nazio Batzordeari jakinarazi behar zaio.

\*Ekarpenen bihurtze (bueltatze) eskubidea:

- Harpidetza epealdia bukatu oraindik urtebete igaro ondoren, Merkatal Erregistroan inskribatzea aurkeztu gabe, erregistratzaileek, ofizioz, edo edozein interesdunaren eskariz, kapital sozialaren gehikuntza erabakiaren transkripzioa deuseztatu egingo du, ziurtagiria Sozietatera eta Balore Merkatuko Nazio Batzordera bidaliz.
- Gehikuntzaren inskripzioa deuseztatuz, akzio berrien titularrek ekarpenen bihurtzea eskatzeko eskubidea izango dute.

IV.3.3.5.- Autokarteraren gehienezko muga (509.art.)

Bere akzioen askatasunezko lorpenean salbu, sozietateak, zuzenean edo zeharka, lorturiko bere akzioen balio nominala ezin izango da harpideturiko kapitalaren ehuneko hamarra baino gehiago izan. Lortutako akzioen balio nominala < kapitalaren %10.

#### IV.3.3.6.- Obligazioak (510-511.art.)

Ez da aplikatuko obligazioak jaulkitzeko ezarritako legezko gehienezko muga.

\*Obligazio bihurtzeko jaulkipenean Lehentasunez harpidetzeko eskubidea kentzeko ahalmenaren eskuordetzea: Lehentasunez harpidetzeko eskubidea kentzeko ahalmenaren eskuordetzearen erregimen bera. (506.art.)

#### IV.3.3.7.- Akziodunen Batzar Orokorraren berezitasunak (511bis-527.art.)

##### IV.3.3.7.1.- Batzar Orokorraren erregelamendua

- Obligaziozkoa da.
- Balore Merkatuko Nazio Batzordeari jakinarazi behar zaio.
- Merkatal Erregistroan inskribatu.
- Balore Merkatuko Nazio Batzordeak argitaratu.

##### IV.3.3.7.2.- Batzar Orokorraren funtzionamendua – Xedapen orokorrak

\*Tratu berdintasuna: Egoera berdinean dauden akziodunen tratu berdintasuna Batzar Orokorrean:

- Informazioa.
- Partaidetza.
- Boto eskubidea.

\*Ez-ohiko Batzar Orokorraren deialdiaren epealdia: Bozketa baliabide elektronikoen bitartez burutzeko aukera dago:

- Gutxienezko deialdiaren epealdia: 15 egunekoa.
- Berariazko (especial, intencionado, depende...)erabakia:
  - Ohiko Batzar Orokorrean: boto eskubidean duten harpideturiko kapitalaren 2/3 gehientasunez.
  - Iraunaldia: ez hurrengo Ohiko Batzar Orokorraren bilera baino gehiago.

\*Deialdiaren argitaratzea: Ohiko eta ez-ohiko Batzar Orokorra:

- Informazio eskuratze azkarra eta diskriminaziorik gabekoa akziodun guztientzat.
- Komunikabideak bermatu.
- Komunikabideak gutxienez:
  - Merkatal Erregistroko Buletin Ofiziala edo estatuan zirkulazio gehien duen egunkarietarikoa bat.
  - Balore Merkatuko Nazio Batzordearen web-orrialdea. Deialdia egiten duen sozietatearen web-orrialdea.

\*Deialdi iragarkiareneko edukia: Legez eskatzen diren aipamenez gain, hurrengokoak egon

behar dira:

- Akziodunak akzioak erregistraturik izan behar dituen data.
- Agiri eta erabaki-proposamenen testu oso lor daitekeen tokia eta era.
- Informazioa erabilgarria egongo den sozietatearen web-orrialdearen helbidea.
- Akziodunek bete behar dituzten izapideei (trámites) buruzko informazio argi eta zehatza.

\*Batzarraren alde zuzeneko informazio orokorra: deialdi iragarkiaren argitaratzeetik Batzar Orokorra bildu arte, sozietateak bere web-orrialdean hurrengo informazioa, gutxienez, argitaratu behar du etengabe:

- Deialdiaren iragarkia.
- Akzio kopuru osoa eta boto eskubideak deialdiaren datan, akzio motak...
- Batzar Orokorrari aurkeztuko zaizkion agiriak eta bereziki, administratzaile, kontu-ikuskari eta aditu burujabeen txostenak.
- Erabaki proposamenen testu osoak: eguneko aztergaiak.
- Ordezkaritzaz eta urrutiko botoa emateko formularioak.

\*Eguneroko aztergaiak osatzeko eta erabaki proposamen berriak aurkezteko eskubidea:

- Sozietatearen kapitalaren %5, gutxienez, ordezkatzen duten akziodunek Ohiko Batzar Orokorraren deialdiaren osagarria argitaratzea eska dezake.
- Eskubidea jakinarazpen frogagarriaren bitartez: sozietatearen helbidean deialdi iragarkiaren hurrengo 5 egunen epean jaso beharko da.
- Osagarria Batzar Orokorraren bilera-data baino 15 egun lehenago, gutxienez, argitaratu beharko da.
- Sozietatearen kapitalaren %5, gutxienez, ordezkatzen duten akziodunek (epealdi berean) deituriko Batzarraren eguneroko aztergaiei buruz erabaki-proposamen oinarrituak aurkeztu ahal izango dituzte.

\*Akziodunen informazio eskubidearen gauzatzea:

197.art: 1. Hasta el séptimo día anterior al previsto para la celebración de la junta, los accionistas podrán solicitar de los administradores las informaciones o aclaraciones que estimen precisas acerca de los asuntos comprendidos en el orden del día, o formular por escrito las preguntas que consideren pertinentes. Los administradores estarán obligados a facilitar la información por escrito hasta el día de la celebración de la junta general. 2. Durante la celebración de la junta general, los accionistas de la sociedad podrán solicitar verbalmente las informaciones o aclaraciones que consideren convenientes acerca de los asuntos comprendidos en el orden del día. Si el derecho del accionista no se pudiera satisfacer en ese momento, los administradores estarán obligados a facilitar la información solicitada por escrito, dentro de los siete días siguientes al de la terminación de la junta. 3. Los administradores estarán obligados a proporcionar la información solicitada al amparo de los dos apartados anteriores, salvo que esa información sea innecesaria para la tutela de los derechos del socio, o existan razones objetivas para considerar que podría utilizarse para fines extrasociales o su publicidad perjudique a la sociedad o a las sociedades vinculadas. 4. La información solicitada no podrá denegarse cuando la solicitud esté apoyada por



accionistas que representen, al menos, el veinticinco por ciento del capital social. Los estatutos podrán fijar un porcentaje menor, siempre que sea superior al cinco por ciento del capital social. 5. La vulneración del derecho de información previsto en el apartado 2 solo facultará al accionista para exigir el cumplimiento de la obligación de información y los daños y perjuicios que se le hayan podido causar, pero no será causa de impugnación de la junta general. 6. En el supuesto de utilización abusiva o perjudicial de la información solicitada, el socio será responsable de los daños y perjuicios causados.

- Akziodunek administratzaileei sozietateak azken Batzar Orokorraren egitetik Balore Merkatuko Nazio Batzordeari emandako publikoarekiko eskuragarri den informazioari eta ikuskariaren txostenari buruzko azalpenak eskatu ahal dute.
- Administratzaileak ez daude galdera zehatzak erantzutera beharturik eskaturiko informazioa akziodun guztientzat sozietatearen web-orrialdean argi eta zuzenean eskuragarri dagoenean galdera-erantzun eredu.

\*Urrutiko partaidetza:

- Batzar Orokorrean parte hartzea eta botoa eskuordetu edo zuzenean akziodunak gauzatu ahal izango ditu: postaz / posta-elektronikoz / edo urrutiko beste edozein baliabideren bitartez, estatutuek ezarritako eran, kidearen nortasuna eta komunikazio elektronikoen segurtasuna behar bezala bermatzen den bitartean.
- Estatutuek ezarritakoaren arabera, Batzar Orokorraren Erregelamenduak halako eskubideen urrutiko gauzatzea arautu ahal izango du.

IV.3.3.7.3.- Batzar Orokorraren funtzionamendua – Partaidetza Batzarrean ordezkariaren bitartez

\*Akziodunaren ordezkarietza Batzar Orokorrean:

- Akziodunaren ordezkarietza Batzar Orokorrean mugatzen duten estatutuen klausulak ezdeusak izango dira.
- Estatutuek ordezkaria hirugarren batek ordezkatzeko galeraz dezakete.
- Akziodun ordezkariak (ordezkaria denak) aginduak emango ditu. Ordezkariaren izendapena, izendapenaren jakinarazpena sozietateari eta ordezkariaren izendapenaren ezeztatzea idatziz edo baliabide elektronikoz egin ahal izango da.
- Ordezkariak akziodun bat baino gehiagoren ordezkarietza izan dezake.
- Akzio ordezkariaren kopurua Batzarrean baliozko eraketarako zenbatuko da.

\*Ordezkariaren interes gatazka:

KONTZEPTUA: Interes gatazka pertsona edo erakunde batek burutu behar duen eginkizunari buruz horren burutzapen egokia eragozten duen interesa duenean gertatzen da. Politikan nahiz erabakiak hartu behar diren edonolako lanbideetan gertatzen dira. Adibidez, interes gatazka sor daiteke epaile bati bere aurka eraso egin duen pertsona baten aurkako epaiketan interes gatazka sor dakioke, epaitu behar den pertsonaren aurka sentitzen duen haserrea edo gorrotoak epaile batek bere epaian izan behar duen neutraltasuna eragozten duelako.

- Izendapena egin aurretik, ordezkariak akziodunari zehaztasunez interes gatazkarik dagoen ala ez jakinarazi beharko dio.
- Gatazka izendapen ostekoa bada, berehala jakinarazi beharko zaio akziodunari. Botoari buruzko agindu berririk ez jasotzekotan, ordezkariak ezin izango du botorik eman.
- Arau honen xedeetarako, interes gatazka egon daiteke ordezkaria hurrengo egoera hauetariko batean dagoenean:
  1. Sozietatearen kontrol-akzioduna edo honek kontrolpean duen erakundea izatea.
  2. Sozietate, kontrol-akziodun edo honek kontrolpean duen erakundearen administrazio, kudeaketa edo gainbegiratze organoaren kidea izatea.
  3. Sozietate, kontrol-akziodun edo honek kontrolpean duen erakundearen langile edo ikuskaria izatea.
  4. Aurrekoarekin loturiko pertsona fisikoa izatea (ezkontidea edo aurreko bi urtetan izan dena / antzeko maitasun-harremanetan elkarrekin bizi diren pertsona edo aurreko bi urtetan horrela bizi izan zirenak...).

\*Finantzaketa-artekari eta beronen bezeroen arteko harremanak boto gauzatzearen xedeetarako: Ikus 534.artikuluaren eranskinean.

#### IV.3.3.7.4.- Batzar Orokorren funtzionamendua – Erabakien bozketa

\*Bozketen emaitza:

- Batzar Orokorrean bozkatzera ezarri den erabaki bakoitzeko, hurrengoko gauzak, gutxienez, zehaztu beharko dira:
  - Baliadun botoak eman diren akzio kopuruak.
  - Halako botoek kapitalarekin proportzionalak diren.
  - Baliadun boto kopuru osoa
  - Erabakiaren alde eta kontrako boto kopurua, eta, egotekotan, abstentzio kopurua.
- Erabaki onartuak eta bozketen emaitza osorik argitaratuko dira:
  - Sozietatearen web-orrialdean.
  - Batzar Orokorren bukaeratik hurrengo 5 egunetan.

\*Administratzaileak boto eskubidea erabili ordezkariak eskari publikoaren kasuan:

Administratzaileak ezin du boto eskubidea erabili interes gatazka dagoen eguneko aztergaietan eta, edozein kasutan, hurrengo erabakietan:

- Bere izendapena edo berrespena administratzaile gisa.
- Bera kargutik kentzea, bera administratzaile gisa banantzea edo kargu-uztea.
- Erantzukizun egintza soziala bere kontra erabiltzen denean.
- Sozietateak administratzailearekin, beronek kontrolpean dituen edo ordezkatzeko dituen sozietateekin edo beraren kontura aritzen diren pertsonekin burutzen dituen eragiketen onarpena edo berrespena egiten denean.

\*Boto eskubidea mugatzen duten klausulen baliogabetasuna: Ikus 527.artikuluaren eranskinean.

#### IV.3.3.8.- Berezitasunak administrazioan (528.art.)

\*Administrazio Kontseiluaren Erregelamendua:

- Obligaziozkoa da.
- Batzar Orokorraren txostenaz, Administrazio Kontseiluak barne erregimen eta Kontseilu beraren funtzionamendu arauen Erregelamendua onartuko du, Lege eta Estatutuen arabera.
- Sozietatearen administrazio hobea bermatzeko neurri zehatzak izan beharko ditu.
- Balore Merkatuko Nazio Batzordeari jakinarazi.
- Merkatal Erregistroan inskribatu.
- Balore Merkatuko Nazio Batzordeak argitaratu.

#### IV.3.3.9.- Publizitatea behar duten parasozietatezko paktuak (530-535.art)

Kontzeptua: Los pactos parasociales permiten a quienes se asocian con el objetivo de constituir una empresa, regular aspectos claves para el futuro de la misma. Estos pactos permiten regular acuerdos adaptados a la voluntad real de los asociados, evitando en mayor o menor medida la rigidez normativa del derecho societario. Los pactos parasociales, o acuerdos extra-estatutarios, son acuerdos adoptados entre los socios (todos o algunos) de una sociedad con el objetivo de regular ciertos aspectos no establecidos estatutariamente, así como complementar o especificar las relaciones internas, legales o estatutarias por las que se rige ésta.

\*Edukia: Zer egiten dute parasozietatezko paktuek?

- Batzar Orokorretan boto eskubidearen erabileraren arautegia
- Akzioen eskualdagarrtasun librea murriztu edo baldintzatu.
- Egoera bera izango da paktuek bihurturik edo trukagarriak diren obligazioei buruzko eduki berdina balute.

\*Publizitatea:

- Paktuaren burutzea, luzapena edo aldaketa sozietate berari eta Balore Merkatuko Nazio Batzordeari berehala jakinarazi beharko zaie.
- Jakinarazpenari agiriko klausulen kopia gehituko zaie.
- Hauetariko edozein jakinarazpen egin ondoren, paktua duen agiria sozietatea inskribaturik dagoen Merkatal Erregistroan gordailuan utzi beharko da.
- Paktua egintza nabarmen gisa argitaratu beharko da.

\*Argitaratzeko legitimazioa:

Edozein paktu sinatzailea dago legitimaturik jakinarazpenak eta gordailua egiteko, nahiz eta paktuak berak beraietako edonork edo hirugarren batek haiek egitea aurrez ikusi.

\*Argitaratze ezaren ondorioak:

Jakinarazpenak , gordailua eta egintza nabarmen gisa argitaratzea egiten ez diren bitartean, paktuek ez dute inolako ondoriozko izango. Hurrengo irudian ikus daiteke honen ilustrazioa, ondo ulertzeko.

#### IV.3.3.10.- Sozietateari buruzko informazioa (531-539.art)

##### IV.3.3.10.1.- Urteko kontuak

Aipatu beharra dugu Europar Batasuneko edozein Estatu Osagarrian negoziatzera beren balorean onartuak dituzten sozietateek ezin izango dutela balantze eta ondare neto laburtuan aldaketa egoerarik, ez eta galera eta irabazi laburtu konturik ere aurkeztu; azken batean, kontu laburtuak aurkezteko debekua dute Burtsan kotizatzen duten sozietateek.

#### IV.3.3.10.2.- Berezitasunak Oroitidazkian

Informazio osagarriaren eginbeharra dute: Europar Batasuneko edozein Estatu Osagarrian negoziatzera beren baloreak onartuak dituzten eta banako Urteko Kontuak soilik argitaratzen dituzten sozietateek, ondare netoan eta galera eta irabazi kontuan gerta litezkeen aldakuntza garrantzitsuenen berria Oroitidazkian ematera beharturik daude. Orokorrean, edozein xehetasun aipatu beharko da.

#### IV.3.3.10.3.- Berezitasunak kudeaketa txostenean

Gobernu Korporatibo Txostena Kudeaketa-Txostenean sartu beharko da: Europar Batasuneko edozein Estatu Osagarrian negoziatzera beren baloreak onartuak dituzten sozietateek Kudeaketa Txostenean, atal berezian, Gobernu Korporatibo Txostena sartuko dute.

#### IV.3.3.10.4.- Informazio tresna bereziak

Ikus 539.artikulua.

### IV.4.- MERKATARITZA SOZietATEEN IRAUNGIPENA

#### IV.4.1.- Sarrera

Sozietatea azkentzeko nahitaezkoak dira hiru fase:

1. Desegitea: batez ere sozietatearen barneko eremuan eragiten duena.
2. Likidazioa: batez ere hirugarrenei, sozietatearen hartzekodunei eta akziodunei eragiten diona.
3. Iraungitzea: azkenean, Merkatal Erregistroko inskripzioa kitatzen da, eta une horretan sozietatea azkentzen edo iraungitzen da. Horren ondorioz, jada ez du nortasun juridikorik.

#### IV.4.2.- Desegitea

Kontzeptua: Desegindako sozietatea ez da azkendutako sozietatea; desegitea azkentzearen baldintza bat besterik ez da. Beraz, desegitea da azkentze-prozesuari hasiera ematen diona.

#### IV.4.2.1.- Desegitearen kausak

- Batzar orokorrak hartutako erabakiaren ondorioz. Erabaki hori gehiengoz hartzen da, baina kontuan hartu behar da beharrezkoa dela estatutuen aldarazpenerako ezarritako gutxieneko quorum eta gehiengo bereziak lortzea.
- Estatutuetan ezarritako epemuga heltzearen ondorioz: adibidez, esaten da data batean sozietatearen jardura amaituko dela.
- Sozietatearen xedea amaitzearen ondorioz (adibidez, obra jakin bat egiteko eratzen diren sozietateen kasuan).

- Sozietateak ezin duelako bere helburua bete edota ezin diolako bere jardunbideari etsi, kanpo- eta barne-arrazoien ondorioz.
- Sozietatearen kapitala legezko gutxiengoaren azpitik murriztuz gero.
- Sozietatearen jarduera gelditzearen edo uztearen ondorioz.
- Organo sozialen funtzionamendua ezinezkoa denean. Hau da, bazkideen artean desadostasunak geratzen direnean, ezinezkoa izan daiteke sozietateak bere jarduera gauzatea.
- Galerengatik, ondare garbia sozietatearen kapitalaren erdiaren azpitik uzten denean, kapitala behar den neurrian handitzen edo murrizten ez bada behintzat, eta konkurtso-aitorpena eskatzea ez bada beharrezkoa (adibidez, sozietatearen Desegitea Likidazioa Iraungitzea kapitala 100.000 eurokoa bada eta ondare garbia 50.000 baino txikiagoa bada (O.G<50.000)).
- Bat-egitearen edo zatiketa osoaren ondorioz. Eta gainera kasu hauetan ez da beharrezkoa likidazio-fasea.
- Estatutuetan ezarritako beste edozein arrazoiengatik.

#### IV.4.2.2.- Administratzaileen erantzukizun kasu berezia

##### IV.4.2.2.1.- Administratzaileen betebeharra

- Administratzaileek batzar orokorrerako deialdia egin behar dute desegite-kausa ematen denetik 2 hilabeteren buruan (bestela, edozein bazkidek epailari eska diezaioke deialdia): batzar horretan erabakiko da desegitea.
- Batzarraren deialdirik ez bada egiten, batzarrik ez bada egiten, edo aurreko akordiorik ez bada hartzen, edozein interesatuk eska dezake sozietatea desegitea sozietatearen egoitzako merkataritzako epailearen aurrean.

##### IV.4.2.2.2.- Administratzaileen erantzukizuna

- Solidarioa, haien artean eta sozietatearekin batera.
- Objektiboa.
- Desegite-kausa gertatu ondoren jaiotzen diren zor sozialengatik erantzungo dute.

##### IV.4.2.3.- Sozietatearen berraktibazioa

Deseginda dagoen sozietatea berraktiba daiteke batzar orokorraren akordioaren bitartez, desegite-arrazoia desagertuz gero eta bazkideei likidazio-kuotaren ordainketa ez bada hasi.

#### IV.4.3.- Likidazioa

Kontzeptua: Sozietatea desegitearekin batera, sozietate horren likidazio-epealdia hasten da. Likidazioaren bidez, ondoz ondoko hainbat egintza gauzatzen dira, sozietatearen ondarea bazkideen artean banatu ahal izateko, baina beti sozietatearen hartzekodunei ordaindu ondoren.

##### IV.4.3.1.- Likidazioaren ondorioak

- Likidazioa egiten den bitartean sozietateak bere nortasun juridikoa mantentzen du. Bitarte horretan sozietatearen izenari "likidazioan" adierazpena erantsi behar zaio.
- Sozietatearen xedea aldatzen da: sozietatea azkentzea da sozietatearen xede berria.
- Batzarraren erregimena berdina da.

- Administratzaileen ordeztze, likidatzaileek emango dute kontu-likidazioaren egoeraren berri.
- SA: kapitalaren %5 gutxienez ordezkatzeko duten akziodunek eskubidea dute likidazioaren kontu-hartzailea izendatzeko, eta horrela likidazio-eragiketak fiskalizatu eta egiaztatu ahal dira.

#### IV.4.3.2.- Likidazioaren prozesua

1. Likidatzaileek sozietatearen inbentarioa eta balantzea egin behar dituzte euren eginkizunetan hasten direnean, likidazioaren hasierako eguna abiapuntutzat hartuta.
2. Sozietatearen ondasunak besterendu edo saldu behar dira (ondasun higiezinak: jendaurreko enkantearen bidez) eta kredituak kobratu behar dira.
3. Hartzekodunei ordaindu behar zaie, baina mugaeguneratutako zorrak bakarrik.
4. Azken balantzea egin behar da, behin likidazioa amaitu eta gero. Balantze hori batzar orokorrak onetsi behar du, eta MEAO eta sozietate egoitzan zabalkunderik handiena dutena egunkarietatik batean argitaratu behar da. Bazkideek balantze horren deuseztasuna eskatu ahal dute.
5. Azken balantzearen deuseztasuna eskatzeko epea igarota, aktiborik badago, bazkideen artean banatu behar da. Likidazio-kuota estatutuek ezarritakoaren arabera ordainduko da. Estatutuek ezer ez badute esaten, bakoitzak egindako kapital ekarpenaren arabera.

#### IV.4.3.3.- Likidazioaren amaiera

Likidatzaileek iraungipen-eskritura publikoa sinatuko dute. Eskritura hori Merkatal Erregistroan inskribatuko da eta, ondoren, sozietateari dagozkion idazpen guztiak kitatzen direnean, sozietatea azkendu edo iraungiko da. Likidatzaileek Merkatal Erregistroko gordailuan utziko dituzte iraungita dagoen sozietatearen liburuak eta dokumentuak.

#### IV.4.3.4.- Hartzekodunen eskubidea

Hainbat hartzekodunek ez badute kobratzen edo haien kreditua ez badago bermatuta, sozietatearen likidazioaren deuseztasuna eta hori berriro hasteko eskatu ahal dute.

#### ERANSKINA

Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onestekoa